

Mikel Asurmendi

Komatxo artean 2
Mahai-inguruak 2002-2006

Utriusque Vasconiae

© Mikel Asurmendi
© Utriusque Vasconiæ
Lehen argitaraldia: Donostia, 2007ko apirila
ISBN: 84-935019-6-4
Lege-gordailua:
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.
Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

Mikel Asurmendi

Komatxo artean 2
Mahai-inguruak 2002-2006



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

Literatur maitaleen arteko solasaldiak

Pentsamendu kritikoaren hastapenetan Kantek norbanakoaren tokian bestea jarri beharra zegoela zioskun. Euskaldunok, halaber, hausnarketa adierazteko “nire buruari galdetu diot”... diogu. Bestearekiko elkarrizketa izan zen jakintza maite dutenen lehenengo literatura. Platonek bere *Elkarrizketak* idazteari ekin ziolarik, ez zen soilik idazteko modu berri bat erabiltzen ari, pentsatzeko era berria ere abian jartzen ari zen...

Aurreko Hesiodok edo Homerok mito erlijiosoa edo kronika erabili bazituzten ere, Platonen idazkerak bere aurretik ez zegoen memoria motari nahiz gogamenari atea ireki zizkion. Gurean, halaber, modu honetako idazki literario-filosofiko-pedagogikoak izan dira, adibidez, L. L. Bonaparteren aginduz eta A. Iturriagaren *Jolasak* oinarritzat hartuz J. Duvoisin-en Iturriagaren *Solastaldiak* lapurteraz eginiko bertsoa, edo E. Intxausperen Iturriagaren *Elhestaldiak* zubereraz eginikoa, edota J. A. Uriarteren Iturriagaren *Berbaldijak* bizkaieraz bezalakoak. Eta Mogelek *Peru Abarka*, euskarazko eleberrigintzan aitzindaria dena idatzi zuenean, gertaera solteak bildu eta eskaini baino elkarrizketak papereratu nahi izan zituen euskal literaturan oinarri filosofala ezarriz. Ez

genuke ahaztu behar, bide batez, Mogel bera izan zela Pascalen *Gogamenak* itzuli zituena.

Idazle desberdinekin paraturiko literaturari buruzko elkarrizketak bildu ditu Mikel Asurmendik emari honetan. Eta horrekin, literatura nahiz pentsamendua maite dugunontzat, benetako opariaz gain, literatur kritika ere eskaintzen digulakoan nago. Mota desberdinetako egileak, hitz jarioak eta jardunbide literarioak, egileak eta iritziak aurkitu daitezke elkarrizketa papereratu hauetan, literatur kritikarentzako ekarpena, irakurlearentzako gozagarri.

Fito Rodriguez
(Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria)

Komatxo artean literatur saioa (1997-2006)

Aitzinsolasa

Komatxo artean literatur irratsaioak, gutxi gorabehera, 1997tik 2006ra bitartean iraun zuen. Gutxi gorabehera diot, saioaren gidariak izan gineno i zaila zaigulako ekimenak iraun zituen urteak eta hilabeteak zehatz-zehatz aditzera ematea. Eman dezagun, biribilean esanda, hamarkada batez euskal literaturaren paisaiaren kolore eta printzak jaso zituen saioa izan zela.

Saioa hiru erakundeen eskutik antolatu zen: Euskal Idazleen Elkartearen (EIE) asmoz eta beharrez jaiatu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoari esker, eta Donostiako Herri Irratiaren –hedatzeko– ardurapean. Komatxo artean saioa, Gipuzkoan entzuteaz gainera, Araban, Bizkaian, nahiz Nafarroa Garaiko zenbait eskualdetan zabaldu zen, baita Bidasoaz harantzago zabaldu ere. Bilbo Irratia eta Iparraldeko Euskal Irratiek izan zuten ardura hori, besteak beste.

Saioaren lehen arduraduna Jon Mikel Arano izan zen; aldiari-aldiari Karolina Bikuñako Sainz irrati esataria bidelagun izan zuen Aranok. Lehenbiziko bi urteen

ondoren, bolara batez, Gari Berasaluzeren gidaritzapean ibili zen saioa, baita gidari finkorik gabe ibili ere. Hirugarren urtea bete ostean, 1999ko urria aldean, saioa Mikel Asurmendi-ren gidaritzapean berrabiatu zen.

Sei urte luzeko ekinaldi horretan, besteak beste, baina bereziki, EIEko Andolin Eguzkitza eta Tere Irastortza lehendakariak, Maite Gonzalez Esnal eta Ana Urkiza idazkariak nahiz Herri Irratiko Txema Auzmendi kazetaria izan ziren saioaren sustatzaileak.

Bigarren aldia

Komatxo artean saioa, oro har, eta nik neronek –Mikel Asurmendi– berau gidatu nuen aldian orobat, euskal idazleen liburuen gainean oinarritu zen: saioaren ezaugarri nagusiak liburuak eta idazleak izan ziren, alegia. Saioa atal laburrek osatua izaten zen halaber: literaturaren berri laburrek, literatur testuen irakurketek, hala nola EIEko berriek.

Saioa literaturaren beraren periferian ibili zen zenbait unetan. Literaturari berari buruzko funtsaz haratago egin zuen bide, alegia, literaturaren inguruko kultur industriako hainbat eragilek eta sustatzailek ere leku hartu baitzuten: argitaletxeetako arduradunek, ilustratzaileek, nahiz tokian tokiko kultur eragileek edota kultur gintzako egileek.

Edonola ere, idazleekiko solasek osatu zuten bereziki saioa, eta bildu ditugun solasaldiak bi garai desberdinei dagozkie: Ana Urkizak EIEko idazkaritza hartu zuenean, saioa berritu eta bizitu zen. Berbarako, hilabete behin mahai-ingurua burutu genuen, baita saio bereziren bat edo beste burutu ere. Urteroko Galeuscari buruzkoa, kasu.

Saioaren funtsa

Saioaren funtsa idazleekin gauzatutako solasaldia zela adierazi dut, propio eta espres adierazi ere. Izanez ere, elkarrizketen muntak paperera eramateko adina funtsa zuela oharturik, saio batzuk ARGIA aldizkarian argitaratu ziren.

Bidean bide joaki, ez zara jabetzen motxilan bildu duzunaz. Ez zara ohartzen, bide-lagun izandako editore batek zuk egindako bidea estimatu eta saioak liburuan batzea proposatzen dizun arte. Eta behin zereginean hasi ondoren, bidean utzitako harri-bitxiak harritzen zaituzte. Areago harritu ere, jakin dakizunean, motxilan –ARGIAko motxilan– jasotako harri-bitxiak ez direla argitara ematea merezi zuten solasaldi bakarrak. Eta zure burua kontsolatu aldera –eta esaldi topikoa baliatuz– “ez daude merezi duten guztiak, baina daudenek merezi dute, ondo merezi ere”, diozu zure baitarako. Merezi dute idazleek eta liburuek, merezi dutenez. Baita merezi ere mahai-inguruko solasaldiek.

Nork bere burua gutxiestea ez da osasungarria, ezta sobera goraiatzea ere. Alabaina, *Komatxo artean* saioaren gaineko gogoeta honi beste ele sorta xume hau gehitu nahi diot, nire lanaldiaren esperientziaren eta eskerren agergarri.

Euskal literaturaren paisaia

Komatxo artean saioaren gidari izatea euskal literatura ezagutzeko berebiziko lanabesa izan zen niretzat. Saioaren sarreran erabili ohi nituen eleak parafraseatuz: euskal literaturaren paisaian murgiltzeko berealdiko aukera izan zen. Paisaiaren metaforari jarraikiz, literaturaren hainbat mendi, muino, laiño, erreka eta bide zidor ezagutzeko parada eman zidan saioak.

Paisaia hori margotzen diguten idazleei nire eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiet, baita paisaia osatzea posible egiten duten editore nahiz argitaletxeei ere. Biziki lagundu zenidaten saioa aurrera eramaten. Aitortu beharrean nago-eta: hainbatetan bakarlari sentitu nintzen, oso bakarti sentitu ere. Batzuetan, behar bezalako neurririk –neurri duinagoa edo– eman ez izanaren sentsazioa eramaten bainuen nirekin.

Zenbaitetan, *trena* duintasunez eramateko bitartekariak eskas ote ziren uste izaten nuen: ondoko hedabideetan irratia egiteko moldeez jabetuta, saioa, nik egiten nuen saioa, bigarren mailako saioa begitantzen zitzaidan. Horregatik, nire burua adoretu beharrean edo “bizi dugun –edo bizi gaituen– mundua, *trena* bailitzan irudikatzen nuen. Trenetik jaitsi eta –metafora berriz balioetsiz– literaturaren paisaiaren barrenean bidaizatzen nuen ordutxo batez”. Hots, eguneroko mundua gelditurik une batez, “geure” beste munduko bestelako istorioak entzuzera menturatzen nintzen asterik aste.

Komatxo artean-en segida: Testuketan

Jaio dena hiltzen da. Hala ere, izen bereko (*Komatxo artean*) beste saio bat bizi da Bizkaiko Irratian, Donostian sortu zenaren bidaidea eta gogaidea. Jaio dena hiltzen da, baina –Xenpelarrek iragarri bezala– sortu(ko) dira berriak.

Hau, da hamarkada bateko harri bitxiak bildu ditugu *komatxo artean* eta hasi dira dagoeneko harri bitxiak lantzen *Testuketan* saioaren bidez, Komatxo artean saioaren oinordekoa. Etxe berean gauzatu, Donostiako Herri Irratian. Literaturak berezko bozak behar ditu eta boz hauek berezko gailuak.

Irakurgai paratu ditugun elkarrizketak berezko boz eta luma dituzten euskal idazleenak dira. Euskal literaturako paisaian koloreak eta doinuak bizi-biziak paratu dituzten idazleak dituzu, berben amalgama anitzen eta bizien jabe.

Azkenik, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet EIERi nahiz ARGIA egiten duen Komunikazio Biziagoa, S.A.L. enpresari artikulu bilduma hau bildu eta argitaratzeko emandako aukerarengatik. Eskerrik beroenak halaber, Utriusque Vasconiæ argitaletxeari eta liburua argitaratzearen ardura hartu duen Ur Apalategi Idirin editoreari. Hitz laburretan, liburuan eta aitzinsolas honetan ageri diren eta ageri ez diren literaturaren jarraitzaile eta maitaleei, nire eskerrik sentikorrenak.

Mikel Asurmendi

Euskal Idazleen Elkarteak sustatutako emankizun bat izan zen "Komatxo artean" (oraindik ere hala da Bizkaian) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestua. Donostiako Herri Irratiaren uhinetan entzun ziren elkarrizketa hauek lehenik eta *Argia* astekarian argitaratu ziren egin ahala. Guztiak ala guztiak eskertuak gera bitez hitz hauen bitartez.

2002/ekaina

LITERATUR KRITIKAREN GAZI-GOZOAK

Solaskideak: Felipe Juaristi, Mari Jose Olaziregi eta Jon Kortazar

Literatur kritika gai gisara harturik gonbidatu ditugu Felipe Juaristi idazlea, Mari Jose Olaziregi eta Jon Kortazar irakasle, kritikari eta idazlea. Literaturaren gazi-gozoak, kritikaren itzalak eta argiak bildu ditugu mahai-inguru honetan.

Euskal literatura modernoa ekimen aski berria da, ondorioz kritika ere gutxi landu da. Kritikaren zirkuituak eta generoak daude, kritika lekune ezberdinetan egiten da, unibertsitatean eta hedabideetan, kasu. Idazlea, editorea, irakurlea eta kritikariak osatzen dute kritikaren zirkulua. Euskal literaturaren kritikaren egoera zehatza ezagutzea zaila izanagatik, solasaldi honek bere egoera amiñi bat gehiago ezagutzen lagunduko dizulakoan gaude.

Solasaldia abiatzeko, literatur kritika motak azaltzea proposatzen dizuet. Ba al dago berauek sailkatzea?

FELIPE JUARISTI: Jakina baietz. Unibertsitatean lantzen dena, batetik. Bertako irakasleek landutako kritika modua dago, honen barruan kritika asko izaki. Kritika hori—Espainian egiten dena— oso formala da, nahiko barroko eta aspergarria (unibertsitateko irakasleak diren Jon eta

Mari Joserren irribarre eta begirada zolien artean). Espainian egiten dena, esan dut. Bestalde, badago beste kritika modu bat, idazleak egindakoa; idazleak bere irakurketatik eta sentsibilitatetik egiten duena. Kritika hori batzutan argitaratzen da eta beste batzutan ez. Gero, iritzi-emaileena –kritikariak– eta irakurlearena dago.

JON KORTAZAR: Oro har, ados. Unibertsitatean kritika mota asko dago, baina banaketa horrekin guztiz apurtzeko beharra dagoela esango nuke. Halaber, kritika askoz gehiago da. Idazle bat idazten hasten den momentotik bere buruari buruzko kritika egiten hasten da. Bestalde, editoreek edo saileko zuzendariak ere –gauzak ezberdinak baitira– kritika egiten dute, beharbada kritika garrantzitsuena: esaldiak aldatzen dituzte, euskara zuzentzen dute... Badago ere lagunen arteko kritika. Idazle batek badu inguru babesle bat, lagungarria, inguru horrek ere kritika egiten du.

Bestalde, egunkarietako kritikak edo aipamenak daude, orrialde batekoak. Artean, aldizkarietakoak gutxitu egin dira, ziur asko, literatur aldizkariak ere desagertu direlako. Kritika mota asko dago, kritika irakurzaletasunaren ariketa bat da, irakurle zale asko dago eta ezberdinak. Nik, adibidez, kritika egiten dudanean irakurketa publiko bat egiten dut, baina, irakurzaletasunik ez badago ez dago kritikarik.

F. JUARISTI: Nik hori ez daukat oso garbi.

MARI JOSE OLAZIREGI: Nik ere ez. Hasteko kritikaz zer ulertzen dugun galdetu beharko genuke. Nik hainbat kritika bereiziko nuke. Esaterako, zuen planteamenduak oso oinarrizkoak izan dira: irakurtzen duen orok kritika egiten du hausnartu egiten duelako hori, alegia. Jakina, irakurleak testu hori bere egiten du eta nolabait, sortu egiten du. Kritika horri helburu sortzailea egotzen badiotzu (Joni zuzendua), noski badagoela beti kritika bat.

Editoreek ere kritika egiten dute, baina kaleratu baino lehenagoko kritika da.

F. JUARISTI: Hori kritika ere ez da.

M. J. OLAZIREGI: Beno ez da kritika. Aukeratzea, moztea, egokitzea, zuzentzea edota zentsuratzea da. Kritika aztertzeko modu asko dago. Askotan azterketa horrek duen helburua hartzen da kontuan. Epaiketa bat baldin badago, kritika batek epaitu egin behar duela esaten da. Hori da jendeak kritikaz ulertzen duena eta “kritika publikoa” deitu izan zaio, hau da, dibulgazio edo orientazioa helburu duen kritika. Bestalde, kritika akademikoa delakoa ere izango genuke: helburuz testu batzuen baliabide literarioak eta eurek baldintzatzen dituzten irakurketak aztertzen dituena. Zuek esandakoari jarraituz, kritika irakurketa-ariketa sinpleena bezala ulertzen bada, ariketa hermeneutiko gisara, hartara, edozer izan daiteke kritika.

F. JUARISTI: Normalean, aldizkarietan agertzen dena jotzen da kritikatzat. Eta kontua ez da liburu bat gustatzea, baizik eta liburu bat elementu arrazionalekin edo literarioekin aztertzea. Kritikatzat jotzen dugu liburu bat ona edo txarra den esatea, balorazioa egitea, alegia. Hori da egunkarietako edo aldizkarietako iruzkinetan egiten dena, baina, zuek badakizue beste kritika bat dagoela, eta hori gabe ez dago literaturarik. Badago kritika bat oso inportantea, unibertsitatean egiten dena.

M. J. OLAZIREGI: Ados. Unibertsitatean kritika egiten dugu, “Literatur kritika” izeneko irakasgaia ere badugu. Estrategia batzuk deskribatzen ditugu, baliabide literarioak aztertu, analisisia landu, eta hori ere kritika da, noski. Unibertsitateko kritikaren helburua ez da epaitzea, ez didaktikoa izatea ere. Ez du esan behar zer den ona, zer den txarra. Aztertu egiten du. Bestalde, prentsan kale-ratzen diren kritikak, nahiz eta orrialde batekoak izan,

badaude ia-ia helburu akademikoaz egindakoak, deskribapen hutsa egiten baitute. Beraz, hor nahaste-borraste bat dago. Kritika egiteko darabilgun metodologiak eta helburuek desberdintzen dituzte kritika desberdinak. Zirkuitu desberdinak daudela ere esan genezake.

F. JUARISTI: Edo literatur generoak.

J. KORTAZAR: Nik aspaldi galdu nuen juzkatzearen kontu hori. Ez dut uste kritika batek idazle bati hemendik edo handik joateko esan behar dionik.

M. J. OLAZIREGI: Baina kritika oro irakurketa den heinean, argibiderik eman diezaioke idazleari. Edonola ere, gauza jakina da kritikaz gain, lagunek ere eman diezaioketela iritzi eta iradokizunik idazleari, baita okerreko bidetik eraman ere.

F. JUARISTI: Egia da zuk esaten duzuna Jon. Izan ere, zer esan behar da? Liburu hau ona da edo txarra da. Hori azkenean irakurleak esan behar du. Zuk irakurleari pista batzuk eman behar dizkiozu.

J. KORTAZAR: Badira erreferentzia bi, oso inportanteak: bat, informatiboa. Hau da, liburuaren ezaugarriak agertzen dituena...

... *horiek erreseinak al dira?*

...ez bakarrik, batzutan gehiago ere agertzen du. Eta beste bat da, diskurtso kultural bat sortzen duena. Neurri batean, idazleari lagungarri gertatzen zaion kritika ere bada hori. Lehen (Mari Joseri zuzendurik) zirkuituak daudela aipatu duzu: liburua publikatu, irakurri eta elkarri komentatzean osatzen den zirkulua. Memento honetan ibilbide handiko idazleak ditugu Euskal Herrian, ez da lehenagoko kontua. Hau da, garai batean lehendabiziko liburua argitaratzen zuen, kritikak oso txarto jartzen zuen eta idazlea desanimatzen zen. Gaur egun gauzek ez dute horrela funtzionatzen, zorionez.

M. J. OLAZIREGI: Hori da. Beraz, kritikak ez du eraginkortasunik. Orduan, zertaz ari gara hitz egiten? Salmenta kontuez...? Liburuaren oihartzunaz...?

F. JUARISTI: Hori beste kontu bat da. Hedabideen funtzioa dago, kontu mediatikoa. Kritikaz aparte funtzionatzen duena.

M. J. OLAZIREGI: Hori da. Irakurzaleek, literaturaren instituzioarekin harremana dutenek (idazleak, irakasleak, argitaratzaileak...) irakurtzen dituzte kritikak. Kritika gutxiengana iristen da, berez.

Honek kritika egokia edo ona zein den galdetzera garamatza. Zuek esan duzue, oso ondo esan ere, ez direla bakarrik erreseinak egiten, hau da, beste informazioak ere ematen direla. Bada, kritika on batek, edozein mailatakoa izanda ere, akademikoa izan edo ez, funtsezko gauza bati erantzun behar dio: ez du itzali behar testu horrek eragin dizun emozio estetikoa. Kritika bat ona bada, liburua irakurtzeko gogoia piztu behar dizu. Hori da kritika on bat, ez du emozioa zapuztu behar. Kritika on batek liburuarengana hurbildu behar zaitu, irakurtzeko desioa piztu, horrek ez du esan nahi liburua saldu behar duzunik.

Ba al dago kritikari hori?

M. J. OLAZIREGI: Bai. Ez dago ondo esatea baina, nik Felipek poesia liburu bati buruz argitaraturiko kritika laburtxo bat erabili dut klasean. Berau irakurrita “liburu honetan zerbait badago”, esaten diozu zure buruari. Hori da kritika on bat. Nahiz eta Felipek aspergarri adjektiboa erabili duen unibertsitatean egiten den kritikaz.

F. JUARISTI: Aspergarria erabili badut, unibertsitatean ere generoak eta eskolak daudelako da. Eta bada eskola bat oso pedantea. Esaldi bakoitzean hamabost aipamen ezartzen ez badira ez da kritika ona, liburu bat juzkatzeko

erabiltzen dituen elementu batzuk nik ez nituzke harapatuko. Aspergarri hitza testuinguru horretan hartu behar da. Aspergarria da “Barthesek esaten zuen bezala...” kritika idazten hastea. Eskola hori oso zabaldua da. Nik mania pixka bat diot. Badira beste eskola batzuk, zorionez. Edonola ere, unibertsitatean egiten den kritika hor dago, eta ziur aski hori da irakurleak gutxien ezagutzen duen kritika mota. Unibertsitateak gauza on bat dauka: medioa ezagututa, literaturaren baliabideak ezagututa, batzutan behintzat, bertan egiten den kritika askoz aseptikoagoa da idazle batek egin dezakeena baino. Idazle batek bere praktikatik egiten du, bere sentimendu eta intuizioetatik batez ere, eta nik kritika hori ere eskeretzen dut. Baina, unibertsitateko kritikan ere –irakasleak eta idazleak tartekoak izanik– kritika hori ematen da.

M. J. OLAZIREGI: Unibertsitatean, behiala terminologian erabiltzen zen gehiegikeria ari da gainditzen azken urteotan; aipuen gehiegikeria, alegia. Horrek ikaslea eta irakurlea aldendu egin baititu.

Aldizkarietan egiten den kritika horrela juzkatzen al da?

J. KORTAZAR: Literatur aldizkariak desagertzen joan dira.

F. JUARISTI: Euskarazkoak batez ere, erdarazkoak badaude.

J. KORTAZAR: Aldizkari horietan agertu beharko litzatekeen kritikak ez du Barthesen eskolakoena izan behar, noski. Nahiz nik Barthesena oraindik ere defendituko nukeen, Felipe ez baita inoiz lehen orrialdetik pasatzen...

F. JUARISTI: “...*Con Barthes ni te cases ni te embarques*” hor dago (irriak).

J. KORTAZAR: Ez da esaldi bat, zorionez poema bat da (irriak). Badago aipatu ez dugun kontu inportante bat: hausnarketarena. Badago informazio bat, analisi bat, badaude baliabideak, baina ez dago hausnarketa. Hau da, testua hausnartzen duzu edo ez. Batzutan gogotsu

zaude eta beste batzutan ez. Liburua ez zait asko gustatu, baina aipamena egin behar dut, aipamena esan dut. Baina beste puntu bat dago, zuk esan behar duzu zuri zer iruditu zaizun liburua. Eta horretarako espazio bat behar da, batzutan orri bat edo bizpahiru nahikoak dira, beste batzutan ez. Batzutan, 9-10 orri inguru behar dira. Atletismoan ere, adibidez, neurriak eta probak badaude: 100, 200, 400, 800 edo 1.500 metro.

F. JUARISTI: Hori egia da.

J. KORTAZAR: Bada, hori gurean desagertu da. Gure artean, kritika luzeak daude edo orritxoak, tartekorik ez dago.

M. J. OLAZIREGI: Erabat ados. Argi utz dezagun, kritikaren luzerak zenbait lekutan –komunikabideetan, kasu– duen garrantzi funtsezkoa. Gauza bat dago argi: kritikek eraginkortasunik izango badute hartzen duten espazioaren arabera ere izango dutela. Alegia, gehigarrietako orri osoak betetzen dituzten kritika horiek saltzen dutela frogatuta dago.

Egan aldizkarian literatur kritika zabal eta sakonak eskaintzen dira...

... (Hiruek aho batez) baina nork irakurtzen du *Egan*?

Inor gutxik.

J. KORTAZAR: Hori ukazina da. Aldizkariak liburutegi publikoei oparitu egiten zaizkie.

Orduan, liburua liburutegi publiko eta eskolari esker bizi da...

(Hiruek aho batez) ez dago dudarik.

M. J. OLAZIREGI: Ez dago literaturarenganako pasiorik. Euskal literatura ez dago euskal gizartean errotuta. Zenbat jende entzuten duzu eleberri edo poema bati buruz hitz egiten autobus batean?

F. JUARISTI: Nik joan den batean emakume bat ikusi nuen Kirmen Uriberen “Bitartean heldu eskutik” poesia liburua autobusean irakurtzen. Beste behin, Iruñeko autobus geltokian, hamar liburu kontatu nituen, baina bakar bat zen euskarazkoa. Eta irakurleak euskaldunak ziren.

Egunkarietako orri bateko kritikek ba al dute segimendurik?

JUARISTI eta OLAZIREGI: oso gutxi.

J. KORTAZAR: Idazleek segitzen dute.

M. J. OLAZIREGI: Idazleak nahi du bere lanaz hitz egitea. Bera da hori eskertzen lehena, nahiz eta publikoki ez duen –ez aurka ez alde– ezer esaten. Baina, kritika irakurtzen du, bera da interesatuena. Baina, prentsa eta hedabideetako kritikak, benetan, ez du segimendu handirik.

J. KORTAZAR: Eraginez hitz egin beharko genuke, baina ez dut uste eragiten duenik.

F. JUARISTI: Egunkarietako kritikak idazleengan eragiten du, irakurleengan eragina izatea zailagoa da. Herri honetan bitartekari asko dago eta horiek eragin gehiago dute. Batzutan, harrigarria egiten zait liburu batek sekulako arrakasta izatea eta beste batek, batere ez. Ahoz ahoko kritika bat dago, horrek funtzionatzen du gure artean, baina politikan ere horrela funtzionatzen du herri honek, pasilloetan funtzionatzen du politikak, horren eragina agertzen da parlamentuan. Literaturan ere, batek esaten dio beste bati: “Irakur ezak liburu hau eta ez zaik damutuko”. Eta ziur aski ez da kritikari literarioa, baina gusatu zaio eta bultzatu nahi du liburua. Nahiz egunkarietako kritika sailean agertu izan diren, liburu oso on batzuk pena gehiagorekin pasa dira gloriarekin baino, hori da tristeena.

M. J. OLAZIREGI: Izan ere, egunkarietako kritika batek irakurle arruntengan eraginkortasuna eduki dezan interes

handia dago. Jonek aipatu duenez, espazioa da inportantea: orri oso bat, argazki batekin. Gainera, jakina eta neurtua da horrek irakurlearengan eraginkortasun zuzena duela, nahiz eta irakurlea literatura gutxi irakurtzen duen pertsona izan. Orduan, aztertzen badugu euskal hedabideetan zer espazio daukan kritikak, bada, apurra da, xumea. Ez da serio hartzen kritikaren atala, marjinala da erabat. Salbuespenak salbuespen, ez zaio garrantzirik eman nahi. Felipek esan du, euskal literaturaren kritikak ahoz aho funtzionatzen duela. Bada, zein gaizki gauden...! Nik dakidala, gutxi irakurtzen baita, ahoz ahoko kontu hori oso jende gutxiren arteko kontua da.

J. KORTAZAR: Presa puntu bat dagoela uste dut. Berri-tasunarena. Gure kulturaren "gazte" izatea plus bat da, mendebaldeko kulturaren, alegia. Egunkari bateko iruzkin batek ematen duena presazko flash txiki bat da. Baina zer geratzen da liburu dendatan? Nobedadeak berehala joaten dira. Orain gutxi nire herriko (Mungia) liburudenda bateko erakusleihoan erreparatu nuen eta ehun liburuetatik bost ziren euskaraz. Jabea laguna denez: "Zergatik bost bakarrik euskaraz?", esan nion. Erantzuna: "Jendeak ez du euskaraz irakurtzen". Ez dakit liburuaren industriak goia jo duen edo ez, baina, memoria falta duen kultura batean ari garela iruditzen zait. Nahiz eta kritikak onak izan, liburuak desagertu egin da eskaparartetik, ez da aipatzen, ez da berriz irakurtzen. Hori beste irizpide bat da, berriz irakurtzen den edo ez jakitea. Argitaratzeko erritmoa handia da, baina...

M. J. OLAZIREGI: Kritikaren lekua argi dago zeinek hartu duen, hemen benetako epaileak kazetariak dira. Beraiek dira liburuak gehien saltzen dituztenak: elkarrizketen eta argazkien bidez. Horregatik pasatzen dira gauzak hain arin. Adibidez, urteko azokan, Durangon, zenbat izenburu bultzatzen dira eta zenbat liburu on pasatzen dira

oharkabeen? Berdin dio kritikarik izan ala ez. Jendeari hedabideen oihartzuna iristen zaio. Egunkariak dena berdindu egiten dute.

F. JUARISTI: Argialetxeek liburua ateratzea nahi dute, argazki eta guzti, eta azalean bada hobe. Azalean agertzen bada, pozik daude. Esaterako, idazle hasi berri bati leku gehiago ematen zaio, hasi berria delako batez ere. Baina, normalki, idazleak beste gauza bat eskatzen du.

M. J. OLAZIREGI: Horretan erortzen ari dira egunkariak. Izugarria da. Azkenaldion hainbat idazle berri ezagutu ditut, eta elkarrizketa luze eta argazki pare batekin konformatu egiten dira. Eta kito!

Prentsan ez al dago literaturaren kritikarako lekune berezirik sortzea?

M. J. OLAZIREGI: Egunkari batean behin galdetu zidaten ea nola egingo nukeen kritika gehigarri bat. Argi eta garbi azaldu nien: hainbat orri, hainbat jende inplikatur eta abar. “Uf! Hori gehiegi da”, erantzun zidaten.

Bestalde, EHU n orain hogeit hamar urte hasi zen euskal filologia erakusten. Euskarari –hizkuntza gisara– literaturari baino leku gehiago eman zaio, apika?

F. JUARISTI: Baietz uste dut. Gehiago saiatu gara hizkuntza –euskara– aztertzen literatura baino. Unibertsitateko tesi gehienak, ez dakit nongo bailarako ergatiboa aztertzeko dira, baina literaturari buruz gutxi egin da, behar bada, egiten zailagoa delako. Haran bateko euskara aztertea errazagoa da. Literatura ordea, gauza aldakorra da, eta gainera euskal literatura berria da, ez dezagun hori ahaztu. Zenbat urte dauka euskal literatura modernoak? 40 urte? Ez gehiago. Alcalako Unibertsitatea XVI. mendean hasi zen sortzen filologoak eta literatur espezialistak. EHUK nola sortuko ditu ez badago oraindik corpus literario bat aztertzeko?. Hori da arazoa.

J. KORTAZAR: Bada ere beste kontu bat. Gizarte batek legitimitatea behar duenean literatura “erosi” egiten du. Gurean ez du zertan erosi, hizkuntzak ematen dio legitimitatea. Guk erdaraz esan dezakegu “euskaldunak gara eta hizkuntza berezi bat hitz egiten dugu”. Gizartearen legitimitatea, nolabait, hizkuntzatik sortzen da. Ez da corpus problema bakarrik.

JUARISTI eta OLAZIREGI: Bada ere.

J. KORTAZAR: Bada, baina askoz sakonagoa da legitimitatearena. Literatura ez da ezertarako behar.

F. JUARISTI: Hori da. Baina zergatik xahutzen da horrenbeste indar bailaretako euskararen berezitasunak aztertzen?

OLAZIREGI eta KORTAZAR: Hori botere kontua da!

M. J. OLAZIREGI: Gauzak erabakitzeke aukera eta boterea duzunean, irakaskuntzarako programak nahi bezala antolatu ditzakezu eta nahi duzunari lehentasuna eman. Gurean, ikerketa filologikoen eta linguistikoen lehentasuna izan dute eta literatur ikerketek leku marjinala izan dute irakaskuntzan. Hori da gure errealitatea eta etorkizuneko erronka: euskal literatur ikerketak berritu eta bultzatzea.

F. JUARISTI: Kontua da indar gehiago xahutu dugula euskararen eta bere berezitasunen inguruan egitura paraleloak sortzen bestelakoetan baino. Baina, adi, hizkuntza batek ez du ezer balio literatura bat ez baldin badauka.

J. KORTAZAR: Hizkuntza batek bai.

F. JUARISTI: Hizkuntza moderno batek, ez.

J. KORTAZAR: Konforme. Baina, gure gizartea beharbada ez da modernoa, gure gizarteak ez du euskal literaturarik behar. Hizkuntzarekin nahikoa du bere identitatea eta legitimitatea markatzeko.

M. J. OLAZIREGI: Felipe, arrazoia duzu esaten duzunarekin. Kontu hauek guztiak euskal literatur ikerketek

izan duten gutxiespenarekin lotuta daude. Jonek eta nik oso argi daukagu irakasten dugunaren garrantzia zein den, zein lan garrantzitsua egin dezakegun klaseetan. Guk, oraindik ere, unibertsitatean, ikasleei testuak “irakurtzen” edota “aztertzen” erakusten diegu, testuetan barneratzen. Gure lana oinarrizkoa da oraindik. Aukera urria duzunean ahal duzuna egiten duzu. Dena den, egoera aldatzen hasia da.

Euskal literaturaren plaza txikia da, denek ezagutzen dute elkar. Prest al dago euskal idazlea kritika jasotzeko, haserretu gabe?

F. JUARISTI: Jaso beharko haserretu gabe!

J. KORTAZAR: Baina ez du egiten.

F. JUARISTI: Hitzez ari gara hitz egiten. Kritikari batek hitzekin jokutzen du eta idazle bati gustatuko zaio esaten duena edo ez, baina ez du zertan haserretu behar. Kritikari batek eskubidea du liburu bat gustagarria ez izateko. Idazle batek idazten duen guztia zoragarria dela pentsa dezake, idatzi den onena dela, baina kritikari batek ez. Eta eskubidea du hori esateko.

Batzutan, liburua kritikatu baino egilea kritikatzan omen da.

F. JUARISTI: Gertatzen da hori ere.

M. J. OLAZIREGI: Batez ere, idazlea emakumezkoa denean. Horren adibide batzuk badira. Hala ere, ez dut uste gurean haseraldi itzelak izaten direnik, kritika txarrak ere ez baitira ugariak. Bestalde, batzuetan idazle-kritikarien arteko feed-back-a ez da ematen. Alegia, kritikarien lanak, idazleen lanak bezala, oharkabean pasatzen dira gehiegitan.

J. KORTAZAR: Galdera inportantea da. Pare bat gauza: batetik, gurean, ez da sexu arazoa bakarrik, baizik eta txikiak izatea ere bai, biak dira inportanteak. Eta, ondorioz-edo, inportanteak dira ere lotura afektiboak eta ideo-

logikoak. Zaila da distantzia neurtzea. Esaterako, Iratxe Gutierrezek 1990eko hamarkadan ipuina eta narratibari buruzko sail bat burutu zuen, bada, hamar urte haietan ez zen kritika bat agertu. Hau benetan kezagarria da.

F. JUARISTI: Ez zuen ondo begiratu.

J. KORTAZAR: Ondo begiratu zuen.

M. J. OLAZIREGI: Gauza bat ez duzu esan. Ibilbide berriko idazleen testuak aztertu zituen –idazle gazteenak, alegia– ez ibilbide luzekoen testuak.

J. KORTAZAR: Baina kritikarik ez. Ez da Iratxeren kontu bat. Ni urrutitik nator literaturaren ibilbidean. Une batez, pixka bat urruntzea erabaki nuen, lasai bizitzea. Zeren eta niri eztabaida gogorrek tokatu zaizkit pasilloetan barrena.

Bestalde, sariak jasotzen dituzten liburuak daude. Sariak liburua laguntzen edo zapuzten al dute?

F. JUARISTI: Laguntzen dute.

J. KORTAZAR: Bai? Zuk uste?

M. J. OLAZIREGI: Lehen liburu sarituek gehiago saltzen zuten, orain ere, ezta?

J. KORTAZAR: Uste dut laguntzen dutela argitaratzen. Baina saltzen ere bai?

JUARISTI eta OLAZIREGI: Bai. Saltzen ere bai.

F. JUARISTI: Editorea izan nintzen garai batean. Nire nagusiak bere liburuen arrakasta egunkarian hartzen zuen espazioaren arabera neurtzen zuen: “Orrialde laurdena hartu du, orrialde laurden hori nik ordaindu izan banu...”, honenbeste diru kalkulatzeko zuen. Horrela neurtzen zuen, ez zuen beste ezertan erreparatzen. Berdin zitzaion liburuz esaten zena.

J. KORTAZAR: Eta nahikoa ote da horrekin?

F. JUARISTI: Jakina ezetz

2002/Abendua

NORK IRAKURTZEN DITU EUSKARAZKO LIBURUAK?

Solaskideak: Jorge Gimenez, Iñaki Zubeldia,
Oier Guilan

Euskal literaturaren egoera eta literaturaren beraren irakurlea ezagutze aldera, literaturaren osasuna, generoak eta merkatua izan ditugu hizpide. Jorge Gimenez Alberdania argitaletxeko editorea eta Euskal Editoreen Elkarteko lehendakaria, Iñaki Zubeldia Ibaizabal argitaletxeko kidea eta idazlea, eta Oier Guilan –azken hau literatur irakurle gisa– bildu ditugu mahai-inguruan.

Literatur zaleen kolektiboa eta literaturaren oinarriak ezagutze aldera, egin dezagun euskal literaturaren diagnosi bat. Nolakoa da bere osasuna, nolakoa irakurlearen egoera?

JORGE GIMENEZ: Hasteko, diagnosi hitza hitz potoloa eta interpretatzeko arriskutsua dela esango nuke. Euskal literatur sorkuntzaren egoera bere bizitzan ezagutu duen hoberena da, baina, tamalez, bizitza laburra du. Osasun ona du bai sorkuntza ahalmenaren aldetik bai batez besteko kalitatearen aldetik. Kalitateari dagokionez, euskarazko merkatuan oso puntako idazleak ditugu, orain-

goz gutxi batzuek baino ez dute onespena jaso, baina pixkanaka bide hori zabalduz doa.

Irakurlearen egoera, berriz, ona da. Kopuruari dagokionean ez da hain ona, bai ordea irakurlearen estratifikazioari dagokionean. Irakurleak gero eta modu erosoago batez bilatzen ditu bere gustuko literatur generoak. Idazleek, halaber, hobeto identifikatzen dituzte beren helburuak irakurle honen barruan.

IÑAKI ZUBELDIA: Jorgek esandakoa bidezkoa iruditzen zait. Egia da azken hogeitahogei bost urteotan euskal literaturak aurrerapauso nabarmenak eman dituela. Egoera hau, ordea, ez zen bat-batean sortu, aurretik sustrai bat bazegoelako gertatu da. Baina, batez ere, gure literatura orain iritsi da literatura unibertsalaren neurrira, ez nuke esango neurri-neurrira iritsi denik ere, baina autore batzuk maila horretan dabilta, euskal idazle batzuk munduko literatur egile batzuekin erkatu daitezke, eta beste batzuk bultzaka datoz. Euskal literaturaren egoera itxaropentsua da.

OIER GUILLAN: Funtsean ados nago esan denarekin. Azken bi hamarkadetan aurrerapauso izugarriak eman dira eta unibertso propioa gero eta osatuago bat dago, irakurle bakoitzaren beharrak asetzeko gero eta eskaintza zabalago bat dago merkatuan. Alabaina, gauzak proportzioan ikusi behar dira, eta irakurle naizen aldetik, kezka bat daukat: gure txikitasunean, ez ote diren liburu batzuk errazegi kaleratzen eta ez ote duten oihartzun zabalegia izaten. Aurrerapausoak eman dira, bide luzea egin da, baina autokritikan ere sakondu beharra dagoela nabari dut.

Euskal literatura beste literaturen ondoan garatzen ari da. Ondokoekin homologatzeko moduan al dago?

J. GIMENEZ: Irakurlea irakurle dela azpimarratu nahi dut, alegia, ez hizkuntza bateko edo besteko irakurle. Euskal

irakurleak beste hizkuntza bat erabiltzen du gutxienez; Hegoaldean gaztelania eta Iparraldean frantsesa. Beraz, informazio iturriak guztiz zabalik dauzka eta konparatzeko aukera ere bai. Hori ez da gertatzen, esaterako, euskaraz irakurtzerik ez daukan jendearekin.

Konparazioa kalitate mailetara zabaltzen badugu, oso eremu labainkorrean sartzen gara. Finean, herri bateko literatura kultur alorreko beste produktu bat besterik ez da. Literatura unean uneko eta tokian tokiko kulturaren egoerari dagokion zerbait da, ez da sortzen literatur tailer batean, nolabait esanda. Alabaina, euskal literaturak ez du lotsarik izan behar inguruan ditugun literaturaren aldean jartzeko, bereziki, gaztelaniaz egiten den literaturaren aldean. Bereziki diot, Espainian egiten den gaztelaniazko literaturari begiratzen bazaio, sorkuntzaren aldetik, ez baitago bere unerik hoberenean. Besterik da Hego Ameriketan egiten dena. Gure literatura, oro har, beste literaturekin homologatuta dago. Kanpoko idazleek, agenteek nahiz editoreek gero eta gertuagotik eza gutzen dute gure errealitatea eta gure uretara hurbiltzen dira sarea botatzeko asmoz. Horrek zerbait adierazten du.

Nola lehiatzen da euskarazko literatura erdaraz ekoizten den literaturarekin? Gazteen artean bereziki.

I. ZUBELDIA: Gazteen artean erdarazko literaturara jozteko ohitura duen sektore bat badago. Nahiz eta gazte hauek ikastoletan hezi izan diren, erdaraz euskaraz baino gehiago irakurtzeko ohitura hartu dute gaztetatik. Izan ere, oraindik hainbat obra ez daude euskaraz eta derrigorrez erdaraz irakurri behar dituzte: hor daude Ken Folletten *Los pilares de la Tierra* eta beste obra batzuk, Noah Gordonen *El Médico* eta *El Rabino*, Stephen King, Dean R. Koontz, Anne Rice eta beste hainbat amerikarrek gazteentzat idatzitako obra indartsu eta erakargarriak.

Alegia, badago gazteentzako esplizituki idatzitako literatura: gai makabroak eta garratzak, tentsio handikoak, guk literatura horietatik gutxi daukagu eta irakurle gazteen sektore batek horietara ezinbestean jotzen du. Edonola ere, gure artean badauzkagu euskal literaturaren irakurle gazte onak diren gazteak ere.

Zu zeu Oier, ase sentitzen zara dagoen eskaintzarekin? Irakurri nahi duzuna aurkitzen duzu edo genero bat edo beste faltan hartzen al duzu?

O. GUILLAN: Orokorrean, gero eta aukera gehiago daukat beharrezko ditudan gaiak eta generoak aurkitzeko, baina oraindik ere ez naiz guztiz ase sentitzen. Egia da, Iñakik aipatu bezala, beste literaturetatik itzulitako lanak falta ditugula gure literaturan. Euskal literatura kalitate handiko gauzak egitera heldu da, gero eta parekatuagoa dago beste literaturekin, gure gabeziak ez daude kalitatearen mailan, beste eremu batzuetan baizik. Gazteei interesatzen zaizkien zenbait generoei dagokienean gabeziak daude ziur asko; oraindik ere eskaera osatzeko beste hizkuntzetara jo beharra dago. Nik neuk ez ditut behar ditudan gauza guztiak aurkitzen, baina sorpresa oso atseginak hartzen ditut hemen idatzitako hainbat libururekin.

Aipa dezagun literatur hizkuntzaren egoera. Literaturaren corpus bat gauzatzeko jende kopuru nahikorik ote dagoen aipatu izan da. Irakurle gazteak erakartzeko jerga edota argota aski landua ote dugu euskaraz? Eguneroko hizketa moldetik hurbil ala urrun al dago euskarazko literatura?

I. ZUBELDIA: Euskarak eta hizkuntza literarioak berak itzulpenari esker eta idazleei esker asko aurreratu du, nolabaiteko corpus literario bat eta oinarrizko terminologia bat dago. Beharbada, bai irakurlearen eta bai herriaren formazioan atzerago gaude, eta batzuetan kosta egiten da

literatura zabaltzea. Hau da, oro har, jendeari kosta egi-
ten zaio literatur hizkuntzara hurbiltzea. Hizkuntzaren
maila dezente altxa da, baina euskarazko irakaskuntza
oso gaurko kontua da, herriak oraindik ere ez du uniber-
sitatearen tradizio sendoa bereganatu, beraz, oraindik
urteak eman beharko ditugu jendea hizkuntza literario
horretara hurbiltzen joan dadin.

Bi plano bereiz ditzakegu herrian, batean irakasleak,
idazleak eta itzultzaileak daude, hizkuntza munduan
jende jantzia alegia. Eta beste plano batean, ez tontoa-
goak direlako, beste gai batzuez arduratzen eta interes-
satzen direlako baizik, dago euskara herrikoia dakien jen-
dea, baina hizkuntzaren ezagutzan gehiegi sakondu ez
duena. Lehenak ez daude bigarrenak baino jantziagoak
horregatik. Herri hau horrela da eta hala onartu beharra
daukagu.

O. GUILLAN: Nik irakurle gazteen artean zailtasunak
antzematen ditut, gazteek zailtasunak dituzte hizkuntza
literario horretara hurbiltzeko, jerga, argota edo beste-
lako baliabideak erdaratik jasotzen eta erabiltzen dira, eta
nahiz euskaraz izan badauden, ez dira aski ezagutzen
edota ezagutzen badira ere ez dira erabiltzen, faktore hori
askotan traba izaten da jende hori euskal literaturara
ekartzeko.

J. GIMENEZ: Euskaraz irakurtzera hurbiltzeko arazoak
dituztela euskal gazteek? Euskaraz irakurtzera edo irakur-
tzera oro har? Arazoa zabalagoa da, ez da hizkuntza arazo
soila, ezta gutxiagorik ere, badaude beste kontu batzuk,
tamalez, sakonagoak. Esaterako, datuei erreparatzen ba-
diegu, bi gauzatan laburbildu daiteke gure egoera: ira-
kurlea oro har –gazteleraren eremuan mugitzen diren ira-
kurleez ari naiz– galtzen ari gara, gero eta urriagoa da.
Datu honek ez digu soslaia osatzeko balio, baina bai
egoera islatzeko. Beste datu bat irakurtzen duten horiek
gero eta gauza zehatzagoetara jotzen dutela da, ez da no-

raezeko irakurlea edo esploratzailea. Bakoitzak berea biltzen du eta gainera oso definitua.

Datu horiek euskarazko literaturara ekartzen baditugu, irakurle batzuk irabazi egiten dituela ematen du, baina oso fenomeno erlatiboa da. Hau da, datuak interpretazioaren menpe jarri ohi dira eta horrek azterketak okertzera eramán gaitzake. Bi prozedura nahastu ohi dira, irakurketa berez beheraka doan arren, gurean nolabaiteko faktore zuzentzaile bat dago, hizkuntzaren normalkuntzaren bidetik datorrena, beti gora doana. Jakina, oraindik bide luzea dago egiteke normaltasun egoera batera iristeko. Eskolako irakurketa gomendioz egiten den irakurketa da, ez da irakurketa librea.

Bestalde, gure literaturan gertatzen dena arazo bezala planteatzeko dagoen joera ezeztatu nahi nuke. Ez dut uste hainbeste arazo dagoenik, “arazo” hitzarekin nazkatzén hasita nago. Iñakik esan duenez, literatura irakurtzen ez dutenek ez dituzte baliabide edo ahalmen literario txikiagoak. Irakurzaleen mundua klub baten antzekoa bihurtzen ari da. Garbi ikus dezagun, zenbat eta denbora gehiago galdu horren kontzepzioa hartzen, guretzako kalte.

Nondik nora ari da klub hori osatzen?

I. ZUBELDIA: Eskolatik datorren irakurle txikien bidetik bereziki, bide hori oso interesgarria da. Eskolan ia denei irakurrarazten zaie, irakurtzeko obligazioa-edo izaten dute. Batzuk konturatzen dira irakurriz izugarri gozatzen dutela eta horrela literaturarako zaletasuna sortu ahal zaie. Beste batzuei ez zaie hori gertatuko, ez dira klub hori osatzera pasako. Eskolaren bidea interesgarria da irakurle potentzial batzuk sortzeko, nahiz horrek ez duen esan nahi denak irakurle izango direnik. Gaineratiko hauek kirolean edota informatikan arituko dira, baina horrela sortuko dira irakurle libreak. Hala ere, literatura

txikitatik umearen aurrean jarri behar da, gero ume horrek berak gazte denean aukera egin dezan. Txikitan irakurtzea gozamen bezala hartzen duena, ziur asko gero irakurle izango da.

Bilatu dezagun irakurlearen soslai hori apur bat. Zein da genero irakurriena, zein dago gorago zein beherago?

J. GIMENEZ: Euskarazko irakurlearen %32ak eleberria aukeratzen du era sistematiko batean; %14ak, berriz, “humanitate” izeneko zaku zabala eta bitxia aukeratzen du. Hirugarren multzoan poesia eta antzerkia datoz. Gaztelerazko datuak hartzen baditugu, nobelaren datuak oraindik markatuagoak daude, irakurlearen aukera %80ra iristen da.

Baina, datu soil gisara hartu beharrean, nolabaiteko interpretazio bat egiten arriskatzen bagara, nobela da narrazio erregistroetan zehaztugabeena, nobelaren barruan best sellerrak sartzen dira, genero mistoak ere sartzen dira. Beraz, argi gutxi ematen duen datua da irakurzale-tasunari begira. Esan dezagun, jendeak irakurketan “murgiltze” moduko bat egiten duela.

O. GUILLAN: Narrazioak, eta honen barruan eleberriak, estatus gorena hartzen du. Ez naiz salmenten arabera ari, –ez ditut datuak ezagutzen– jendeak aipatzen dituen generoen arabera baizik. Poesiak edo antzerkiak ez dute hainbesteko prestigiorik; baina bai nolabaiteko errespetuzko estatus berezia. Gainera, poesia malguagoa da, beste formatuekin ere azaltzen da kalean, harreman zuzenagoak izan ditzake zenbaitetan jendearekin, nahiz eta hori ez islatu beti salmentetan. Poesia idazten hasten dena narrazioa pasatzen denean, nolabaiteko heldutasun prozesua osatu duela pentsatu ohi da eta ez nago horrekin ados. Jendeak nobelari beste estatus bat ematen dio generoa ulertzeko orduan. Saiakera eta biografia generoak oso baztertuak gelditzen dira, salmentetan ez da

horrela islatzen, eta uste baino gehiago saltzen dira agian, baina kalean ez da hainbeste ageri. Bi genero hauek aberastasun izugarria eskaintzen diote literaturari oro har, saiakerak nolabaiteko oinarri bat ematen dio, baina kalean gutxietsia dago eta generoen estatus horietan behe-rago agertzen da agian.

J. GIMENEZ: Bestalde, irakurleen estratifikazioari begira honako komentario hau oso zabaldua dago: “Adinean gora joan ahala jendeak narraziotik saiakera eta biografia aldera jotzen du. Poesia gazte-gaztetan irakurtzen da, eta irakurleak horren gazte izan gabe poesia irakurtzen segitzen badu klasikoetara jotzen du”. Merkatua baliotzat hartzen badugu, liburuaren zirkulazioa narraziogintzatik bizi da, eta ez bakarrik narraziogintzatik baizik eta eleberritik. Gogora dezagun aspaldikoa ez den datu hau: gure literaturan ipuina izan da irakurriena. *Obabakoak* hor dago adibide gisa. Beste gauza bat da liburu hori zein kontzepturen barruan kokatzen den, liburu atera zenean gehienok ipuinak zirela esan genuen, nahiz geroago beste kontsiderazio batzuk egin ziren. Harrezkero nobelak egin zuen maldan gora eta orain ipuingintza bere benetako neurrira errenditzen ari da. Inakik agian, gehiago esango digu idazle moduan.

I. ZUBELDIA: Ez dago dudarik, Ramon Saizarbitoriak berreskuratu du azken urteetan eremu hori, Joseba Sarrionandiak ere *Lagun izoztua* eleberria idatzi du. Eleberria indar izugarria hartzen ari da. Batzuek *Obabakoak* eleberrizat jo zuten, baina ipuin sorta bat da, batasun bat egiteko modukoa, baina funtsean ipuin zoragarrien bilduma. Poesiak, idazle berri gazteen artean arrakasta dezente berreskuratu du, eta indartsu ari da bultzatzen.

Zertan dago merkatua eta ekoizpena, zertan argitaletxeak? Batzuetan sobera produzitzen dela entzuten da, liburu guztiek ez dutela kalitate nahikorik lortzen...

J. GIMENEZ: Fenomeno berri baten barruan ari gara, hau da, edizioaren mundua demokratizatu egin da. Liburuaren prezioa merkeagoa da; egun liburu bat ekoiztea ez da garai bateko lan hura. Liburu merketu da ekoizteko bideak erraztu direlako, produktua bera ugaltu delako.

Ez dut liburu gehiegi ekoizten denik uste, kontua da erosle gutxi dagoela. Ekoizten den %80tik gorak badu bere tokia, geroz eta argitaletxe finagoak ditugu, kalitate galbaheak gero eta hobeagoak dira, gutxitan ihes egiten digute galbahe horren alboetatik erdi mailako lanek. Euskarazko produkzioaren maila oso txikia dela bonbardatzen da merkatuan, etengabe, baina hona beste datu bat: EAEn, euskarazko liburuaren erosleak 325.000 inguru dira, Euskal Herri osoan 400.000 erosle direla esan dezakegu.

Kopuru hori alderatzen badugu euskaldungoaren kopuruarekin, konturatzen gara euskarazko liburuaren erosle proportzioa izugarria dela, kontuan har dezagun horiek ere gaztelaniaz edo frantsesez erosten dutela. Irakurle komunitate zale bat dugu beraz. Kontua da jende gutxirengana zuzentzen garela denok, ez euskaraz lan egiten ari garenok bakarrik, baizik eta beste hizkuntzetan ari direnek ere gure irakurle komunitate honengana jotzen dute gure eroslea jende leiala delako erosteko garaian.

I. ZUBELDIA: Gure irakurleek elebidunak diren mementotik ahalmena dute esparru zabalagoko literaturara jozteko, Espainiako edo Frantziako elebakar batek baino gehiago, esaterako. *Bost idazle (Hasier Etxeberriarekin berbetan)* liburuan Sazarbitoriak 5.000 ale saltzen dituela dio. Euskal irakurlearen proportzioa gaztelaniaren proportzioan jarrita 300.000 titulu saltzea litzateke hori, orduan soziologikoki ikusita izugarrizko proportzioa da. Gehiegi produzitzen ote den? Idazle dezente gaude, batzuk kaskarxeagoak beste batzuk hobeak. Esaterako,

ziklismoan gertatzen den bezala, batzuk puntan dabilta eta beste batzuk atzerago, baina denak doaz tropelean eta denak dira beharrezko, bideak bakoitza bere tokian jartzen du, eta gurean ere merkatuak jartzen du bakoitza bere tokian. Kontua hauxe da: merkatu hori hor dago batzuek bere lana hobetzen dutelako, eta aldi berean, idazleak daude merkatu eta literatur corpus bat dagoelako.

O. GUILLAN: Ekoizpena ez da gehiegi, nik liburu bat aukeratze soilarekin gozatzen dut, liburu denda batera joate soilarekin, aukeratzeko eskaintza zabala izatea eskertzen dut, zenbat eta liburu eskaintza gehiago izan, orduan eta gehiago gozatzen dut liburua aukeratzean. Orain gutxi, idazle batek zioenez, orain hamar urte euskarazko liburu guztiak irakurri zitzakeen eta orain ezinezkoa zaio. Gaur egun zaila da, baina neurri batean badago nobedade gehienak inguratzea edo horien berri izatea; interesa duen irakurle bati gutxitan eginen dio ihes euskal nobedade baten berriak, gero liburu denak irakurri ez arren. Beraz, gehiegi hori oso erlatiboa da.

Hedabideetatik nahiko informazioa jasotzen da euskal literaturaz? Irakurleek ba al dute literaturara iristeko bitarteko nahikorik?

O. GUILLAN: Interesa duen pertsona batek bere inguruko hedabideetan nahi duen informazioa lor dezake. Baina, oro har, ez da nahiko informazioa zabaltzen, ez dago euskarazko hedabide askorik ere, eta are gutxiago euskal literaturari leku ematen dioten hedabide askorik. Nahi duenak arakatu behar du eta ez da guztiz erraza. Euskal literaturaren berri sakona izateko komunikabide konkretu batzuetara jo behar duzu.

Idazleak idatzi behar ote du irakurle konkretu batentzat?

I. ZUBELDIA: *Bost idazle (Hasier Etxeberriarekin berbetan)* liburuan agertzen denez, idazle horiek literatura ona

lantzen dute. Baina, irakurle mota asko dago, zineman gertatzen den bezala, filma guztiek ez dute Oscar bat irabaziko, baina badago zine mota asko eta jendeak gustuko ditu Oscarrerako moduko filmak ez direnak ere. Literatur munduan horrelako zerbait gertatzen da. Irakurle esparru ezberdinak daude eta horiei ere erantzun behar zaie. Euskal munduan, goi mailako idazle horien lanak irakurtzeaz gain edo horien lanak irakurri gabe ere, beste liburuak irakurriko dituzten irakurleak badaude, hainbesteko kalitaterik ez dutenak, baina bidea eta formazioa egiteko balio dutenak, irakurlearen gozamenerako eta irakur zaletasuna piztu eta mantentzeko balio dutenak.

Maila apalagoko liburuek irakurzaletasuna zapuzten al dute?

J. GIMENEZ: Formulako literaturari buruz ari bazara, literatura guztietan badago, gurean ere bere eskalan badago. Haur eta gazte literaturan egiten diren gauza askok formulako literaturaren forma batzuk dituzte, helburu zehatz batzuk dauzkate, publiko zehatz eta markatu batekin konektatu behar dute, eta, beraz, idazleak manea-tzen dituen elementuak findu egiten ditu estilo bateko edo besteko literatura egiteko. Niretzat literatura estilo horrek badu lekua, eta akaso, pena da toki zabalago bat ez izatea. Nahiago nuke liburu batek 5.000 ale saldu beharrean horrelako lau aldiz salduko balu, ona litzateke, batez ere sortzailearentzako, halaber, argialetxeetan ere arazo gutxiago egongo litzateke apustu arriskutsuagoak egiteko. Gainera, ez dut uste literatur komunitatean literatura mota honi erdeinuz begiratzen zaionik, ez da nik hautematen dudana. Literatur komunitatean errespetu handia dago sorkuntza ezberdinekiko. Hori bai, barkatzen ez dena da harro eta handiuste izatea, gauza bat egin eta norberak pentsatzea aparteko zerbait egin duenik. Normaltasun eta apaltasunez jokatzuz gero errespetu handia dago euskarazko literatur komunitatean.

O. GUILLAN: Errespetu eta interes handia dago, biak lotuak, eta oso garrantzitsua da apaltasunez eta neurritz jokatzea. Are gehiago inguru txiki batean ari garen alde-tik. Denetarik egoteko aukera izan behar da, aberasgarria da denetarik egotea eta gainera sinestuta nago kalitate handiko liburutzat jotzen direnak eta beste liburu apalagoen artean oreka bat mantenduz gero idazleak ondo sal dezakeela. Publikoaren araberrako literatura ere egin dai-teke, literatura baten unibertsoan denetarik egon behar da, besterik ez bada ere aukera egin ahal izateko. Hala ere, kalitatezko lanekin hizkuntza propioa aurkitzen duen egile batek bere irakurle eta publiko propioa sor-tzen du gehienetan, hori frogatuta dago, hortaz, irakurlea kapritxosoa suertatu badaiteke ere, ezin da ahaztu aukera kontzientea egiten duela une bakoitzean.

I. ZUBELDIA: Editore bezala, eta Jorgek esan duena berretsiz, hor dago Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburua. Editore guztiek nahiko lukete hamar bat horrelako eduki, horrek posible egiten baitu puntako literaturako liburuak argitaratzea eta bide berriak eta esperi-mentalak ere jorratzea, nahiz eta hauek gutxiago salduko diren. Gainera, publikoak horrelako liburuak eskatzen ditu, eta aldi berean, literatur esperimentalekin ezin da literatur bidea bakarrik egin eta osatu. Beraz, oreka bat bilatu eta mantendu behar dugu, gizarte bat gara, euskal gizartea, eta honek denetarik behar du, literatur mota eta maila guztiek lagundu egiten dute literatura gorpuzten. Printzipioz publikoaren nahia asetzeko bazka behar da, eta aldi berean, bazka hori ez dadila oztopo izan liburu gero eta hobeak egiteko eta kopuru handiagoak plaza-ratzeko.

Asmo hori gauzagarria al da?

J. GIMENEZ: Maniobra zaila da benetan, jendea ez da erraz sartzen merkatuan, ez du pauso hori erraz ematen, jendeak ez du literatura arazo gisa bizi nahi –inork ez

daki ondo zergatik—. Jendeari maila bateko literatura arazoz kargaturiko literatura dela iruditzen zaio, hori ikuspegi desegoki bat da, ez dakit non sortua. Ziur asko uste horrek asko zor dio garai bateko esperimenduei, azaren truke porru dezente sartu zaigu urte luzeetan, ez bakarrik euskaraz, erdaraz ere bai; irakurlearengan kontrako sentsazio bat utzi zuen, maila horretako literatura zaila ote den sentsazioan

2002/Abendua

KAZETARITZAREN ETA LITERATURAREN ARTEKO AMODIO ETA DESAMODIOAK

Solaskideak: Arantxa Iturbe, Juan Luis
Zabala, Joxean Agirre.

Kazetaritza eta literatura elkarren ondoan doazen jarduerak dira. Bien arteko mugaz eta berdintasunaz eztabaida sortu da aspaldion. Azkeneko hamar urteotan euskarazko kazetaritzak bide oparoa burutu du. Kazetaritzatik literaturarako bidea aztertu dugu kari honetara.

Hiru zatitan paratuta dugu kazetaritza eta literaturaren gaineko erreportaje hau. Batetik, Leioan joan den urrian gaiari buruz EHUK eta EIEk antolatutako jardunaldietan bilduriko hainbat gogoeta; eta bestetik, gaia ondo ezagutzen duen Karmelo Landaren idazki iradoki-garri bat paratu dugu. Jarraian, berriz, Joxean Agirre, Juan Luis Zabala eta Arantxa Iturbe idazle eta kazetariekin gaiaren inguruan izandako solasaldia. Egiari zor, solasaldiaren parte bat.

*Kazetari eta idazle gisa zuen eskarmentua izanen dugu
abiapuntu. Kazetaritza eta literatura bereizi ote daitezke?
Horren joera arrunta al da bi jarduerak ez bereiztea?*

ARANTXA ITURBE: Uste dut bereizi bereiz litezkeela, eta bakoitzak gure eskarmentuan eta praktikan bereizten

ditugula. Hala ere, oso lotuak daude norberaren kasuari. Nik txikitan idazle izan nahi nuen, oso garbi neukan hori. Baina idazle izateko ikasketa unibertsitariorik ez zegoenez, kazetaritza egin nezakeela esan zidaten, idaztearekin loturarik izan zezakeelako-edo. Kazetaritza ikasi, lizentziatu eta irratian hasi nintzen, baina ez kazetaritza lana egiten baizik magazin bat egiten, eta ez dakit zeregin horrek zenbat daukan literaturatik, kazetaritzatik edota bestetik. Idazle izan nahi ote nuen ere ahaztu zitzaidan ia-ia, bat-batean berriz ere idazten hasi nintzen arte. Beraz, nire kasuan, bi bokazioak nahastuta joan dira, baina, praktikan, nik uste bereizten ditudala, idazten hastean ez naiz kazetariaren mentalitatearekin hasten –baldin eta kazetari mentalitaterik baldin badago–, biak oso nahasiak agertzen zaizkidan arren. Batean benetan gertatutako gauzez ari naiz eta bestean askoz sormen zabalagoarekin. Lan egiteko erak ere ezberdinak dira.

JOXEAN AGIRRE: Nik inpresioa daukat bereziak daudela berez, kontziente naiz horretaz. Hamasei urterekin ez nuela idazle izan behar erabaki nuen, memento hartan eskakizun politiko batzuk zeudelako, gizarte zientzia, soziologia, historia, edota kazetaritza –geroago egin nuenez– ikastea eta bide honetatik joatea erabaki nuen. Gizarteak sekulako buelta emango zuelakoan, aldatetak gertu eta berehalakoak izango zirelakoan prestatu behar genuela pentsatu genuen. Gero, halako desengainu politikoaren ondoren, itzuli nintzen ni literaturara, eta bi jarduerak oso bereziak ditut. Azken bolada honetan Jaka bekarekin nobela bat bukatzen ari naizenez gero, egunero bizpahiru orduz idazten dut goizean goizik, beste guztia bigarren mailakoa dela pentsatuz ateratzen naiz etxetik, kazetaritzak ez duela horrenbeste neke mezezi, ez diodala inolako ahaleginik eskaini behar pentsatuz. Kazetaritza ez dut maite, esaten dut askotan. Ordea, lehen prentsaurrekoan sartzen naiz, emozionatzen naiz

eta egun osoa horretan ahalegintzen naiz. Baina niretzat izugarri ezberdina da goizeko ariketa literarioa eta egun osoko beste jarduera. Labur esanda, literatura erreprezentazioaren arloari dagokio, artearen arloari, eta kazetaritza, aldiz, komunikazioarenari. Literaturan nitasunak leku zabala du, neurri handi batean literatura nitasunari buruzko diskurtsoa dela esan daiteke. Literaturan sorkuntzak ez du mugarik. Kazetaritzan, aldiz, sorkuntzak muga oso estuak ditu eta ideologiaren zama askoz ere nabariagoa da, erakunde edo talde batentzat egiten baita lana. Hor nitasunak apenas duen pisurik, genero jakin batzuetan ez bada.

JUAN LUIS ZABALA: Ni Arantxarekin bat nator, bi jardueren arteko lotura badago, nolabait. Gertatzen dena da kazetaritza beste norbaiti begira egiten dela, kazetari-tzako enpresa batentzat, edo enkarguz. Alegia, kazetariak irakurle jakin bati bideratzen dio lana. Literaturan ere bada irakurle bat buruan, baina irakurle hori idazleak aukeratzen du, askatasun osoz, libreago da. Idazleak, funtsean, bere buruarentzat idazten du, berak irakurri nahiko lukeena saiatzen da idazten. Badakit batzuek ez dutela horretan sinesten, baina idazlearen oinarrizko asmoa, sakonekoa, hori dela uste dut.

A. ITURBE: Kazetaritzaz hitz egiten ari gara eta ematen du gauza bakar bat dela kazetaritza. Hau da, prentsaurreko batera joan, halako batek hau esan du eta hori ahalik eta egokien kontatuko dut. Hori kazetaritza modu bat da, zoritxarrez, egunerokoa. Baina, har dezagun kazetaritza lan bat eskaintzen digutela: ez dakigu non, nola eta zergatik gertatu den zerbait eta badaukazu zortzi hilabete hori ikertzeko eta erreportaje bat egiteko. Hori beste kazetaritza lan mota da.

J. AGIRRE: Hala ere, kazetaritzan errealitatearekiko fidel-tasun bat dago beti, pertsona aipatuekiko konpromiso

bat, literaturak ez daukana. Literatura gezurraren praktika da, kamuflatzea, errealitatea distortsionatzea, kazetaritzarekin konparatuta, praktikan, erabat kontrakoa da, eta askoz ere libreagoa. Literaturan nahi duzuna egin dezakezu eta kazetaritzan badaude arauak eta morrontza bat errealitatearekiko, egiarekiko eta etika batekiko.

A. ITURBE: Kunplitu beharreko gauza batzuk daude, ados: denbora eta beste muga batzuk, zehaztu beharreko batzuk... Baina horiekin guztiekin saiatzen baldin bazara zehatza izaten, oso “egia”ri lotua izaten, oso objektiboa izaten –posible den neurrian behintzat– saiatzen baldin bazara era jakin batean forma ematen, zure lantresnarekin, alegia, hizkuntzarekin jolas egiten, ekinbide horretan literatura etortzen zaizu burura...

J. AGIRRE: Kazetaritza literarioagoa egingo duzu, baina ez literatura.

J. L. ZABALA: Imanol Muruak idatzitako *Palestina zauritua* etortzen zait burura...

A. ITURBE: ... edo Koldo Izagirreren *Merry Christmas, Panama! esan zuen heriotzak*. Ez al dira literatura?

J. AGIRRE: Horiek kazetaritza dira.

A. ITURBE: Huts hutsik?

J. AGIRRE: Ez, baina kazetaritza ona den aldetik baliabide literario batzuk jasotzen ditu, literaturatik gauza dezente erabiltzen ditu. Baina nik ez dut uste, zentzu onean, literatura denik.

J. L. ZABALA: Literaturan ere, zenbait liburu kazetaritzatik hurbil daude, batez ere azken urteotan. Eta bestalde, azken aldi honetan alderantzizko joera ere badago, zutabeetan ipuinak kontatzekoa. Iban Zalduaren *Traizioak* liburuko hainbat narrazio lehenik zutabe moduan argitaratuak izan ziren. Kirmen Uribek ere bide horretatik jotzen du askotan...

J. AGIRRE: Zutabea da literaturatik gertuen dagoen kazetaritza generoa. Mailak daude: zutabea, erreportajea, kronika, elkarrizketa... Azkenik, eguneroko informazio arrunta dago.

Literaturatik kazetaritzara norabidea harturik. Gaur egun, duela hamar bat urte egiten zenarekin alderatua, idazleen liburuak gero eta hurbilago omen daude kazetaritzatik.

J. L. ZABALA: Beharbada. Duela hamar urtera arte, literatura metaliterario bat-edo egiten zen. Orain, aldiz, literaturan joera berri bat zabaldu da, idatz-molde arina edo erraza erabiltzen duten liburuena. Harrera ona izan dute, eta berez oso literaturzale ez den jendea erakarri. Badakit jende askok ez dituela begi onez ikusten joera horretako liburu asko, baina literaturara gerturatzen dute jende ugari, eta mesedegarri dira nire ustez.

A. ITURBE: Ni erabat ados nago.

J. AGIRRE: Nik gustuko ditudan literatur egileak antipodetan daude literatura horretatik, aspertu egiten nau estilo horretako literatura irakurtzeak. Ez dit grazia handirik egiten.

Batzuen iritziz, bi jarduerak sentimenduen arabera bereiz daitezke. Bat al zatozte?

J. L. ZABALA: Literatura lantzen duenak ez du lantzen pentsatuz zer mesede egingo dion literaturaren irakurleri, horrela ateratzen zaio berez. Badago kontratupeko literatura, baina hori euskal literaturan ez dago oso indartua. Idazleak, kasu gehienetan behintzat, ez du idazten irakurle gehiago erakartzeko edo euskal prosari bide berriak zabaltzeko. Prosa aldetik kazetaritzatik gertuago dagoen literatura egiten badu, ez dut uste erabaki kontziente baten ondorioz egiten duenik, kasurik gehienetan behintzat.

A. ITURBE: Teorizatu gabeko jarduera da, ez dut uste inor hasten denik teorizatzen hori horrela edo bestela egin behar duenik.

J. AGIRRE: Nire kasuan, batean ari naizenean, literaturan, badakit zerbait errepresentatzen ari naizela. Kazetaritzan errealitatearen deskribapena egiten ari naiz, oso ezberdina da. Sentimenduen kontu horrek ez du zer ikustekorik niretzat. Kazetaritzan ere sentimendua badago. Nire inguruko kazetariei batzuetan esan diet: “Testu honi zerbait falta zaio. Zer? Sentimendua”. Sentitu gabe ezin da ezer idatzi, ez da sentimendu kontua, errealitatearen deskribapena da edo ez. Adibidez, argazkilaritza eta pintura. Lehena errealitatearen isla da eta bestea distortsioa nolabait. Ez dut uste kazetaritza artea denik.

Eta literatura artea al da?

J. L. ZABALA: Ez dut uste. Literatura obra batzuk irakurrita ez bezala, zenbait zutabe eta erreportaje irakurrita “hemen zerbait aurkitu dut” esaten duzu batzuetan, ez dakit artea edo ez zer den, konexio bat egilearekin, nobela batzuetan aurkitzen ez duzuna...

J. AGIRRE: Manuel Rivasek Galiziako hauteskundeei buruzko erreportaje bat idatzi zuen *El Paisen*, eta literatura purua zen. Bere azken nobelaren zati nagusia, berriz, *La mano del emigranterena* alegia, erreportajea da.

J. L. ZABALA: Kanpoko formatuak ez du barrua islatzen.

Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) kazetaritzatik literaturarako bidea izan du hizpide orain gutxi. Kazetaritzaren eta literaturaren arteko muga zehaztu beharra al dago? Horren kezkarria al da bi jarduerak nahastea?

J. L. ZABALA: Bai literaturak bai kazetaritzak, euskaraz idatziak, esparru asko zabaldu dituzte azken urteetan. Duela hamabost edo hogeit hamar urtera arte, literaturak oso modu konkretu batzuk zituen, oso joera jakin batzuk,

haietatik aparte oso gutxi zegoen. Orain joerak ugaldtu egin dira, eta kazetaritzan ere bai. Euskal prentsak aurre-ra egin du eta lehen jorratzen ez zen genero asko lantzen dira. Ziur asko horretaz ez da nahiko ikertu eta eztabai-datu, eta horregatik egin dira jardunaldi horiek.

A. ITURBE: Kezkagarria hitza aipatu duzu, kezkagarritik ez diot ezer ikusten, kezkagarria peioratiboa iruditzen zait. Idazleek “Kontuz, kontuz! Kazetariak gure literaturara hondatzera etortzen zaizkigu!” hasi behar ote dute esaten?. Ez ote litezke izan elkar aberasteko, bai literaturarak kazetaritza eta kazetaritzak literatura? Bi esparruak hain bereizita baldin badaude, –Joxeanek dioenez– ez dute kezkatu beharrik.

J. AGIRRE: Ez, ez –ados naiz–, literaturaren ekarpena kazetaritzari ez da bakarrik hizkuntza mailan, literatura idazten ohituta dagoen kazetariak abantaila izugarria dauka: erreportajea edota kontakizuna ordenatzeko, daukan informazioa nondik hasi, nondik segi eta nola bukatu asmatzeko. Abantailatxo hori badaukagu...

A. ITURBE: ... eta alderantziz, kazetariak ofizioa hartzen du idazten eta ofizioa beharrezkoa da idazteko, enkar-guzko gauzak badira ere. Nahitaez, artea sortzera zoazenean, zure burbujan sartu eta lana egitean, beti ondo etorriko zaizu ofizioa, horren gainean gauzak egiteko.

J. AGIRRE: Zergatik gertatzen zaigu kazetaritzan batzuei horren azkar idaztea, eta hain makal literaturan? Sarritan, ilunabarreko azken orduko informazioa landu behar dugunean, azken unean, di-da batean egiten dugu. Zergatik? Ordenatzen dakigulako. Bertsolariak ere ordenatzen dute. Guk ere badaukagu gaitasun hori.

J. L. ZABALA: Arrisku bat ere badu horrek. Erraztasun hori errazkeria bihurtzea, eta modu tekniko batez gainditzea gogoeta sakon baten bidez gainditu beharko litza-tekeen zailtasuna.

J. AGIRRE: Seguru baietz, ados horrekin ere

J. L. ZABALA: Estilo aldetik errazegi jokatzeko ohitura edo bizioa bada, kazetari moduan lan egiteak mesede egin dezakeen bezala kalte ere bai. Irabaztea galtzea ere bada beti.

Kazetaritzan apaingarriak edo floriturak alde batera uzteko esaten zaigu...

J. L. ZABALA: Prentsaurreko batera joan eta ezin zara hasi metaforak egiten. Edo egin ditzakezu, noski, baina kalte-rako izango zaizu.

J. AGIRRE: Nire inguruko gazteen artean oso gutxi ikusten dut literaturatik ezer edaten duenik, beste esparru batzuetatik bai ordea. Hori joera zabaldua da gazteen artean.

J. L. ZABALA: Lehen askoz bereziagoak zeuden literatura eta kazetaritza, eta orain kazetaritzak literaturari eremu bat jan dio. Gure artean, bertsolaritzak, esaterako, gauza bera egin du, hizkuntzari dagozkion kontuetan esan nahi dut, eta hori berez ona dela uste dut.

A. ITURBE: Eguneroko informazioan literatura soberan dago, besteak beste, literatura “sortzen” hasten baldin bazara, zure iritzia ari zara botatzen etengabe. Prentsan eta irratian etengabeko adjektibatze eta sentimendu azaltze moduko bat ugaltu da. Niri eguneroko informazioan molestatu egiten dit.

J. AGIRRE: Baina kolore pixka bat behar da, kazetaritza neutroenean ere, badaude neurriak, kolore puntu bat, orijinaltasun bat.

A. ITURBE: Esaldi bat modu batera edo bestera esatean edo idaztean, kazetariak berak hartu behar dio neurria horri.

J. AGIRRE: Baina oso neurtua. Erreportajea, zutabea, kazetariak literaturatik edan behar du, ikus-entzunezko

kulturatik bakarrik edanez ez da posible ezer egitea, nik inpresio hori daukat

KOADROAK

Kazetaritza eta literatura jardunaldiak. Hainbat ondorio.

Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) literatura eta kazetaritza hartu zituen aztergai urriaren 21etik 23ra egin-dako jardunaldietan. Sarrerako ekitaldian parte hartu zuten hiru hizlariak eginiko adierazpenetako batzuk bildu ditugu jarraian:

KARMELO LANDA:

- “Literatura eta kazetaritza diziplinak elkarrengandik oso gertu daude, biek “komunikazioa” helburu duten heinean”.
- “Literaturak, balio estetikoaz gain, esperientzia kalitate eskaintzen dio kazetaritzari. “Ezagutza” modu bat da, kazetaritza zabalagotu egiten duena”.
- “Hizkuntza bera darabilte kazetaritzak eta literaturak gaur egun: Konnotatiboa: bi diziplinen arteko ezberdintasuna markatzen duena “graduazioaren alderdia” da, hau da, hizkuntza konnotatiboaren eta fabulazioaren erabilerak”.
- “Gaur, aldaketa literaturatik dator, baina komunikabideek ez diote literaturari esparru duinik eskaintzen, eta beraz, kazetaritza berriak ere ezin du esparru hori izan”.

TXEMA RAMIREZ:

- “Kazetaritza berriaren helburua ez da jadanik “zer” esatea “nola” baino. Hau da, gaur egungo kazetaritzaren helburua “erakustea” da”.
- “Ikuspegi objektiboa erabiltzetik, begi edo begirada subjektiboa gailentzera pasatu gara, eta nolabait, kazetaria

ez da gertatutakoaren berri emaile hutsa, baizik eta baita, protagonista da bere ikuspegia ematen duen neurrian. Hala ere, korrante berri hau zehazteke eta finkatzeke dago”.

IÑIGO ARANBARRI:

- “Kazetaritza eta literatura, euskal kazetagintzaren historian bat izan dira, hau da, batera garatu izan dira”.
- “Euskal kazetagintzak euskal kosmogonia propioa sortu behar du, irakurleari mundu erreferentzial konkretu bat eman behar zaio.
- “Euskal ideologiaren transmisioaren pisuak euskal kazetaritzarengan izan behar ote du?”.

Jardunaldietan nagusiki ondorioztatuak:

- Diziplina bien artean “ulertuak” gehiago direla “ez ulertuak” baino.
- Kazetaritza berria eta literatur kazetaritzaren definizio eta zehaztasun baterantz heldu behar ote dugun.
- Euskal komunikabideek lekurik egingo ote dioten kazetaritza berriari, eta ondorioz, literaturari

IRITZIA

Karmelo Landa, EHUko irakaslea
“Ezer ez da kontatzen diguten bezala”

Kazetaritzaren objektibotasunaren mitoa lurretik arrastaka dabil. Eta hara nondik, literatura dator kazetaritza berriaren laguntzan, behetik altxatu eta zutitzeko ahaleginean arlo bien indarrak batuaz. Baina zertan lagun dezake fikzioz eta subjektibotasunez beteriko literaturak kazetaritza, hau berez errealitatearen ispilu izateko jaioa denean?

Lehenengo eta behin, bere burua hobe ezagutzen, kazetaritzak berak dituen barne mugak nabarmentzen lagunduko duelako: izan ere, lehenengo fikzioa kazetari-tzaren balizko “objektibotasunarena” baita. Gaur egun, gauza frogatua da kazetarien hizkuntza ez dela denota-tzaile hutsa, konnotatzailea ere badela, eta beraz, esana-hiaz gain, ezinbestez zentzu edo intentzio markatua ere badaramala, baita itxuraz “neutroenak” diren informazio eta albisteak ematerako orduan ere.

Kazetaritzaren eta literaturaren artean dagoen lotura nagusia hizkuntza da: hizkuntza bera darabilte, desber-dintasun funtzional gradual batez, kazetaritzak erreferentzialtasun handiagoz literaturak baino. Baina kazeta-ritzak literaturaren premia sentitzen du informazio erreferentziala ez ezik, hori baino sakonagoa, eraginkorragoa den komunikazio beharra asetzeko.

Har dezagun gure arteko adibide bat hau guztia argitu nahian, denboraren urruntasun erlatiboan kokatu-tua, 1975 urtearen irailaren 27an, goizez, irratiz eman zuten albistea: “Gaur izan dira exekutatuak Angel Otaegi, Juan Paredes Manot, Jose Humberto Baena, Jose Luis Sanchez Bravo eta Ramon Garcia Sanz prozesatuak”. Albiste laburregia gertakari hain dramatikoa adie-razteko, euskal gizartean une hartan zegoen tentsioa eta jakin-mina asetzeko. Anjel Otaegi lekukorik gabe fusi-latu zuten, Burgosko espetxean, eta irрати berri hain lako-nikoaren ondoren, airean gelditu ziren hainbat galdera, batez ere nola gertatu ei zen, nola egin zion aurre Nuar-beko gazteak heriotza ikaragarriari.

Urteak joan, urteak etorri, kazetaritzak urrats berria eman zuen hutsune hura bete nahian, eta Iban Arregi kazetariak Anjel Otaegiren biografia dokumentatua prestatu eta argitaratu zuen: “Angelek bukaera-bukaera arte ez suen sinetsi hil egingo zutela. Egun txarrak ere izan zituen... “Egun batean hiltzen banaute, zer jarrera

hartu behar diat azkeneko unean” galdetu zion Bizenterri... Irailaren 26ko iluntze hartan... ziegatik gela aparte batera eraman zuten... desioren bat ba al zuen galdetu zioten militarrek. Angelek pattar botila bat eta zigarroak eskatu omen zituen. Bizente Gurrutxagak, Burgosko kideak, dio Angel beldurrez hil zela, normala den bezala...”.

Bigarren urrats honek ere ezin zezakeen, ordea, komunikazio hutsune ikaragarri hura bete, eta literatura etorri zen orduan Angelen azken une ezkutu haiek argitzera, errealitate gordinaren erreferentzia gainean fikzio sinesgarria eskainiz: “Oraindik ere bezperan pattarrari esker lorturiko lo laburra... Oso urrunetik bezala entzuten ditu tiroak, eta are urrunagotik,... bere atzean, kanposantuko harresi goroldiotsuak itzultzen duen atabal hots geldoa”.

Oraintsu, laugarren saio bat egin du Joseba Sarrionandiak, kazetaritza eta literatura lotzen dituen testu hibrido batean gaurkotuz heriotzaren unea: “2002ko irailaren 27an, ostirala. Lekukorik gabe hil dute... hormara ailegatu orduko egin diote deiadar: Otaegi! Eta tiroak jaso ditu Anjelek buelta eman duenerako, bihotzaren alturan denak. Eta azken unean ezelako jarrerarik hartzeko astirik gabe hil da”.

Kazetaritzatik literaturara doan graduazio honetan, informazio urriari komunikazio literarioa gehitu zaio, aberasgarria beti, eta inoiz ez zalantza sortzailea, generoen bereizketa (faktizioa lehen bi kasuetan, fiktizioa hurrengo bietan) kontuan hartzen bada, behintzat. Dakiguna kontatu digutena baino zertxobait gehiago baita beti.

2003/Maiatza

EUSKAL LITERATURA IDATZIA 1900 ARTE

Solaskideak: Patxi Salaberri Muñoa,
Patxi Erkiaga eta Jean Haritschelhar
(Patxi Salaberri Muñoa idazlearen *Iraupena*
eta *lekukotasuna* liburuaren kariatara).

Aramaioko Patxi Salaberri Muñoa idazleak 1900 urtera bitarteko euskal literatura aztertu du *Iraupena eta lekukotasuna* (Elkar) liburuan. Guk, Patxi Ezkiaga, Jean Haritschelhar eta Patxi Salaberri bera mahai-inguruan bildu ditugu XX. mendera bitarteko literaturaz jarduteko. Aroz aro, erromantizismoa hizpide izan dugu solasaldia hasteko. “Erromantizismoak euskal literaturari zerbait ekarri izan bazion, euskaldunon nongotasun eta pertenezia zentzua areagotu izana da”, esan digu Patxi Ezkiagak. Patxi Salaberrik esaldiari euskaldunon kemena gehitu dio, jarraitzeko kemena. Jean Haritschelharrek, berriz, Victor Hugoren hitzak gogorazi dizkigu: “Euskara euskaldunen aberria da”.

Euskal literaturaren historiari buruzko lehen lanak eman zirenetik hiru mende iragan dira. Nolako bilakabidea eta trataera izan du harrezkero euskal literaturak?

JEAN HARITSCHELHAR: Arnaud Oihenart izan zen euskal literaturaren berri eman zuena lehenbiziko aldiz, bere garaiaz eta euskal literaturaz idatzi zituen gutun histo-

rikoen bidez. Halaber, Bernart Etxepare, Zalgize edota Etxeberri Ziburukoaren lanak ezagutarazi zituen.

Ordura arte zerbait idatzia zen, baina gutxi dudarik gabe. Etxeparek, lehenago, euskara idatzian bere kezka agertu zuen, bera izan zen zinez euskal literaturaren berpizkundeko gizona. Etxeparek hizkuntzak bereziki aipatu baitzituen eta euskara aldarrikatu.

1539an, Villiers-Cotterets-eko aginduan François I.k latina baztertu eta lengoaia “*vulgares*” edo herri-hizkuntzak delakoak suspertu behar zirela erran zuen. Orduan, frantsesa eta gaztelania herri-hizkuntzak ziren, baita euskara ere, bistan da. Etxeparek ederki ulertu zuen hori 1545ean. Gero, lau urte berantago, 1549an, Frantzia hizkuntza frantsesaren defentsa eta ilustrazioa azaldu zen. Etxeparek “Euskara jalgi hadi kanpora, mundura eta dantzara” erran zuen, erran nahi baita: “Hizkuntza guztien dantzara”.

PATXI EZKIAGA: Jeanekin bat etorrita ere, esango nuke euskararen fenomeno ez zela euskararekin bakarrik gertatu. Prozesuak lurralde guztietan gertatu ziren, baina, gurean, hizkuntzaren plazaratze fenomeno hura beste literaturetara baino beranduago iritsi zen, tokian tokiko egoera soziopolitikoak zeharo diferenteak izan zirelako; Ingalaterran, kasu.

Etxepare kaleratu zen unean hain justu, Euskal Herriko erakundetzearen aurkako lehen eraso gogorra izan zen, Hegoaldean behintzat. Karlos V. 1556ean desagertu eta Felipe II. azaltzen denean, politika zeharo uniformatzailea ezarri zen, gero 1598an Felipe III. dator, 1621era arte. Gero, Austriarrak datoz, 1700 ingurura arte. Austriarrek jarrera zeharo zentralizatua hartu zuten, inguruko herriekiko jarrera zikiratzailea zeharo. Euskara bereziki erasotua sentitu zen memento hartan. Hegoaldean, Garibaik eta bere ingurukoek erantzun moduko

bat eman zuten, Iparraldean Etxeparek eman ziona. Erantzun moldeak diferenteak izan ziren, ordea.

J. HARITSCHELHAR: Ez dezagun ahantz Nafarroa Erre-
suma zela, aske zela. Nafarroa Garaia Espainiako Erre-
suman zegoen, baina oraindik Nafarroako Erresuma bizi
zen. Garai horretan hasi zen euskal literatura.

P. EZKIAGA: Patxi Salaberrik oso argi eta ondo islatu du
hori bere liburuan, 1512an gertatua, Nafarroako anexioa
eta bere eraginak. Politika arloan nahiz erlijioan.

PATXI SALABERRI: Iparralde eta Hegoaldea aipatu ditu-
zuenez, bi kontu: hasieratik nolabaiteko desfase edo sin-
tonia falta izan zen gure Iparraldearen eta Hegoaldearen
artean. Eta hau, gerora, euskal historian barrena zeharo
nabarituko da. 1512a arte dinamika eta eraso ezberdinak
izan ziren, eta harrezkero, nabarmenago.

J. HARITSCHELHAR: Gurea, batez ere, ahozko literatura
bat izan zen, ez zen idatzia izan. *Bereterretxen khantoria*
1450eko urtea baino lehenagokoa da. Kantu eder bat da,
baina 1870a arte ez zen idatzia agertu. Horrek bizitze
luze bat ukan zuela erakusten digu, eta era berean, idatzi
aitzin, euskaldunek mendez mende gogoan atxiki zutela,
kasu honetan zuberotarrek.

*Horiek horrela eta ahozko literaturaren munta kontuan
harturik, euskal literatura idatzia nahikoa al da euskal
gizataldearen nortasuna eta bilakaera islatzeko?*

P. EZKIAGA: Ez dut uste. Gure literaturaren arazo handie-
netako bat –zenbait kasutan behintzat– bizitzaren eta li-
teraturaren arteko loturarik eza izan da. Hau da, gure li-
teratura didaktika moralizatzaile baten ikuspegitik idatzi
da batik bat. Hori zeinek irakurri behar zuen? Herriak?
Ezetz uste dut. Herriak ez zuen leitzen. Hori beste litera-
turetan ere gertatu da, eta gurean, Jean Baptiste Dasko-
nagerre edo Oihenarterengana iritsi arte, aurreko lite-

ratura gehiena, horren inguruan kokatuko nuke. Alegia, bi izen horien kasua eta idazki batzuk kenduta, euskal burgesiak ez zuela sekulan euskaraz idatzi. Hor dago gakoa. Euskaldunok beste eremu batzuetara begira bizi izan ginen. Herriak ez zuen leitzen eta orduko literatura jende aurrean irakurtzeko idazten zen, predikatzeko, erakusteko ere nolabait.

P. SALABERRI: Koldo Mitxelenak aspaldi esan zuenez, guk badugu literatura bat, ez oso handia, baina aberats samarra; desorekatua da, ordea. Alegia, erlijio liburuak ez ditugu soberan baina bestelakoak ditugu falta. Eta egia da. Eta horrelakoak falta direnean, giza talde baten irudia hartzeko, gizarte hori irudikatzeko elementuak falta ditugu. Baina, tira, daukagun literaturak ere erakusten digu nolakoak izan garen, behartuta edo ez, zergatik jokatu dugun modu batean edo ez dugun beste modu batean jokatu.

Askotan, literaturan isiltasunaren kategorizazio moduko bat dago. Zergatik dago isilik idazlea? Zergatik mintzatzen da isiltasunaren bitartez? Gure literaturak asko du horretatik. Erlijioaren esparrutik mintzatu da, apaizen arlotik, didaktika moralizatzaile horren bidez, Patxik esan duen bezala. Hainbat arlo gelditu zaigu hutsen, idatzian islatu ez direnak, eta ahozko literaturak, zoritxarrez, bete ez dituenak. Hala ere, idatzirik geratu ez zaigun ahozkoa ere falta dugun arren, gure giza taldearen nortasuna eta bilakaera ikusteko hainbat dokumentu idatzirik badugu. Bien uztartzetik, ez dut zalantzarik, antzeman genezake osorik nola jokatu dugun eta nolakoak izan garen.

J. HARITSCHELHAR: Hala ere, gure literatura ez da beste literaturen mailan, argi eta garbi erran behar dugu hori, konplexurik gabe: Shakespeare, Molière, Dante, Cervantes... Guk horrelakorik ez dugu izan, onartu behar dugu hori. Baina denbora berean diot: euskal literatura bat

badela, hots, sortzailea. Eta nik ez ditut itzulpenak euskal literaturan sartzen, baina bai euskal letretan. Adibidez, Espainian *Celestina*, *Don Juan Tenorio* eta *Kixotea* sortu zituzten eta horiek unibertsalak dira egun. Espainian sortuak eta itzulpenen bitartez beste hizkuntzetara zabalduak. Ez dira frantses literaturatzat joak, ez bestelakotzat ere. Baina Molièrek *Don Juan* itzultzen duelarik sortze lana egiten du. Don Juan mitoa hartu, bereganatu eta berea ematen dio, frantses literaturan sartzen du nolabait. Eta guk ez dugu horrelakorik ukan.

P. SALABERRI: Gure literaturaren izaera dela eta ez dela ari gara, baina tira, den bezalako da. Esate baterako, beharbada nire gurasoak ez dira ederrenak, baina nireak dira, onartzeko, maitatzeko, eta finean, diren bezala hartzeko prest naiz. Gure literatura beste batekin konparatzeko tentazioa izaten dugu sarri. Baina, den bezala delarik ere, ikus dezagun nolako den eta uler dezagun zergatik den, den bezalako. Azken batean, historiak eman behar digu garena edo izan garenaren berri. Beraz, bilatu eta erabili ditzagun tresnak ahalik eta hobekien ulertzeko. Eta daukaguna daukagunez gero balora dezagun. Mekanismoak ulertu behar ditugu.

J. HARITSCHELHAR: Mekanismoak aipatzen dituzu. Beste literaturak gorkeen inguruan sortu ziren: Espainiakoa XVI. mendean, Frantziakoa XVIIean. Non zen euskaldunon Gortea? XVI. mendean, garai batez, Pauen izan zen. Zerbait sortu zen orduan. Baina, funtsean, ez dugu estatutik ukan, ez mezenasgorik ukan.

P. EZKIAGA: Hala izanik ere, aspektu honetan Milan Kundera idazle txekiarrarekin bat nator. Berak dioenez, Europako literaturaren historia ezin da inola ere aztertu konpartimentu estanko bat balitz bezala. Literatura nolabait, herrialdeek jokaturako abentura bat da, literaturaren historia herrialde bakoitzak boterearekin zuen harrema-

naren arabera jokatutako rola da. Horregatik, euskaldunok gure modura ere, literaturaren historian sartuta gaudede. Besteen mailako literatura idatzi gabe, beste herrialdeetatik etorri izan zaizkigun eraginaren arabera gure rola bete dugu giza bilakabidearen historian, eta gure modura, literaturan ere bai.

Jeanek Espainiako literaturaren adibide horiek eskaini dizkigu, baina ez dut hiruak nazioartekoak direnik uste, Cervantes bai. Cervantesek “zer da abentura?” galdetzean, erantzun bat ematen digu. Cervantesek Europako izaerari hain estuki dagokion kontzeptu hau hizpide utzi zigun. Espainiako botereak Ingalaterrara jo ondoren, Samuel Richardsonek ematen digu erantzuna Ingalaterran. Gure barruko mundu hori azaleratzen saiatzen da. Gero, botereak Frantziara egiten du, eta Frantziak mende erdi bat hartzen du bere gain, jaun eta jabe izaki. Honoré de Balzac etorri zen eta historian erro-turiko pertsona aztertu zuen. Handik gutxira, Flaubertek *Madame Bovary*rekin egunerokotasunaren azterketa egiten du, lur inkognitoa izango balitz bezala. Tolstoi, Marcel Proust, James Joyce edota Thomas Mann etorri ziren gero.

Europako historia eta bere literatura abentura luze bat da. Euskaldunok, europarrak izaki, ez gara uharte bat, eta gure modura historia horretan parte hartu dugu. Eta ez Axularrek eta bere kideek islatu zuten nekazari-tzaren aldetik bakarrik. Gure literaturak ez du gure burgesiaren aipamenik egiten, baina burgesia horrek beste lurraldeetako botere ekonomikoekin harremanak zituen, beharbada gure literaturan islatu ez direnak, baina, nolabait, Europako literaturaren konfiguratzeko lagundu dute, bere modura, osotasun modura hartuta.

P. SALABERRI: Izan liteke, ez dut zalantzarik. Kontua da obra praktikoetan nola agertzen den. Nola baloratu daitezke horiek?

P. EZKIAGA: Horixe bera! Esaterako, Europako beste literaturetan azaltzen diren gaiak –zure liburuan agertu bezala–, noiz hasten dira azaltzen gurean? Bada, agian, gurean, Txillardegiren *Elsa Scheelen* nobelan. XX. mendera etorri gara eta Europako literaturaren hezur mamiak izan diren gaiak ez dira gure literaturan inondik ere azaltzen. Eta ez dira azaltzen, mundua ez delako euskal literaturan anbiguotasun gisa sekula ikusi izan. Euskal literaturan eta beste arlotan ere gertatzen da hori. Mundua anbiguotasun gisa ulertu ordez, euskal literaturak nahiago izan du segurtasun gisa ikusi. Ez dugu inoiz Jainko anbiguo bat izan, Jainko epaile bat baizik. Txuria edota beltza. Zuk liburuan gorriak eta txuriak aipatzen dituzu, mundua zatika dezakeen molde bat, hau onartzeko eta hori debekatzeko.

J. HARITSCHELHAR: George Bushek egiten duen bezala.

P. EZKIAGA: Bai, jauna. Eta hori konstante iraunkorra da gure literaturan, eta beste zenbait literaturatan ere bai.

P. SALABERRI: Norberari ziurtasuna ematen diona, norberari bizitzarako bai eguneroko errealitatean bizitzeko.

P. EZKIAGA: Patxik, bere liburuan, garbi utzi du euskal literaturari balizko burgesia falta izan zaiola, ez dugu izan, eta literatur mota hori falta dugu.

J. HARITSCHELHAR: Eta arestian erran bezala, Gortea ere bai.

P. EZKIAGA: Noski.

P. SALABERRI: Baina, izan dugunean ikaragarrizko eragina izan du. Hori Iparraldean oso ongi agertu zen XVI. mendean

KOADROA

Erreforma ala Kontrarreforma?

Erromatarren garaitik etorri zuten Goi Erdi Aroa, Argien aroa, eta Karlisten garaia landu ditu Patxi Salaberrik bere liburuan. Bere hitzei jarraikiz, “Erdal kulturen zirrikituetatik euskal literaturaren ernamuinera” bide eginez, Erreforma Katolikoaren edo Kontrarreformaren garaia aipagai izan dute gure solaskideek.

J. HARITSCHELHAR: Nik nahiago dut Erreforma katolikoa izenda dezagun. Lehenik Erreforma protestantea izan baitzen, bestea ondoren etorri zen, ez zen erreformaren kontrakoa, beraz.

Iparraldean sortu zen, protestanteek eragin handia baitzuten Nafarroako Gortean, Leizarraga tartekoa izaki. Sorginen aurkako “arrazakeriak” etorri ziren gero, 1610 aldean. Gertakari hauen ondoren, 1611ean, Ziburun fraide etxea eraiki zen, Esteve Materre eta bere ingurukoak tartean izaki. Hots, protestanteen eragina eta sorginen ehiza garaia gaintzeko nolabait, Euskal Herrian jendea biltzeko zerbait egitea pentsatu zuen Eliza katolikoak. Jendea katolikoengana ekartzeko hizkuntza eta testu berriak landu zituen Elizak, eta hartara, nolabaiteko literatura sortu zen, lapurteraz.

Alabaina, bat nator Salaberrirekin, bere liburuan Sarako Eskola delakoa zer den ez dakiela esaten duela. Alta, Ziburun, Donibane Lohizunen eta Saran lapurtera klasiko bat erabili zuten. Ez zen eskola bat izan, mugimendu bat baizik. Orduan hasi zen lapurtera klasikoa lantzen, hala nola baxenafarrera ere.

P. SALABERRI: Tentaziozko hitzak bota ditu Jeanek, ezta baidarako politikak: Erreforma ala Kontrarreforma? Katoliko hitzak bere esanahia du atzean, baita bere zama ideologikoa ere. Ni kontrarreforma hitzaren aldekoa naiz.

Kontrarreforma hitzak mugimenduaren ezaugarri guztiak eman zituen, kontra ateratako erreforma izan zen, norbaiten kontra atera zelako: protestanteen kontrako mugimendu bat sortu zen Eliza katolikoaren barruan. Eliza zinez katoliko eta apostoliko bilakatu zen une horretatik aurrera, eta maila guztietan gogortu zuen bere jokabidea.

J. HARITSCHELHAR: Protestanteen aldetiko erreforma izan zen. Katolikoek Trentoko Kontzilioan erreforma bat egin behar zutela pentsatu zuten. XVI. eta XVII. mendeko sailduen artean, San Frantzisko Xabier eta Loiolako Iñigo euskal sailduak ditugarrik. Hauek beste bide batetik joan behar zutela ohartu ziren, horregatik ez da kontra, baizik berek egindako gogoetekin beste bide bat hartzea, horregatik Erreforma Katolikoa.

P. SALABERRI: Ez dut uste horretan ados jarriko garenik.

P. EZKIAGA: Auzi hau ez dago ebazterik, ez. Patxi, zure liburu eder honetan, gai honi dagokion atalean besteetan baino bipolarizazio handiago ikusten dut. Ados nago Jeanekin, bat nator Erreforma Katolikoa esatean. Izan ere, Erreforma Protestantea baino lehenago ere, erlijio protestanteari ere erlijio katolikoaren didaktika eta moralizatze zentzu hori antzematen zitzaion, agintea inposatzeko zentzua, Erreforma Protestanteak gauza berbera egin zuen. Jean Calvin bezain odoltzale ez zen beste inor izango, Ginebran bere eskemak onartu ez zituena, txikitu egingo zuen.

P. SALABERRI: Eliza eta erlijio katolikoa ere odoltzale samarra izan zen.

EZKIAGA ETA HARITSCHELHAR: Baita ere.

P. EZKIAGA: Lehen esan bezala, nork bere buruaren aztertze bat egin beharra dauka, hobekuntza eta aurrera egiteko ahalegin bat, nahiz eta prozesu horiek aurrera eramatean hanka sartu.

P. SALABERRI: Guk ez dugu auzia ebatziko, jakina. Es-kuarki, historiografian “Erreforma Katolikoa” terminoa-
ren aldekoak dira, sinesmen eta identifikazio katoliko-
ren aldekoak. Oker samarrak-edo garenok beste termi-
noaren aldekoak gara, jakina. Baina, tira, izendapena
gorabehera, gure lana gertatutako hura identifikatzea da.

2003/Maiatza

**ANTTON OLARIAGA ETA JOXEAN MUÑOZ.
MARRAZKIA ETA TESTUA
OHE BEREKO BIKOTEKIDEAK**

Solaskideak: Antton Olariaga, Joxean Muñoz

Ipurbeltz aldizkariak 25 urte bete zituen iaz. Ilustrazioa eta komikiaren gaia jorratu dugu urtemuga honen karietara. Antton Olariaga marrazkigilea eta Joxean Muñoz idazlea parez pare eseri ditugu eta hainbat distira eta printza atera dizkiogu irudigintzaren gaiari.

Ilustrazioari buruz ari zela, Iñaki Martiarena Mattin marrazkilariak, beste estatuetan hemen baino tradizio handiagoa dagoela esan zuen orain gutxi orrialde hauetan. Gurean, Erein argitaletxearen Ipurbeltzek 25 urte bete dituela eta ia-ia oihartzunik ez duela izan azpimarratu zuen halaber. Ipurbeltzek euskal komikigintzan izan duen eta duen garrantzia ikusirik, hasteko eta behin, honi buruzko iritzia eskatuko dizuet.

JOXEAN MUÑOZ: 25 urte bete dituen aldizkari honi buruz gauza asko dago esateko, goraiatzeko batez ere. 25 urtez astero-astero kioskoetan egotea ez da inondik ere arinkeriaz hartu daitekeen datua. Giroa dagoen moduan egonda are meritu handiagoa ematen dio gainera. Nik *Ipurbeltzekin* harremana irakurle bezala izan dut gehien-

bat. Komiki zaleak garenontzako, euskal komikiak kezka sorrarazten digun jendearentzako, *Ipurbeltz* oinarritzko erreferentzia izan da. Belaunaldi bat baino gehiago pasa da aldizkaritik, lan asko egin izan da bertan, publiko bat finkatu da eta euskal komikia ez da ulertzerik *Ipurbeltz* gabe. Oso eskertzekoa eta inportantea da bere lana, labo-
rategi moduko bat izan da *Ipurbeltz*.

ANTTON OLARIAGA: Ezinbestekoa da 25 urteko ibilbide hori kontuan hartzea, jakina. Bertan hasi ginenon artean, eta bere sorreran parte hartu zutenen artean, komikia euskaraz egiteko gogoaz bazegoen. Bat-batean plataforma bat eskaini zitzaigun, eta, batez ere, poza nagusitu zen gure lanak publikatu ahal izateko aukera bat sortu zelako. Bestaldetik, eta ez horregatik inportantzia gutxiagokoa, idazleekin, gidoigileekin eta beste marrazkigileekin elkarlanean aritzeko aukera zabaldu zen. Alegia, gure lana eta bizipenak konpartitzen hasi ginen jende berriarekin, oso albiste pozgarria izan zen *Ipurbeltz* sortzea.

Nola ikusten duzue egun, oro har, komikien, ilustrazioen edota marrazkien mundua, bere espresio guztietan?

A. OLARIAGA: Hasteko, bi mundu diferentekak direla esango nuke: komikiaren eta ilustrazioaren parametroak ezberdinak dira. Komikiaren artean badira oso finkatuta eta zehaztuta dauden parametroak. Batetik, oro har, komiki mutua dago, hitzez osatutakoa, komiki liburua, egunerokoetan tira forman agertzen dena eta egunkarietako txiste grafiko bera, nahiz eta zentzu hertsian komikia ez izan; eta bestetik, ilustrazioaren mundua dago. Bi mundu, beraz.

Nolako panorama ikusten dudan? Ez zait burutik kentzen orain dela 25 urte inguru, Iparraldeko hipermerkatu batean ikusitakoa. Apalategiak komikiz beteak zeuden, eta aldamenean, etxekotresnen sailean telebista piloa zegoen, denak piztuta. Ume koadrila bat zegoen

ondoan, zoruan eserita, baina ez telebistari begira komikiak irakurtzen baizik. Ez zait irudi hori oraindik gogotik joan, baina, jakina, Iparraldea zen. Eta horrek horrela izaten segitzen du gaur egun. Esan dezagun, oro har, badugula komiki kultura bat, txikitatik bizi izan duguna.

JOXEAN MUÑOZ: Bat nator Anttonekin. Espresio horiek harreman handia dute eta ezberdintasun oso handiak ere bai. Komikiaz, ilustrazioaz ala marrazki bizidunen egoeraz hitz egitea oso gauza eta egoera ezberdinez hitz egitea da. Komikiak Frantziako Estatuan beheraldi bat izan zuen. Orain berriz, itxuraz, suspertzen ari ote den diote, gora ote datorren, baina, oro har, badirudi jaitsi egin dela. Orain hogeita hamar urte, egunero baliatzen genuen komikia, ume koskor guztiek erabiltzen genuen komikia. Orain, rol jokoek eta ordenagailu bidezko jokoek hartu dute bere tokia, joko hauek komikia irentsi dute. Komikia beste arlo batean gelditu da.

Alabaina, liburuaren ilustrazioetan, ipuinetan, kasu, aldaketa bat gertatzen ari da. Marrazkiaren maila asko igo da, baita maila polit batera igo ere. Marrazki bizidueni dagokionean, aldiz, beste mundu bat da –euskal produkzioaz ari naiz–, baina, oro har, badute loturarik. *Ipurbeltz* hizpide hartuz berriz ere, egunkarietan komikiak eta txisteak egiten aritu denak, *Ipurbeltz*ekin harremana izan du. Bai zerbait publikatu ahal izateko edo ogibidea ziurtatu nahi zuelako, *Ipurbeltz* topaleku moduko bat izan da.

A. OLARIAGA: Nahiko modu bakartian hala ere, beste leku batzuetako panoramarekin alderatuz, hemengo ez zen oso baikorra, eta horrek bere meritua areagotu egin du.

Hegoaldeari gagozkiola, sendotu al da komikirako eta ilustraziorako kultura?

A. OLARIAGA: Kiosko eta liburutegietan begiratzen badiugu, horiek markatzen baitute sendotasun hori, oraindik

badago txoko bat, duintasunez bizitzea lortu dute produktu batzuek. Hala ere, 80ko hamarkadan, erdarazko agerkarietan bereziki, boom moduko bat izan zen, gero gainbehera etorri zen. Gaur egun gutxiago dela iruditzen zait. Hala ere, badaude erreferente batzuk, euskaraz ere bai, baina urriak dira.

Halaber, ekoizpen batzuk frankotiratzaile modura azaltzen dira merkatuan, aldiari behinekoak dira. Ez bazaie promozio berezi bat egiten, kiosko eta liburutegietako eskaintza zabalaren artean galtzen dira, jendea ez da enteratu ere egiten. Zaleek txokoetan miatu behar dute, jendea komikia eskuetan duela ikustea-edo falta zaigu. Horrelako susmoa daukat nik. Haurrengan sumatzen dut nik falta hori, hau da, haurrek ez dute irudi hori ikusten. Agian, ez dugu jakin umeei gure gozamen hori transmititzen. Zerbaitek krak egin du.

Marrazki bizidunen munduan, berriz, bestelakoa al da panorama?

J. MUÑOZ: Azken 25 urteak hartuta, dudarik ez dago, aurreratu egin da. *Kalabaza tripontzia* luzemetraia estreinatu zenetik gauzak hobetu dira, orduko jende asko dabil egun lanean. Belaunaldi berriak etorri dira eta esparrua askoz zabalagoa da orduan baino. Juanba Berasategik *Kalabaza tripontzia* egin ondoren egiten dituen marrazkiak oso diferenteak dira eta aukera berriak daude. Marrazkiak ordenagailuz egiten dituzten marrazkigileak dira oraingoak.

Kontua da industria kaskar bat dagoela eta horrek arazoak sorrazten ditu. Osasun txarreko industria bat da, pobrea, beti ahulerian. Baina, egon badago, behar bada euskal komikiarena baino presentzia handiagoarekin.

Euskarazko zinemari buruz hitz egin eta sakondu beharra dago. Rafa Castellanok –ez berak bakarrik– komikia pobreen zinema dela esaten zuen aspaldi. Oso antzekoak izanik ere, komiki bat egin dezakezu eta film

bat ez. Orduan, komikia biziago balego, bada, beste ongarri bat izango genuke, beste esparru bat izan genezakeen zinema egiteko. Komikiaren inguruan jende oso interesgarria egon da, eta beharbada, orain, umeen arlo horretatik aterata, pedagogiatik eta mundu horretatik aterata, jendeak bere istorioak komikietan kontatzea eta zinema eta komikia lotuagoak egotea falta da. Industriaren aldetik ez daude lotuak, saio txiki batzuk egin dira, baina ez dute emaitza finkorik ekarri.

A. OLARIAGA: Zuk esandakoarekin lotuz, esango nuke badagoela sustrai bat, sustrai komun bat, marrazki bizi-dunetan, ilustrazioetan eta komikietan...

Gidoigintzan berean ere badago, ongarri modukoa da, ez dakit zein formularen bidez gauzatzen dena, diziplinarteko moduko zerbait. Badira ohitura batzuk, esaterako, istorioa kontalari batek egiten duen narrazio baten bidez finkatzen da, elkarrizketaren bidez egina dena, oso esparru fantastikoa da, antzerkiarekin ere lotura duena, eta zer esanik ez, zinemagintza eta marrazki bizidunekin, batez ere. Etenik gabeko prozesu batean, bitarteko teknikoak asko aldatu baitira, ordenagailuak tarteko. Baina ez hori bakarrik, hizkuntza ere aldatu da, esateko moldea ere aldatu da, umorea aldatzen joan da pixkanaka-pixkanaka. Baina, zoritxarrez, horrek guztiak bere azpian lan egiteko molde komuna behar du. Gidoigintzan adibidez, eta askotan ez dago zer eginik. Ideiak badaude, baina ez dira sekula praktikara heltzen.

J. MUÑOZ: Ez nuke gaia desbideratu nahi, baina ikus-entzunezkoaren industria bat egiteko aukera ikusten dut, industria pobre bat nahi bada. Anttonek dioen bezala, nik lotura eta harremanak ikusten ditut diziplina ezberdinen artean, baina, beharbada, ez ditugu bitartekoak baliatzen edo behar beste lantzen eta ustiatzen. Beharbada baita ere, horiek guztiak martxan jartzeak ekarriko

lukeen arrisku ekonomikoarengatik, ez baita inondik ere beste arloetan bezala arriskatu orain arte. Saioak egin izan dira, baina arrakastarik lortu ez dutenez, bertan behera gelditu dira. Agian, aurrerantzean gauzak hobeto egin litezke. Adibidez, ipuinak eta nobelak komikietan ere argitaratu izan dira. Garai batean, euskal nobela batzuk zinemara pasa izan ziren, hala nola *Ehun metro* eta *Hamaseigarrenean aidanez*. Gainera, bigarren hau komikian ere argitaratu zen eta besteren bat ere adaptatu zen komiki modura. Beharbada, elkarlan hori sortuko balitz eta jendeari lan egiteko aukera emango balitzaio, orain marrazkilari batekin, zinegile edota gidoilari batekin gero, agian beste sustrai batzuk sortuko lirateke. Ez bakarrik marrazkiari eta ilustraziogintzari begira, irudietan egindako narrazioari begira baizik, hau da, ikusmeneko narratibari begira. Hor loturak oso handiak dira. Literaturan, kasu, lotura gero eta garbiagoa dago egun. Alde batetik, komikiaren eragina dago, gero eta komiki irakurle sutsuagoak daude idazleen artean. Adibidez, Iban Zaldia idazleak edota bere garaiko belaunaldiak komikia berezkoa dauka. Badaude indar batzuk, oso bizi-biziak, beharbada aski suspertu ez ditugunak, euskal kulturaren produkzioa ekoiztu dezaketen enpresak ahulak direlako arriskua hartzeko.

A. OLARIAGA: Ordea, proiektuak izanda ere, aurrekontuak heltzen direlarik, diru zenbakiak agertzen direnean, dena bertan behera gelditzen dela, hori da kontua.

J. MUÑOZ: Ekoizleak askotan esaten du: "Liburua edo produktua salduko al da?". Bestalde, egilea ere proiektua lantzen hasi aurretik hasten da pentsatzen ea bere lan hori kobratuko duen edo ez. Ez da idazleen kasuarekin konparagarria. Idazleek bere obra literarioaren kontzeptuarekin jarduten dute, publikatu nahiarekin. Orduan, nork bere liburua idazten du eta gero funtzionatuko du

edo ez. Gidoi bat edo komiki bat egiteko, berriz, ordu asko sartu behar da, ofizio oso gogorra da, zure bizitzan bi aldiz eginen duzu gustu kontuengatik baina ezin duzu askotan egin, zeregin horretan ito egiten zarelako.

Ilustratzaileen lana errekonozitua al dago?

J. MUÑOZ: Ez. Gidoigileon elkarte baten beharra dugula aipatzen dugu sarri. Idazleak garen aldetik elkarte bat badago, zenbait borroka txikietan elkarren babes bilatzeko modukoa. Marrazkilariak ahaztuak daudela diogu. Beste modu batez esanda, film batean zuzendariak, musikagileak, gidoilariak bere eskubideak baditu, beraiengatik kobratu egiten dituzte. Marrazki bizidunetan aktorerik berez ez dago, baina aktorearen dirua edo aktoreari dagokion errekonozimendua ahotsa jartzen duenari ematen zaio. Eta nik ez diot batere meriturik kenduko ahotsa jartzen duenari, ez diot ukatuko bere antzezle izaera, baina kuriooa da, pertsonaia horri aurpegia, izaera eta testua jartzen dizkionari ez zaio errekonozimendu hori ematen.

Marrazkilariak bere arkatzaren bitartez aktorearen lana ere burutzen du, marrazkilariak egile bezala ez daude errekonozituak, eta ez Euskal Herrian soilik, oro har ere, marrazkilariak dutena baino babes gehiago merezi dute, lotura handiago bat eta sindikatu moduko bat beharko lukete, azpijoko asko egiten baitzaie marrazkigileei. Oro har, tratu gogor samarra jasaten dute.

A. OLARIAGA: Dena dela ere, hemendik kanpo badira elkarteak, hemen ez daude eta agian gure errua da.

J. MUÑOZ: Kanpoan ere hala-moduzkoa...

A. OLARIAGA: ...bai, beno kanpoan zailtasunekin ere ari dira.

J. MUÑOZ: Idazteak badu horrelako aura bat, itzal bat. Nahiz eta gidoilariak izan, idazleen artean morroiak

bezala ikusiak bagara ere, idazte hutsak seriotasunaren itxura ematen dizu. Marrazkilariak horietatik kanpo gelditzen dira, umeen kontuetan ariko balira bezala. Eta Antton bezalako batek marrazkiekin segitzen baldin badu ez da umekerietan ari delako, ofizio honetan ez dago umekerietan ibiltzerik.

Umekerietan ari al zara Antton?

A. OLARIAGA: Beharbada, nondik begiratzen den. Ez. Orain seriocki, zorionez, ez naiz umekerietan ari

KOADROAK

NOLA SORTU KOMIKI TIRA BAT

Testua eta marrazkiaren arteko borroka iraunkorra omen dago, bi espresioen arteko uztartze moduko bat behar du komikiak. Marrazkigilearen buruak nola funtzionatzen duen galdetu diogu Antton Olariagari. Eta honelaxe azaldu digu:

Lehenbizi, hauxe esaten diot nire buruari: “gutxienez, komiki tira honekin 5 segundoz dibertitu behar duzu”, ez diot gehiago eskatzen. Orduan, batzuetan, bertsolarien modura, puntua jarrita duzu eta horri erantzuten diozu. Bestetan, testua erdi borobildua duzu buruan, eta gero, marrazkia horrekin lotzen duzu. Dena dela, ez duzu notario lana egin behar, aitzitik, osagarri bezala azaldu behar duzu zure tiran, zubi lana egin behar duzu.

Batzuetan, nolabait esanda, tira dialektiko samarra ateratzen zaizu. Beste batzuetan, marrazkitik hasten naiz eta testua gero dator, eta beti ere, kontuan hartuz egunkarietakoa oso produktu berezia dela, alegia, irakurlearen begi-bistan dagoela, suerte handiz eta irakurleak egun ona badu, 10 segundoz egongo dela bere bistapean.

Bestalde, teknologia berriak dauden arren, nik asko maite dut metodo zaharra edo antigoalekoa: eskua, arkatza, pintzela, errotuladorea, papera... Ordenagailuan diseinu zoragarriak egiten dira, baina ez diot uko egin nahi antigoaleko modu horri. Ez naiz zentzu txarrean ari. Alegia, eskuan dudan anabasa guzti horretatik, pixkanaka-pixkanaka, lan molde bat sortzen da. Askotan bi esaldik lan asko ematen dizute eta atsedenean uzten duzu. Artean, liburu bat irekitzen duzu edo hiztegia, hurrengoan, autobuseko elkarrizketa batek pista ematen dizu, edo egunkariak edo irratiak edo musika batek

IRUDIA ETA TESTUA

Irakurtzeko urrats gisara eta testuaren bikote modura ulertu behar da ilustrazioa

Irudiez eta testuez osatutako produktu batez ari gara. Nola uztartzen dira bi adierazpideak? Zein da gainean, zein azpian? Batek bestearen menpe egon behar al du?

A. OLARIAGA: Zeregin hau, gaur egun, gehienbat haur eta gazte literaturara mugatua dago. Alegia, helduen literaturan ezer gutxi ilustratzen da, enkarguz eta ilustrazio moduan ez bada behintzat. Ilustrazioaren garaitik ilustratzeko tradizio handi bat dago, baina, batez ere, helduentzako literatura ilustratu da. Gaurko egunera etorri, berriz, salbuespenak salbuespen, liburu ederrak ilustratzen dira soilik, idazle ospetsuen lanak. Liburu batzuk egiteko aukera dute ilustratzaileek, hauek ere ospetsuak, ale bakar batzuk, sinatuak, milaka dolarren irabazpenak ekartzen dituztenak. Ilustrazioak lan horri sakontasun eta erakargarritasun apur bat emango diolakoan.

Gurera etorri eta errealitatera esnatuz, esan bezala, irudia edo marrazkia haur eta gazte literaturaren esparrura

mugatzen da. Gure kasuan, testuak Internet bidez heldu zaizkigu, eta horrek gure lan moldea erraztu du nolabait. Horiek horrela izanda ere, niri, lehenbizi, idazlea heltzen zait, testuaren atzean idazlea ikusten baitut, honek kontatzen didana. Lehendabiziko harremana idazlearekin izaten dut eta harreman horrek oso gauza politak sortzen ditu. Niretzat pribilegio bat da, gozamen bat, lana argitaratu gabe iristen baita nire eskura, primizia modura...

M. MUÑOZ: ... nik ez dut nire liburuen ilustrazioak Anttonekin egiteko suerterik izan, baina tokatuko zait inoiz...

A. OLARIAGA: Etxean utzi dut malkoak sukatzeko eskuko zapia... txantxak alde batera utziz. Nik ilustrazioaren lana harreman bat bezala ulertu dut betidanik. Objektua, irudia, harreman horren barruan suertatzen da, idazle eta marrazkilariaren arteko konplizitate baten sormen lan bezala. Zirriborro batzuk eginez hasten zara, jarraian, eskuarki, elkarrizketak zure alde jartzen dira. Elkarrizketek zure eskua gidatzen dute marrazkia egiterakoan, oharkabean, bidenabar esandako gauzak harrapatzen dituzu eta idazleak kontatu duen hori hobeto ulertzen duzu. Ondoren, maisua testua izaten da.

J. MUÑOZ: Bi gauza. Batetik, orokorra baina Euskal Herrian nabarmena dena. Adibidez, Anttonek ez du saririk jaso ilustratzaile bezala, ilustraziorako saririk ez delako. Ofizio horri ez zaio begiratzen, ez zaio erakusleihen bat jartzen. Anttonek sariak kazetari eta idazle bezala jaso ditu, idazle askok sariak bere bildumen bidez jaso dituztelako. Idazleek hizkuntza asmatzen duen ilustratzailetzat jotzen dute Antton, idazten dugunontzako baliabide oso beharrezkoak sortu ditu, testua eta irudiaren arteko lotura naturala lortu du. Askotan galdetzen da: "Zein da aurrena, zein da bestea baino gehiago?". Aipatzen ari garen gaia, oro har, oheko kontu bat da. Biek ondo funtzionatzen dute, baldin biek elkarrekin ondo

funtzionatzen badute, bestela zisko bat da. Hau gainetik edo hori azpian behar den formularik ez dago. Ohean bezala. Ondo biak? Baina biak. Anttonen lanean hori oso nabarmen gelditu da.

Bestalde, ilustrazioa irakurtzeko urrats bat da, irakurtzen ondo ez dakienarentzako laguntza bat, nagia ematen dionarentzako laguntza bat, jakinda jendea askoz abilagoa dela irudiak ikusten irakurtzen baino. Irakurtzeko gaitasuna jaisten ari da ordea, eta ez dakit zein arduragabekeriengatik bata bestearen mailara iristeko bitartekoa dela pentsatzen dugu. Une honetan, irudia garatuago eta zabalduago dago testu idatziak baino. Eskema zahar-zahar batekin ari gara ilustrazioaren gaia planteatzen, hau da, umeentzako eta gazteentzako bakarrik balira bezala. Handitzen hasten direnean, ume koskorrei marrazkia kendu egiten zaie, ez bide dute makulurik behar. Nahiko eskema penagarria da horrela pentsatzea.

A. OLARIAGA: Nik esango nuke, ohean bai baina lorik ez...

J. MUÑOZ: ... beno (irriak).

A. OLARIAGA: Alegia, sarien kontua zehaztu aldera: orain dela urte dezente ilustrazio alorreko Euskadi saria eman zidaten. Orduan ematen zen, baina gaur egun ez dut uste ematen ari direnik ere.

Bestalde, maitasunaren kontua argitu aldera: marrazkiliaren eta idazlearen artean oso gauza politikak egiten direla azpimarratu nahi dut, konplizitate lanak dira, baina zailtasunak ere badira, bikote arrunten artean bezalatsuedo

2003/Urria

XXI. MENDERAKO POESIAZ HAUSNARTZEN

Solaskideak: Rikardo Arregi Diaz de Heredia,
Kirmen Uribe eta Juanjo Olasagarre

Iragan udan, UEUk antolatutik “Bitartean heldu hitzari: XXI. menderako poesiaren bila” izenburuko ikastaroa buru zen Miarritzen. Literatura ikastaro hauetan joan den mendearen erdialdean idatzitako hurrengo hitzok hartu ziren oinarri eta ardatz gisara: “Auschwitz-ekoaren ostean poesia ezinezkoa bihurtu zela aldarrikatu zuen Theodor W. Adorno pentsalariak, XX. mendearen erdialdean eman zuen hitzaldi batean. Are gehiago, “Auschwitz-ekoaren ondoren, poesia idaztea basakeriakintza” zela esan zuen hitzez hitz. Ez dirudi, ordea, ordutik hona igaro den mende erdi krudelak gauzak hobetu dituenik. Eta, hala ere, poesia idazten jarraitzen da...”

Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Juanjo Olasagarre eta Kirmen Uribe poetek UEUko ikastaro haietan parte hartu zuten. Idazle hauek mahai-inguruan bildu ditugu eta “XXI. menderako poesiaren bila” abiatu gara, edo tira, asmo hori hartu dugu aitzakiazat poesiaz solasatzeko. Adornoren aipu historikoa abiapuntu gisa hartu dugu nolana ere. Solasaldiak eman duenaren parte bat paratu dugu jarraian.

Horra, Auschwitz-ekoaren ostean poesia idaztea basakeria-ekintzat jotzen Adornok.

KIRMEN URIBE: Adornoren esaldi hori bere neurrian hartu behar da, XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrerako testuinguruan ulertu behar dugu. Naziak, arrazoia aitazkia hartuz sarraski itzelak egin zituzten eta arrazoia bera krisian sartu zen. Arrazoia krisian sartzen delarik hizkuntza ere sartzen da, hizkuntza baita arrazoiaren tresna. Adornok, nik uste, hizkuntzak gauzak izendatzeko daukan gaitasuna kuestionatu nahi izan zuen. Baina, beldur naiz, Adornok poesiaz egin zuen aipua, ez ote den poesia izendatzeko beti erabili ohi den aurreiritzi gisa ulertu, hau da, poesia berdin lirika. Lirika jarri zuen berak auzitan eta ez poesia. Orduan, poesia idazten jarraitzen dugu, baina ez betiko eta ez molde bereko poesia, edo ez hori bakarrik behintzat.

JUANJO OLASAGARRE: Bat nator, eta, gehiago esango nuke: Adornok poesia aipatzean ez ote zuen artea esan nahi. Artearen bidez erdietsi nahi den transzendentzia nahia aipatu ote zuen nago. Ordura bitartean, Jainkoak artearen tokia hartua zuen eta arrazoiak hori zalantzan jarri zuen.

“XXI. menderako poesiaren bila” izenburua jarri diogu mahaiari. Gabriel Zelaiaren “Poesia etorkizunaz kargaturiko arma bat da” aipua heldu zait gogora. Ba al du etorkizunik euskal poesiak?

RIKARDO ARREGI: Etorkizuna badu, gauza guztiek duten neurrian. Gauzek etorkizuna duten neurrian poesiak eta literaturak ere etorkizuna izango dute. Etorkizuna ez zait kezkarria iruditzen, ezta interesgarri ere, nik ez dut ikusiko.

Gabriel Zelaiak funtzio sozial gisara bizi izan zuen poesia. Poesiak betetzen ote du funtzio sozialik egun?

R. ARREGI: Funtzio soziala gauza eta toki askok betetzen dute. Nire auzoko tabernek berebiziko funtzio soziala betetzen dute, eta hondartzek eta telebistek ere funtzio soziala betetzen dute. Aipu horrek ez du gehiegi esan nahi gaur egun.

J. OLASAGARRE: Beno, edo funtzio soziala betetzen dutela uste dute.

K. URIBE: Poesia etorkizunez kargaturiko arma? Niri etorkizuna ez zait hainbeste interesatzen, mementoa interesatzen zait, gaur egungo egoeraz hitz egitea eta idaztea interesatzen zait. Etorkizunarena oso gauza susmagarria iruditzen zait, unean uneko aldarri egitearen aldekoa naiz. W. H. Audenek esaten zuen aurrera egiten duen lerroa dela literatura. Egia da. Nahiz eta garai post-modernoetan bizi garela esan, poesiak beti aurrera egiten du. Poesiak iragana eta oraina hartzen ditu kontuan, etorkizuna askoz zehaztugabeago da.

Poesiaren historian konstante bat dago: garaian garaiko hizkuntza poetikoa agortu egiten da. T. S. Elliotek esaten zuenez, iraultza poetikoa garaiko hizkerarena da beti, garaira itzultzea. Poesia oso erraz zahartzen da. Hori gertatu da beti eta gertatzen ari da. Goethek "okasiozko poesia" aldarrikatu zuen, mementoari erantzuten dion poesia eta gu ere horretan saiatzen garela sinetsi nahiko nuke.

Gaur egun egiten den poesiak non du abiapuntua? Bernardo Atxagaren Etiopia liburuan, akaso?

R. ARREGI: Lehenagotik dator. Nik euskal poesia modernoaren sorrera Arestirengan jartzen dut, eta Miranderegan ere jarriko nuke. Nik Arestirengandik jaso dut euskal poesia modernoa. Harrezkero idazle eta poema liburu askok eragin eta aldaketa asko ekarri zuten. Niretzat Atxagaren *Etiopia* beranduago etorri zen. Nigan Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrena* liburuak

eragin gehiago izan zuen *Etiopiak* baino, agian Sarrionandiarena lehenago ezagutu nuelako Atxagarena baino. Kasualitate hutsa izan zen.

J. OLASAGARRE: Irakurle gisako nire bidean *Etiopia* mugarrria da eta oso garrantzizkoa. Arestiren poesia *Etiopia* baino beranduago irakurri nuen. Rikardorekin konforme nago, baina literaturaren historiari begiraturik, eta are lehenagora joanez gero, Lizardiren eta bere garaikideen lana ez zen hutsala izan. Geroko idazleek –Arestik, Atxagak, Sarrionandiak– beraien uzta jaso zuten.

Egun "hitzen ondoeza" bizi dugu ordea. Poesiak hitzen zentzua bilatu behar du. Hitzek jatorrizko esanahia galdu omen dute. Poesiaren esanahia edo funtzioa aldatu al da hartara?

R. ARREGI: Hau ez da berria poesian. W. H. Audenek Karl Krausen esaldi bat askotan errepikatzen zuen: "Nik ez dut errurik beste batek ez badu nik idazten dudana ulertzen, nik alemaneraz idazten dut ez "egunkariera"z. Nik ere, beraz, euskaraz idazten dut, ez "egunkariera"z. Audenek hitzak toxikatuta daudela esaten zuen, eta poesiak, eta literaturak, oro har, hitzen destoxikazioa egin behar duela. Baina oso zaila da, hitzak gero eta kutsatua goak daude. Hitzak gehiegi erabiltzen dira. Politikoen eta idazleen hitz asko hutsak dira. Eztabaidetan zaila da hitz bakoitzaren zentzua zehaztea, adibidez, nik ardura esaten badut, beste batek errua ulertu dezake, gertatu zait, benetan, biak ondoan jarri ditugulako, nahastu egin ditugulako hitzok eta esanahiok beste zeregin ustez handiagoen mesederako. Zer esanik ez hitzak direnean askatasuna, herria, demokrazia...

K. URIBE: Poesia gehienbat hitza da. Eta hitzak esanahia dakar beti berarekin. Isiltasunetik hurbilen dagoen generoa da poesia, poesiak hitzaren eraginkortasun handiena bilatzen du, esaldia ahalik eta era biluzienezan paratzea.

Elipsiek eta erritmoak berealdiko eragina dute zeregin horretan.

Idazten al da poesia alairik?

J. OLASAGARRE: Egiten da. Beharbada, alaia zer den bir-definitu beharra dago. Maiakovskik poesia alaia egiten zuen eta Errusiako herria bere atzetik eraman zuen, alaitasunean. Baina, alaia edo alaitasuna, gauza xumea da, pribatua, pertsonala, helaraz ezina askotan. Poesia norberaren mundu pribatua eta honen erreferentziak irakurleari helaraztea da eta hori ez da aise lortzen. Larkinek, poetak aldamenekoa izan behar zuela zioen.

Hona baieztapen bat: "Poeta inoiz baino integratuago bizi da gizartean". Bat al zatozte?

R. ARREGI: Ez dut ulertzen ondo poeta integratua izate hori. Baina badirudi orain idazleak garrantzia handiagoa duela literatura testuak baino, eta hori ez zait zuzena iruditzen. Testua interesatzen zait eta ez hainbeste testua idatzi duen pertsona. Hori literaturaren amaiera baita. Egun, telebista tarteko, batzuetan, idazlea goستن da eta testua gutxiesten. Pertsona ona izan behar du idazleak? Ez dut uste T. S. Elliot pertsona atsegina zenik, edo Borges edo Cernuda bera, baina beren testuak ederrak dira, magikoak, onak. Gizartean integratua izate horrek ez dakit zer esan nahi duen. Poesia idazten duen pertsonak edozein pertsona bezala izan behar du, beste pertsonen aldamenean bizi. Taxi-gidariak integratuta daude? Pertsona onak izan behar dute suhiltzaileek? Irakurteak edo idazteak on egiten gaitu? Poesia liburu bat irakurri ondoren sentikorragoak izango gara, pertsona hobegoak? Zalantzak ditut. Agian bai, agian ez, pertsona bakoitza mundu bat da eta liburu bakoitza ere mundu bat.

Horiek horrela, sortuko al da poesia berria? Zertarako idatzi, beste errealitate baten bila joateko? Poesia ihes egiteko modu bat al da?

K. URIBE: Tira, garai batean, benetako bizitzara eta mundura bide egiteko zen poesia. Erlijioa zalantzan jarri zenean poesia izan zen bidea. Garai honetan, gure inguruko errealitateari buruzko galderak egitearekin konformatu behar dugu, egungo idazlearen betebeharrerako bat errealitateari buruzko galderak egitea da.

Zertarako idatzi? Hitzak galtzen ari diren garai batean bizi gara. Errealitatearen irakurketa gero eta murritzagoak egiten dira. Boterearen irakurketa bakarra da balio duena, gerra garaietan bezala. Idazleak nabardurak bilatu behar ditu, zehaztasunak, itxirik dauden ateetako sarrailen zuloetatik begiratu. Espektakuluaren eta simulakroaren gizarte honetan testua bigarren maila batean gelditzen ari da. Baina, tira, azkenean testuak bere bidea egiten duela sinetsi nahi dut.

J. OLASAGARRE: Poesia ihes egiteko modu bat? Beste errealitate bat aurkitzeko ekintza? Ez bat ez bestea. Nik idatzi egiten dut. Zergatik idazten dudan? Bizio antzeko bat dudalako, dena erregistratu behar dudalako. Poesiari erlijioaren papera betetzea eskatu zaio, iraultza edo herri bat gidatzea eta atzetik eramatea. Horiek gehiegikeriak dira, poesiak gaurko errealitateari buruzko galderak egin badi-tu, ondo. Erantzunak ematea oso zaila baita. Filosofiari gaurko bideak definitzea eta etorkizunekoak marka ditzan eskatzen al zaio? Ez. Poesiari ere ez. Agian, egia eskatu behar zaio. Egia, baina oso txikia.

R. ARREGI: Zergatik idatzi eta zertarako idatzi niretzat ezberdinak dira. “Zergatik” galderak zentzu bat dauka, “zertarako” galderak ez du zentzurik. “Zertarakoa”k, batez ere, utilitatea edota erabilpena inpliketzen du, eta poesia ez da gauza erabilgarria. Poesiak ez du ezer praktikorako balio. “Zertarako” galderan erabilpena dago, gaurko gizarteak sortua, erabilgarritasuna da hitz nagusia, denak zerbaiterako balio behar du. Baina badaude

debaldeko edo dohainik diren gauzak, poesia bezala. Debaldekoari ezin zaio etekinik atera eta ezin zaio, definitzeko, erabilpenaz galdetu. “Zertarako” oso galdera modernoa da, 200 urtetik hona asmatua. “Zergatik” bestelakoa da. Agian, erantzun pertsonalagoa eskatzen du, alde horretatik bat nator Juanjorekin.

Poesiak behar edo merezi duen kritika jasotzen ari al da egun? Barkatu, utilitarismoaz ari naiz.

J. OLASAGARRE: Horretan ere berdin samar gaude. Euskaldunok normaltasun konplexua izan dugu. Nobelak idatzi behar ziren eta nobelak idatziz konplexua uxatu genuen, nonbait. Orain saioaren garaia da, saioak idatzi behar omen dira.

Kritika esan orde, arreta esan dezagun. Poesiari kasu egiten al zaio, alegia?

J. OLASAGARRE: Bai. Liburuari kritika egiten zaio, beti on samarra (ironiaz). Barregarria egiten zait. Alegia, jende gutxi ausartzen da benetan pentsatzen duena esatera. Kritikariak idatziko lukeen letra karaktere kopurua sartzeko espazio nahikorik ez duelako edo ez duelako nahi? Ez dakit.

R. ARREGI: Kritikak egiten dira, baina ez dago saio kritiko sakon askorik, behintzat bide batez saio sakon horiek kritikatu ahal izateko. Azken 30 urteetan euskal poesian, eta oro har poesian, hori ez da lantzen. Ez da nahikoa egiten, baina hori orokorra da, ez hemengo ezaugarri bat.

K. URIBE: Euskal poesiaren egoeraren azterketa azken 20 urteetan? Oso arrotz sentitzen naiz, izan ere, nigan benetan eragin duten izen asko falta zait. Eta ez euskal poetenak bakarrik. Demagun, Aresti, Atxaga edota Aranbarri kontuan hartzen direla saioetan, eta nik, horien ondorioz idazten dut, jakina. Horiek irakurri ditut eta hirurak ere

maite ditut, baina beste batzuk ere bai: Ingeborg Bachmann, Elizabeth Bishop, Mahmud Darwix. Askotan, egungo idazleak euskal tradizioaren eragina ez beste jaso izan bagenu bezala azaltzen gaituzte, baina ez gara tradizio bakarrekoak.

Bestalde, transzendentzia aipatu dugu lehenago, zertarako idatzi eta kontu horiek. Transzendentzia albo batera utzi behar dela uste dut. Liburuak izango duen oihartzuna ahalik eta zintzoen jaso behar dugu, gure buruarekin eta irakurlearekin zintzo izan behar dugu.

J. OLASAGARRE: Hala ere, idazketaren kasu gehienetan idazlearen erakutsi moduko bat dago, badago “nitano” bat: ni naiz eta nik nahi dut, nolabaiteko harrotasun bat. Ni naiz eta hor nabil, jende gehienarengana heldu nahian. Jakina, hortik jotzen baduzu, hori lortzeko merkatuak edo modak esaten duena idatzi behar duzu, akabatuta zaude. Alegia, zeure buruari idazten diozu eta jende gehienarengana ailegatzeko, baina ez zaude horren truk edozein gauza egiteko prest.

Ni idazten hasi nintzenean –artean, oso inozente izango nintzen–, jendeak kalean geldituko ote ninduen uste nuen. Egun ez da horrela, noski, poesia egiten dut eta zintzo izan nahi dut. Baina onartu behar dut nigan osagai edo parte hori ere badagoela, “nitanoa”rena, alegia

K. URIBE: Kontua da zure begirada horrek besteengan interesa sortzea. Artearen historia begirada propioez josirik dago. Zure hitz horiek irakurleak bere egitea da kontua eta, neurri batean, zuk irakurlearenak.

Etiopia aipatu dugu. Poesiak utopia izaten jarraitzen ote du? Poesia mundua aldatzeko ekintza dela esaten da.

K. URIBE: Garai batean garrantzi gehiegi eman zitzaion poesiari, eta bestalde, ideia abstraktuei. Egun horren aurka txertatuak gara, zorionez. Poesia utopia den ez dakit. Guretako bakoitzak gure utopia txikitxoak edukiko

ditugu, ezta? Pertsonak behar du utopia, behar du itxaropena, jan eta natura kontenplatzea behar duen eran.

Hori historian errepikatzen al da?

K. URIBE: Ez dakit. Niri gaurko egoera alde batetik tris-tea iruditzen zait, baina beste aldetik oso osasuntsua, oso sanoa pertsonarentzat. Badakigu non gauden eta zein den pertsonaren neurria. Izan ere, utopiek eta itxaropenak badute alde krudel bat, batez ere egiazkotzat jo genuena ez bada gertatzen. Askotan poetari garrantzi gehiegi ematen zaio nonbaitera iritsi nahi horretan. Esan bezala, poeta ez da gidaria, baina poetak pertsonen kezken gainean egiten du lan. Hitz egin eta zehatz ditzagun lehendabizi gauza txikiak, eta horrela eginen dugu aurrera.

J. OLASAGARRE: Poetek afera horri erantzun nahi izan diote. Alegia, nola bizi den utopiaren itzalean bizi, hazi eta hezitako jendea utopiarik gabeko garai hauetan, nola moldatzen den gauza xumeekin.

R. ARREGI: Batetik ikaragarria iruditzen zait poesiak mundua aldatu nahi izatea eta bestetik barregarria. Zergatik poesiak eta ez genetikak. Kristoren pretentsioa iruditzen zait. Poeta batek mundua liburu baten bitartez aldatu nahi baldin badu, handiuste eta inozoa da. Liburu batek ez du mundua aldatuko. Esan bezala, poeta ez da herriaren gidaria, jende konkretu eta bakan batzuen aldamenean dagoen pertsona da, beste pertsona batzuen ondoan hitz egiten duena, besterik ez. Kasurik onenean hausnarketa interesgarri bat, berea, egingo du testu batean.

K. URIBE: Izan ere, inoiz ez gara hoberantz joango, ez dugu ezer aldatuko, ez badugu onartzen, pertsonak ezberdinak garela, munduari begiratzeko modu ezberdina dugun pertsonak garela. Onarpen horretatik egin behar dugu ahalegina, hau da, pertsona hobeagoak iza-

teko ahaleginetik. Eta ez gara hoberantz joango edo ez dugu errealitatea aldatuko, ez badugu onartzen pertsona bakoitzak bere izaera duela. Ez gara berdinak eta eskerrak ez garen!

2004/Urria

HERRI ANTZERKIA ATZO ETA GAUR

Solaskideak: Patri Urkizu, Alaitz Olaizola eta Daniel Landart.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren ostean bildu gara Patri Urkizu, Daniel Landart eta Alaitz Olaizola idazleekin, Donostian bertan. Zinemaldiaren garaian, zinemaz eta honen oinarria den interpretazioaz hitz egiten da. Interpretazioaren jatorrian antzezpena omen dago. Antzertia “arte teatrala” interpretazioaren esparru txiro gisa ikusia da, antzerkia “pieza teatrala” berriz, literaturaren genero baztertu gisara. Horrela ote? Antzertia eta literatura gaia hizpide hartuta ekin diogu gure jardunari hiru solaskideekin, antzokietako ateak honezkero zabalzabalik dauden negu garaiaren atarian.

Patri Urkizu, Daniel Landart eta Alaitz Olaizolak, hurrenez hurren, antzerkiaz teorizatu eta antzerti testuak idatzi dituzte. Gutxitan edo askotan, hirurek antzerkiak jokatu edo interpretatu dituzte ere bai. Antzerkiaz eta literaturaz hizketan hasi dugu solasaldia, eta finean, gure solaskideek herri antzerkiaren mundua paratu digute mahaiaren gainean. Atzoko eta gaurko euskal antzerkigintzaren “irriak eta negarrak” ekarri dituzte eszenatoki gainera.

Hasteko eta behin, zuk Patri, teatroari buruzko zure saioetan “antzerki” edo “antzerti” hitzak erabili dituzu. Azalduko ahal zeniguke hitz horien gaineko gorabehera?

PATRI URKIZU: Piarres Larzabalek horrela esan ohi zuen: “Hegoaldean antzerki hitza esatean zer arraio esaten duzue? Antzaraki –hegazti–, oiloki edo jakiren bat esaten ote duzue?”. Jateko zerbait ulertzen zuten Iparraldean. Iparraldean antzezlanak komedia edo teatro hitzekin ulertzen baitzituzten. Nik antzerkia *pièce de théâtre* edo pieza teatral bezala definitzen dut eta antzertia *arte teatral* bezala. Hau da, teatroa egiteko era ezberdinak bereizi nahi izan ditut. Baina, badirudi kasu gutxi egin didatela. Dena den, hitzen bereizketa egitea ondo bada ere, inportanteena da antzerki ona eta ongi jokatu izan dadila.

Zer izan da herri antzerkia zuetako bakoitzarentzat? Daniel Landarten kasuan, Iparraldean.

DANIEL LANDART: Antzerkia aipatzean ez ditut pastoralak kontuan hartuko, nahiz horiek antzerki munduan ere sartu nitzakeen. Iparraldean 1920an hasi zen antzerkia egituratzen. Jean Barbier eta Leon Leon “Berrizarte” idazleak aitzindariak izan ziren, bana bertze zazpi obra idatzi zituzten. Nik 1965. urte inguruan ezagutu nuen antzerki hitza. Ordura arte ikusgarriak, ikuskizunak edo komedia hitzak erabiltzen genituen. 1970era arte idazle guztiak, bat edo beste salbu, denak apaizak ziren. Gaiak eta antzezteko moldeak apaizen esku ziren, dotrina zabaltzeko moldea zen, nolabait. 1970eko hamarkadan, antzerki obretan gizarte gaiak, ideologiak eta abertzaletasuna islatzen hasi ziren. 1980tik 2000ra antzerki asko idatzi eta jokatu zen, gehienak kritikoak eta erdi jostatzeko eginak.

Zure kasua zein da Alaitz?

ALAITZ OLAIZOLA: Ni atzo jaioa naiz mundu honetara, niretzat gaia oso berria da. Duela hamabost urte hasi

nintzen antzerkiarekin harremanetan. Gaur egun euskaraz idazten duen idazlerik ia-ia ez dela esaten da. Ni egoera baieztatzen duen salbuespen gutxienetakoa naiz. Egia da ez dela ia-ia idazten. Ni behar bati erantzuten dion antzerki idazle naiz une honetan. Duela hamabost urte, Azpeitian, Antzerki Topaketetan, talde gehiago, bizitasun gehiago, festa eta emanaldi gehiago izaten zen. Ordutik gaurrera beherakada nabarmena ikusi dugu, egoera eraman ezina da. Batzuk idazten saiatzen gara, beste batzuk antolatzen, baina antzerkia goitik behera etorri da.

P. URKIZU: Egungo egoera aztertzeko beharrezkoa da atzokoari begirada botatzea. Egoera honetara iritsi baino lehen teatro mota ezberdinak izan dira euskal antzertian. Alde batetik, herri teatroa: maskaradak, astolasterrak eta pastoralak. Bestetik, XIX. mendean 1878 urte inguruan hasi zen Teatro Berria, eta hau hiru eskola ezberdinekin, besteen artean: donostiarra, bizkaitarra eta lapurtarra. Eta Errepublika garaitik ona teatro modernoa, 1936ko Gerra Zibila eta ondoko hutsunea salbu.

Antzerkia genero txikia ote da euskal literaturan, beste generoen aldean? Euskal literatura txiki honetan teatroa genero txikiagoa al da oraindik?

P. URKIZU: Aldian aldiko egoerak ezin dira orokorki azaldu, ongi azpimarratu behar dira: noiz, non, nola eta zer egin den. 1936ko Gerraren aurrean adibidez, antzertiak indar handia zeukan, helburuak bilatzen eta funtzio batzuk betetzen zituen: euskara mantentzea, abertzaletasuna piztea, ohiturak agertzea edo salatzea. Antzerki gehiago idazten zen poesia edota nobela baino, dudarik gabe. Gaur egun, berriz, narrazioa puri-purian eta modan dago. Antzerkiari garai eskasak heldu zaizkio. Adibidez *Berria* egunerokoan (2004-X-3) udazkenerako 49 obra ezberdin iragartzen dira, poesia, narrazioa, saiakera,

bertsoak eta berrargitalpenen artean eta alerik ere ez teatroan. Baina krisian zegoen jadanik gerra aurrean, zinea lehenik eta telebista geroago antzerkiari lehiakide ohi-koak suertatu baitzitzaizkion. Dena den, telebista, ongi zuzendua badago lagungarri izan daiteke antzerkiak bizirik jarrai dezan.

Zein da antzerkiaren egoera gaur egun?

D. LANDART: Duela berrogeita hamar urteko egoera gogoraturik, aldaketa handiak izan dira. Iparraldean orduan taldeak herrietan aritzen ziren, baina obra bat urtean bi aldiz ematen zuten eta kito. Denbora-pasako ekintza moduko bat zen. Antzerkia, bereziki, Eusko Jaurlaritzak Antzerki eskola sortu zuelarik aldatu zen. Eskola horretatik atera ziren antzerkitik bizi nahi zutenak eta egun, hala edo nola bizi direnak obra bera euskaraz nahiz erdaraz emanaz. Iparraldean, aldiz, nahikari hori gauza berria izan zen, ordura arte ezagutzen ez zen ibilbidea. Egund, Iparraldean taldeak amateurak dira. Halaber, antzezle profesional batzuek, talde frantses profesionaletan lan egiten dute, Txomin Hegik, konparazione, eta euskararen adar bat sortu dute, frantsesaren babespean.

Zu Alaitz, Lakrikun taldean ari zara. Zer behar du antzerkiak literatur genero gisa, ondoren jokatua izan dadin?

A. OLAIZOLA: Antzerki munduan ari garenok idatz lana taula gainean antzezteko prestatzen dugu, garaian garaikoa. Hori da guri eskatzen zaiguna. Normalki testuari tankera ematen diogu, eta idazten duguna taula gainean emateko modukoa izaten da. Nik, hala ere, antzerki idatziak argitaratzeko izan behar direla uste dut, testua jasota geratzen delako. Idazlearentzat oso garrantzizkoa da. Baina, nik antzeztua izateko idazten dut. Idazten dudana momentutik horri begira ari naiz. Irakurri bezain pronto zuzenean antzezteko modukoa izan behar du nire gusturako.

D. LANDART: Ados nago Alaitzekin.

P. URKIZU: Prensan eta hedabideetan zenbait antzerki-gile kexu agertu ohi dira beren lanak ez direlako ikuskizun bilakatzen. Orduan, agian, idazle horrek idatzi duen antzerkia antzerki talde batek ez du behar bezala ulertu izan jokatua izateko. Adibidez, zuzendari batek zernahi gauza egin dezake: testu klasikoak edo nobelak hartu eta antzerkirako moldatu. Garcia Marquezen *100 años de soledad* eleberria antzerki gisara moldatua ikusi dut. Genero aldaketak oso erraz egin daitezke. Pastoral zaharrak, asko eta asko, zaldun eleberriak baino ez dira, Erdi Aroko eleberriak teatro bilakatuak. Orduan, antzerki idatzi batean berehala antzematen da taulan jokatzeko egina den edo ez. Hala ere, egokitzailearen lana funtsezkoa da. Antzerkiaren atzean jende askoren lana dago, idazlearena lehena ohi delarik.

Funtzio kritikoa galdu omen da. Ados?

P. URKIZU: Egile zaharrek honela esaten zuten latinez: “*Corrige ridendo mores*”. Alegia “irri eginez zuzen itzak ohiturak”. “Negarrak labur irria luze” zioen Antonio Labaienek, mezua nolabait aldatuz eta bereganatuz. Antzerki batek osagai horiek behar ditu neurri batean, dramatikoa, negar pixka bat, baina irriak luze izan behar du. Gaur egun, gure artean irria luzea da, agian luzeegia eta zalantzazkoa, eta ziria labur. Nire ustez teatroak alde etiko bat beharko luke, ez nuke esango moralista kutsuz aspergarria, baina bai hiritarrak hezteko moduan egina. Agian, gehiegizkoa da hau eskatzea.

D. LANDART: Ados naiz. Piarres Larbazalen lehen antzerkiak *Irri eta nigar* izenburua du. Bere obra osoan bi gaiak erabili zituen. Hots, jendea momentu on bat pasatzera doa antzerkira, eta atsegingarri den zerbait eman behar zaio. Denbora berean zerbait ikasi behar du. Euskal historiako pertsona handiak eraman izan dira antzerkira

Iparraldean, Etxahun edo Bereterretxe, konparazione. Obra horietan bazen irria, baina baita ere samina eta negarra. Irria eta negarraren muga beti hertsia da, hala ere. Ez da dramatikoegia izan behar, eta aldi berean, irria-rekin kontuz ibili behar da. Kultura orokorraren heina edo maila goratu denez gero, idazle batentzat zaila da gauza serioa eta entretenigarria egitea. Oso zaila da ondo idaztea.

Zaila al da Alaitz?

A. OLAIZOLA: Ni biekin ados naiz, oro har. Danielek esan duen bezala idazlearentzat zaila da irria ondo adieraztea. Irri merkea al da ipintzen ari garena edo naizena? Ondo landutakoa al da? Ikusleek zer uste izango dute? Une honetan eta toki horretan pasarte honek balioko al du irri egiteko? Ikusleria beti ez da berdina eta bera. Garaiak aldatu badira ere, ez da berdin herri eta hirietan jokatzea. Antzerkia egiten dugunean ez dugu beti asmatzen, publikoak ez du beti uste dugun bezala erantzuten. Orduan, asmatzea da kontua. Azken finean, jakin behar duzu ondo zer egin nahi duzun. Ez baitakizu norekin topo egingo duzun. Eta zure liburua eskuratzen duen jende gutxi horrekin berdin. Idazleak helburu hezitzailea izan behar du, baina ez handia ere, ez baita erraz egitea. Pintzelada batzuk eman behar ditugu obran zehar.

Egungo idazleak eta aktoreak garai batean –60ko hamarkadan– aldarrikatu zen sormen kolektiboaren seme-alabak omen dira. Zer izan da sormen kolektiboa Daniel Landarten esperientzian?

D. LANDART: Sormen kolektiboaren ideia idazle bakoitzak sentitzen eta bizitzen du. Nik hori 60ko hamarkadan bizi izan nuen, hamar bat antzerki obra idatzi baitut eta eman ere. Baina zer erran nahi du antzerkia kolektiboki emateak? Guk –jokalariak, idazleak eta taldekide guztiok– zer gai eman eta nola tratatu hau-

tatzen genuen. Bilerak egiten genituen, bakoitzak ematen zuen bere iritzia, baina ez zen kolektiboki idazten. Batek idazten du. Bakarkako lana da. Eta nahiz irudi duen errazago dela, zure lana antzeztuko dutenek zurekin mintzatzen dutelako, antzezle guztiak ez dira maila berekoak, ez ideia eta sentimendu berekoak. Orduan, lan bat idaztea lau aldiz gehiago kostatzen zaizu. Egia da, jokalariek sentitzen dutela idazleok sortu dugun obra, baina ez da ilusio gehiegirik egin behar. Hiru edo lau aldiz landu nuen esperientzia edo lan molde hori, pozik. Baina ez nuke gehiago eginen. Idaztea idazlearen lana da, bakardadean. Horregatik ez du erran nahi beste mundu batean egon behar duzula, baina zuk eman behar duzu zurea. Izan ere, konpromisoa hartzen duzu, eta besteek zuk joan nahi zenuen baino urrunago eramaten zaituzte. Bestalde, esaterako, hogeitaz urteren buruan obra horiek publikatu behar direlarik, *Erranak Erran* titulua-rekin gertatu zitzaidan bezala, parte hartu zuen bakoitzari eskatu behar izan nion baimena.

Herri antzerkietan tokian tokiko euskalkia erabili ohi da. Euskalkiak muga edo oztopo izan ote dira herri antzerkiaren zabalpenean? Iparraldeko antzerkiak arazo hori ukan izan du, ezta?

D. LANDART: Dударik gabe. Adibidez, Piarres Larzabalek jada “zuen” idazten zuen eta herriko antzezleek “ziin” erraten zuten. Etxean mintzatzen ziren bezala antzezten zuten. Gure belaunaldia, nolabait, hitzak idazten ziren bezala ahoskatzen hasi zen. Eta euskara poliki-poliki hurbilagoa zen Hegoaldeko publikoarentzat ere bai. Hala ere, nik uste, euskalkiak baino Euskal Herriko drama fonetikaren afera oraindik konpondua ez egotea da. Iparraldeko bati oso zaila egiten zaio Hegoaldekoa ulertzea eta alderantziz. *Xirrixti-Mirrixti garrenean* plat obra 1984an eman genuelarik, Azpeitian, –publikoaren

erdian bainintzen— konturatzen nintzen ez zutela testua ulertzen. Tarteko kantu bat eman zuten latinez, eta orduan publikoak halako erantzun bat eman zuen. Errealitatea hori zen. Harrezkero, Debako antzerki taldearekin, bai beste batzuekin Iparraldean bizpahiru aldiz urtean antzezlanak programatzen hasi ginen, eta horrela emeki-emeki belarria egiten joan gara. Orduan ez zen irрати ez telebistarik, beraz orain baino diferenteagoa genuen euskara. Hala ere, berriz diot, euskalkiaren baitako arazoa doinua hartzea da, hitzak, emeki-emeki bada ere, ikasten ditugu-eta. Mahai-inguru batean, karrikan mintzo garelarik, hitz bat edo beste ulertu gabe ere moldatzen gara, baina ordu eta Erdiko ikuskizun bat segitzeko ez. Eta hori kezagarria da. Eta jendea ez doa antzerkiak ikustera, ez ulertzearen beldur.

P. URKIZU: Ramon Saizarbitoria eleberrigileak kontatzen du, behin, Jarrai taldea, bere ospe eta guzti Donostiatik Azkoitira joan zela. Bertako antzokian jokatzeko ari zirelarik, emakume batek, “zein hizkuntzan ari dira, ingelesez edo?”, galdetu omen zuen. Orduan, badirudi azkoitiar emakumearen hizkera eta Jarraik egiten zuten baituaren artean leize bat zegoela. Dena den, ene ustez gaur egun ikusleen eta antzetzaldeen arteko euskara ezagutze mailak gero eta hurbilago daude.

Jakina, kultura kontua ere bada. Duela bost mende bilbotar batek eta baionar batek ez zuten elkar konprenitzen ahal, diferentziak askoz handiagoak ziren. Orain, Euskadi Irratia eta Euskal Telebista daude, Iparraldeko Euskal Irratietan Hegoaldeko hitz asko sartu dira. Bien arteko komunikazio eta harreman gehiago dago.

D. LANDART: Dudarik gabe. Azken hogeita hamar urteetan, hedabideak eta prentsa direla, literatura dela, izugarritzko hurbiltze bat eman dugu euskararen aldetik. Hala ere...

KOADROAK

Antzerti eskola Patri Urkizuren ikuspegitik

Oso esperientzia interesgarria izan zen eskola hura, aldizkari bat argitaratu zen bertan, %50 euskaraz eta %50 gaztelaniaz. Hilabetean behin testu bat euskaraz publikatzen zen gutxienez, urtean hamabi bat antzerki. Gaur egun *Artez* aldizkariak portzentaje hori baino gutxiago betetzen du. Orduan, alde horretatik atzera goaz. Badirudi, Antzertiren ideia berriz ere buruan darabiltzateela batzuek. Ikus-entzunezko gaia lantzen duten ikas-tetxe batzuk bilduz gero Antzerti eskola antola liteke. Baina hori agintariak eta politikoez erabaki beharko lukete, gu langile xumeak gara, gure azterketak, liburu-txoak eta ideiak ekarri behar ditugu. Antzerti tailer ugari sakabanatuak izan arren gure lurraldean, antzertieren egoera larria ikusirik, Antzerti bezalako eskola edo hobeto bat ireki beharko litzateke gazte zaletuei zerbitzu hori emateko, zerbitzu on bat. Eskolatik hasita haurrek ikasi behar dute euskaraz ongi hitz egiten, ideiak ondo espresatzen, eta horretarako antzertia bitarteko hezitzailea eta literaturarako bide bikaina da.

Herri antzerkiaren egoera Alaitz Olaizolaren ikuspegitik

Antxieta taldeak hogeita urte luze bete eta desagertu ondoren, Lakrikun taldeak Antxieta segida hartu zuen. Lakrikunek betetzen du herri antzerkiaren zeregina Azpeitian. Gure taldeak hamar urte daramatza, baina esango nuke ez dagoelako ez azpiegitararik ez laguntzaririk. Ez dut esango etsituta gaudela, baina ezin dut ukatu egoera larria dela. Duela bost bat urte, gure taldeak, amateurra izanik ere, hamazazpi emanaldi eman zituen urte betean, gaur egun, obra berriekin, ez gara zortzi emanaldi eskaintzera iristen. Eta arazoa ez da honezkero beste herrietan ez gaituztela ulertzen. Gaur egun, gure taldeak

ez du Azpeitiko hizkera erabiltzen, Azpeitian ez bada, txisteren bat edo egiteko, guk badakigu gure euskalkia noiz erabili eta noiz ez.

Iparraldeko taldeen bilakaera Daniel Landarten ikuspegitik

Duela berrogeita hamar urte hamabi bat talde ziren. Herri bateko talde batek obra bi aldiz jokatzen zuen; orotara, hogeita lau saio eskaintzen ziren. Xirrixti-Mirrixti eta Bordazuri taldeak, amateurrak izan arren profesionalen gisara hasi ziren. Emanaldiak herriz herri ematen hasi ziren, *Xirrixti-Mirrixti gerrenean plat* obra hogeita lau aldiz jokatu zuten. Orduan taldeak murriztuz joan ziren baina emanaldiak emendatuz. Gaur egun berriz, Armendaritze eta Banka herriko taldeak lehenagoko moldean ari dira, antzerkia prestatu, bi aldiz eman eta kito. Egia da, gauza handiak eginak dira Eusko Jaurlaritzaren Antzerti eskolaren bitartez, Azpeitiko Antzerki Jaialdia eta Deban egiten den euskarazko festibalaren bitartez, Iparraldean Galarrotsak ere ziren. Ez dut pesimista izan nahi, baina ia-ia ez dago talde amateurrik.

2004/Apirila

HARRIMENEZ ETA ESPANTUZ ORAINDIK ARGITZEN DU ORIXEK

Solaskideak: Paulo Iztueta, Jose Mari Aranalde
eta Patziku Perurena.

Nikolas Ormaetxea Orixe (1888, Oresa – 1961, Añorga) gizon, pentsalari eta literatoaren jakingura genuen. Hartara, Paulo Iztueta irakaslearen hiru liburuen arrastoan jarri ginen: Paulo Iztuetaekin batera, Orixe *Orixe saiogilea*, *Orixe auzitan* eta *Orixe gaitzetsia*.zenaren Jose Mari Aranalde iloba bildu dugu solasera. Patziku Perurena idazlea ere mahaira gonbidatua zegoen. Elurrak galarazi zuen ordea. Bere iritzi artikulua paratu dugu ordainetan.

Orexan Orixeren harrizko irudi bat dago “sarrerako argazkian ageri dena”. Paulo Iztuetak honela dio bere lehen liburua hasieran: “Inoiz Oresa joaten bazara, gera zaitez bere aurrean eta, gure artean ohi den bezala, galde iezaiozu: Zer da berri Nikolas?”. Guk Orixeri egin ezean, hura ondo ezagutu zuten bi lagun hauei galdetu diegu.

Aipa dezagun Orixe gizona. Nor zen Nikolas Ormaetxea zuetako bakoitzarentzat?

PAULO IZTUETA: Oresa baserritar baten semea, hiru-
kia. Bere bizitza garaiko egoeraren arabera baldintze-

tan burutu zuen. Hirukietako bat, bere arreba Aresora joan zen. Bera berriz Uitzira, bestea, Martin, etxean geratu zelarik. Egoera berezi batean bizitzea suertatu zitzaion, hiru erditze berean sortzeak marka uzten baitu. Hori da Orixeren ezaugarriarik inportanteetako bat. Emana dator-kiona hartzea, emana berari eta familiari.

JOSE MARI ARANALDE: Etxerik gabeko haur bat bezala hazia. Berak esaten zuen bezala: "bi ama eta amarik ez".

Non gelditu da Orixe herriaren aurrean, nola gogoratzen du herriak?

J.M. ARANALDE: Kaskailu, kontserbadore eta atzerakoi bezala dauka zenbait jendek. Hori baina Orixeri atxikitako estereotipo bat da. Orixeren obra ezagutu ez duenak horrelako estereotipoa egiten du Orixez. Orixe bere garaikideentzat, *Orixe Omenaldia* liburuan agertzen den bezala, beren maisua, lemazaina, buruzagia, beren argia da. Baina ondorengo belaunaldientzat ez da horrela. Belaunaldi horiek Orixe guztiz ezagutu gabe, batere ezagutu gabe, baztertu zuten.

Paulo, zuk Orixeren obra erruz landu duzu. Ezagutzen al da Orixeren obra?

P. IZTUETA: Obra edo sorkuntza bat aztertzerakoan, kasurako Orixeren obra aztertzeko, konbentzitu nintzen ezinbestekoa dela obra horren sortzailea oso hurbiletik ezagutzea. Eta horregatik, oso arreta handiz eta bihotz handiagoz idatzi dut bere bizitza. "Orixe gaitzetsia" izendatu dut liburuetako bat. Hitz hori hautatu dut, berak hautatu zuelako. Urratsez urrats, urtez urte, herriz herri, segitu diot Orixeri. Idazle gisa gure obligazioa pertsona oso hurbiletik ezagutzea baita, pertsonaren alde bakoitza, bere bizitza, bere testuingurua. Orixe horietan guztietan utzi baitzuen arrastoa. Uitzin egon zenean nola jesuitetan, hala mundu zibilean, baita erbestean eta hona etorri

ondorenean. Orixen norbait izan da. Segur asko zenbait garaitan haren ilargiak argi gehiago egiten zuen bes-teenak baino.

Norbait hori sakondu amiñi bat gehiago, arren.

P. IZTUETA: Zalantzarik gabe, norbait zen, sortzailea izan zelako, zerbait adierazgarria sortzen jakin zuen, kontuan hartzeko modukoa. Orixek bere bizitza euskarari eman zion. Eta horrek berak sorkuntza egiteko giro berezi bat eman zion. Aranaldek aipatu du kaskailu hitza. Izango zen edo ez berdin zait, ez dakit, ez nuen aurrez aurre ezagutzeko aukerarik izan eta.

J.M. ARANALDE: Kaskailua esan dut, estereotipo bezala.

P. IZTUETA: Burutu zuen obra egiteko izugarritzko bihotza izan behar zuela esango nuke. Luma bizia zuen eta, gainera, bazekien txinparta sortzen, eta horrek eraginda, piztu eta garatu zuen euskal kultura. Bere garaian indarrean zeuden euskal esparru gehienak landu zituen eta horien inguruan eztabaida bultzatu zuen. Eztabaida ondo emana denean, gauza asko argitu eta hobetzeko baliagarri izaten da, tarteka laino batzuk agertzen badira ere. Euskal kulturaren zeregin horretan Orixen norbait funtsezkoa izan da.

“Gaitzetsia” hitza berak hautatua dela esan duzu. Argitu ezazue alderdi hori, mesedez.

J.M. ARANALDE: Gaitzetsia. Zer da gaitzetsia izatea? Orixe Uitzin ez da marjinatua. Hangoa ez dela, hori da gutzia. Ez du gaizki hitz egingo Uitzirengatik, eta gutxiago, Errekalde etxearengatik.

Zerk markatu zuen bere bizitza?

J.M. ARANALDE: Uitzik Orixe markatzen du. *Euskaldunak* poema Uitzin da. Orixeren obra guztia, jesuitetan hartzen duen formazioa eta informazioz aparte, Uitziri buruzkoa da. Uitzin hazi zuen amona Mariaxentxi baino

handiagorik ez dago. Hark eramaten du Orixeko mutikoa etxeko balkoira gurutze-bidea irakurri diezaion albotik, hura josten ari den bitartean, –eta han ikusten du haurrak amona extasian behin eta berriz (bost aldiz)– gurutz-bidea irakurtzen ari zaiola. Hori baino zerbait handiagorik eta ederragorik eta harrigarriagorik gertatu zaion norbait baden esadazue.

Jesuitetan hartu zuen formazioa aipatu duzu. Nola joan zen jesuitetara? Batzuek behartua joan ote zen esan dute.

J.M. ARANALDE: Jesuitetara bidea erakutsi zioten Uitzin ikasle eta mutil ona zelako. Baina bide horretara bultzatu zutenak maisu eta Otsanbelako etxekoak izan ziren...

P. IZTUETA: Iriartetarrek. Nik ez dakit zuzen zergatik edo noren eraginez joan zen jesuitetara. Zernahi gisatara, ordurako mutiko hazia zen, bazituen 17 urte, ez dira 10 urte. Badirudi apaiz bat joan zela herrira bokazio bila eta, eskolan informazio on bat eman ziotela, ikasten oso abila zelako. Maisua Gomez izenekoa zen, Aresokoa. Otsanbelako Iriartetarrek ere aldeko iritzia emango zioten, “mutiko honek balio du” esanez. Beste gauza bat da bere burutazioz joan zen ala ez jakitea. Bestalde, badakigu bera bizi zen etxean, Errekalden, mojetako kapilaua bizi zela, eta pentsatzekoa da Orixek Xabierrerako bidea hartu aurretik jakingo zuela zerbait latinez.

J.M. ARANALDE: Lehen behartuta joan ote zen galdetu duzu. Ez zuten behartu. Beste inorako bidea erakutsi izan balio, beste norabaitera joango zela esaten zuen berak.

Orixek bere burua gaitzetsitzat jotzea onartu ote zuen, esan da.

P. IZTUETA: Artzainak badaki zer den arkumea gaitzetsia izatea, hau da, bere amak baztertua uztea. Orduan, hori sinbolo bat bezala ulertu behar da. Berak bizi zuen “bi ama eta amarik ez” egoera nork jasango zuen? Mariaxentzi

amatxirekin Orexara joaten zenean, bere sortetxera, Uitzira nahi izaten zuen ahalik eta azkarren itzuli. Horrela zioen berak bere lanetan. Zergatik? Uitzin hezia zelako, hangoak bihotzeko gurasotzat zeuzkalako. Zentzu horretan ulertu behar da “gaitzetsia” sentitzea. *Quito'n arrebarekin* liburuan halako egoera deseroso batean bizitzea zer den kontatzen du. Horrek marka psikologikoa utzi egiten dizu. Amarik ezak, egiazki, ondoez bat sortu zion. Nekez, askotan arrastaka, baina eramaten ikasi zuen, *Getsemani* poeman erakusten duen bezala.

Beste alde batetik, “gaitzetsia” sentitzeak bizi espiritualarekin badu zer ikusirik, jesuitetan nolabaiteko barneborroka handia bizi izan zuen. Han nagusiengandik zertorkion eraso gogor bati aurre egin behar izan zion. Lagunditik kanporatu egin nahi baitzuten, bera bere bokazioari eusten indar guztiz ahaleginduko da, baina alferrik. Eutsi egin nahi eta ezin, borroka hori izan bide daiteke haren dramarik handienetako bat. Hor badago “gaitzetsia” izateko beste arrazoi bat, nire ustez, behar bezala gainditzen asmatu ez zuena. Ez orduan ez geroago ere. Nahiz gizon oso mistikoa izan. Erraza ere ez zen!

Ez zuten Jesuitetan onartu? Zergatik?

J.M. ARANALDE: Orixek niri esana da, infernura kondenatua zegoela amets egin izan zuela. Zergatik? Hark miresten zuen Jesusen Lagundiak, txartzat hartu zuelako eta apaizetarako ateak itxi zizkiotelako. Azken urteetan amets gaizto horiek joan zitzaizkiola esaten zuen.

P. IZTUETA: Gaitzetsia hitzari helduz, esan dezadan horrek esanahi oso indartsua dela, eta gauza asko adierazten dituela. Berak hiru pasartetan bederen aipatzen du hitz hori. Zerbaitengatik izango da. Gaitzetsia, gaur egun, baztertua, ez aintzat hartua izatea da. Ez bakarrik jesuitetan, euskalgintzaren inguruan ere Orixek bizi izan zuen baztertua edo aintzat ez hartua izanaren sentipena.

J.M. ARANALDE: Baina Jesuitetakoak guztizkoa da. Osasunik gabeko gizon hura, gotak kiskalia eta buruko minek puskatua, hainbeste urtez irakaskuntzan edukitzea, ez da berriketa.

Zer bekatu egin zuen, bada zigortua izateko?

P. IZTUETA: Horri buruzkoa berak idatzirik utzia du Saubion-go egonaldian. Nire erreferentziak iturri honetan oinarritzen dira. Patxi Altunak Loiolako artxibategia izan du iturri. Osagarriak direlakoan nago, nahiz bakoi-tzak bere irakurketa egiten duen. Altuna jesuitaren ustez, teologiako bigarren urte bukaeran apaizteko baimena eskatuz “Lagundiko nagusien ezjakinean, noski”, Vatikanoko erlijiosoen kongregazio sakratura gutun bat idatzi izana izan zen Orixeren bekatu larria, hanka-sartze bar-kaezina. Hori eta zerbait sakonagoa ere bada hor tartean, eta da Orixe ez zela inoren esanekoa izateko sortua. Eta Lagundian, mundu laikoan ez bezala, hierarkia erlijio-soari zor zaion obedientziarekin egin zuen topo. Bere izaera nahiko bortitza zen “normala, bestalde”, eta Lagundiko nagusiekin tupust egin zuen.

Edonola ere, bere purgatorioa Comillasen hasi zen. Modu bateko nahiz besteko jazarpenak jaso zituen han. Euskararen munduan hazia eta hezia izaki, Jesuiten munduan euskalduntasuna ez zegoen hain ondo ikusia, Comillasen bederen ez, bertako nagusi aita Bianchi hautatua izan ondotik. Orixeren “bizkaitarrismoa” zela eta, gero haren izaera zakarra eta ikasteko gaitasunik eza, txostenak ibili ziren eskutik eskura eta horrela zazpi urte pasa zituen, berak “beltzak” deitzen dituenak. Azkenean, ezinbestez eta behartuta, Lagundia 35 urterekin utziko du.

Euskal pentsalari gisa aintzat hartu al da? Edo literatotik gehiago dauka pentsalaritik baino Orixek?

J.M. ARANALDE: Pentsalari gisa bere obra erlijiosoa da, horretara mugatua.

P. IZTUETA: Orain arte ezagutua edo landua izan dena Orixen literatoa da. Zalantzarik gabe hala da. Aranaldek puntu hori irakurri eta baloratu beharko litzatekeela esan ohi du. Nola ez. Nik ez dut alderdi hori hainbeste aztertu *Quito'n arrebarekin* irakurriz ez bada. Beste batzuek, bai, aztertu dute, eta ageri da Orixek baduela bere maila, eta aitortzen zaiola. Alor horretan ere faseak egon dira. Bere garaikoek literatur alderdi hori ezagutu eta baloratu zuten. Ondorengoek zerbait ezagutu zuten, gure garaikoek ere bai; oraingok, aldiz, gutxiago. Bestalde, 1960tik 70era bitartean baztertua izan zen, arazo ideologikoen-gatik, batez ere. Gaur egun, ez zait iruditzen Orixen literatoa behar beste ezagutzen denik, nahiz batzuk hasiak diren haren poesia batzuk ederresten. Aranaldek dioen bezala, Orixeren obra gehienbat erlijiosoa baita, baliteke horregatik izatea.

J.M.ARANALDE: Pentsalari obra erlijiosoa du. Literaturaz denetik badu.

P. IZTUETA: Oraindik ere bere obra deskubritzeko dago, ez espezifikoki bere obra literarioa, baizik eta obra kulturala. Obra orokorra eta akademikoa ere deituko nukeena. Obra handia da. Orain gutxi arte, bere obra guztiak bildu arte, norik zekien zenbat lan idatzia zuten? Hainbat aldizkaritan barreiatua gelditu baitzen. Horren lekuko dira haren idazlan guztiak. III. tomoa, 1.000 orrialdetatik gorakoa da. Hor biltzen dira hain ezagunak ez ziren artikulak eta saioak.

Orixen bakarrik literatoa izan dela esatea ez da zuzena, askoz gehiago baita. Bere garaian literatur sortzaileria, pentsalaria eta prosista izatea ez zen ohikoa. Orain ere ez. Gauza bat baita prosista izatea literaturan eta beste bat prosa akademikoa egitea. Orixen, artean, gai idorretan trebatu gabea zegoen hizkuntzarekin borrokan hasten da, bere harrobitik duen zaina ateratzen, beste hizkuntza jasotzen ereduak bilatzen. Norbaitek saio eta pulsu horri

eutsi baldin badio, hori Orixe izan da. Nahikoa da begiratzea zer urrats eman zituen hizkuntzalaritzan, zenbat artikulu utzi dituen folkloreaken inguruan, zer saio polita duen estetikaz. Orixe ez da bakarrik literatoa, saiogile prosista ere bada. Biak batera.

Klasizista eta kontserbadoretzat hartua da.

J.M. ARANALDE: Esaten dute, esaten dute. Orixe kontserbadorea dela esaten duenak ez du batere ezagutzen. Orixe ibili den bide guztiak, lehendik urratuta zeuden baina sakonago urratu ditu eta aurrerago eraman ditu. Esaidazu zeinek idatzi duen euskaraz “Izan, Egon, Gertatu” artikulua bezalakorik. Filosofia horretako hiru kontzeptu horien erabilpen zehatz, gustagarri eta etxeko hizkuntzazkoagorik zeinek egin duen. Inork ez! Zeinek egin du lehenengo literatur historia? Zeinek argitaratu ditu euskara batuko lehenengo obrak? Nahi duzun ñabardurak jarri horri. Zeinek kentzen ditu “j” guztiak Orixeek *Aitorkizunak* obran bezala. Orain irratiko edozein esatarik egiten du hori. Zein da Hegoaldeko idazlerik “ukan” eta “izan” aditz laguntzaileak, Iparraldean bezala, hemen erabili dituenik? Orixe.

Hizkuntzari dagokionean, aurrerazalea.

J.M. ARANALDE: Ez dut esan aurrerazalea. Esan dut, ibili dituen bide guztiak lehen zeuden baino sakonagotik ibili dituela eta aurrerago eraman dituela. Nahi duzun gaietan.

P. IZTUETA: Jose Marirekin bat egiten dut. Orixe jesuiten eskolakoa izan da, zalantzarik gabe. Normalean jesuitek klasizismoa asko lantzen dute eta berak ere bai, normala den bezala. Berak ondo ezagutzen zituen erretorika eta autore klasikoak. Bestalde, bere estetika eta gustu pertsonalean ez zen “oso moderno zalea”, garai hartan European modernismoa ezagutzen zen bezala kontuan hartuta. Baina hori aukera bat da. Euskal literaturaren munduan,

beharbada, bera izan zen adituena, euskal literaturaren lehenengo historia berak egin zuen. Koldo Mitxelena oso aipatua zuen lan hura. Segur asko, aranismoa bere garbizalekeriarekin bazterrak astintzen hasi zenean, kopeta erakusten lehenengoetakoa Orixek izan zen, Bilbon, 1920ko hamarkada bukaeran. Horren ondorioz, ostikada ederrak hartu zituen. Segur asko, euskara idatzian eta prosan bidea markatu zuena bera izan zen. Ildo sakona utzi zuen behintzat. Euskarari buruz, “haren” eta “bere” genitiboko markari buruzko bereizketan, bera izan zen erakusle. Eta are inportanteagoa dena, bere ideologiari dagokionez, mundu erlijiosoan hezia eta mistika barne-barnetik bizi izan zuena izaki, bere bizipen erlijioso horretan oinarrituta, hain indar handiko poesia mistikoa sortzen duen Orixek ez du parekorik sinesgarritasunean. Honetan, norbere bizipenari darion adierazpen estetikoan, alegia, Orixek ez da batere kontserbadorea.

J.M. ARANALDE: Dударик gabe!

Euskaldunak *poema hizpide, zuk, Aranalde, zer esango zenuke honen etikaz?*

J.M. ARANALDE: *Euskaldunak* poemak estetika herrikoi bat du, Euskal Herrian dagoen estetika. Dena bertsoz egin dago eta bertsolarien eskola du eredu. Baina jakina, estetika hori Orixek erabiltzen du, ez bertsolari batek. Azkeneko bertsoa oso adierazgarria da. Bertsolariak esan behar izaten du zein urtetan egin dituen bertsoak. Baita Orixek ere. Entzun: “Bertsolariak oitura baitu/esaten urtegarrena...” Bertsolariak badaki esaten urtea, baina ez “urtegarrena”, herriaren etikaren arabera. Orixek bai. Gero: “Kristo jaiorik emeretzireun/ogeita amalaugarrena...” Horra urtea. Esan du. Bertsolariak ere esaten du, baina ez du “emeretzireun” esaten herriaren etikaren arabera. Orixek bai. *Euskaldunak* poeman dozenaka aldiz harritzen du irakurlea, eta ez esaten duenarekin bakarrik,

moduarekin baizik. Harrigarria da obra. Irakurriago eta gehiago harritzen du.

Bukatu aldera har dezagun Orixe auzitan saioa hizpide. Orixe kritikari eta kritikatu. Bere buruarekin kritikoko agertzeko ahalmena erakutsi zuen.

P. IZTUETA: *Orixe auzitan* azaltzen den testuingurua gerra aurrekoa eta ondokoa da, 1930etik aurrera. Gerra aurre horretan Eusko Pizkundearen gorakada handia ematen da. Orduan sortzen dira, besteak beste, sariketak, bai poesian bai bertsolaritzan bai gainontzekoetan. *El Dían*, *Euzkadin* eta aldizkarietan, garai hartan sortu ziren euskal liburuei buruzko kritikak. Orixek ere agertzen ditu bere iritziak, Lauaxetaren liburuaren kasuan bezala, batzuetan zorrotzak. Biak jesuiten eskolan ikasiak izan arren, ez ziren orotan irizkideak. Orixe orotara, klasikoak hutsa da. Lauaxeta, aldiz, klasikoa bada, bai, baina literatura modernoari atxikia ere bada. Autore modernoak ezagutzen ditu. Ezagutu eta maite. *Bide Barrijak* lana da horren lekuko, agian, edukiz baino areago itxuraz modernismoari atxikia.

Bestalde, gerra aurreko garaian hainbat sariketa antolatzen ziren, eta horietan korrante literario horiek agertzen ziren. Hor joera desberdinen arteko borroka pizten da. Epaimahaikoen artean zein joeratakoak nagusitu, balantzak hara egiten zuen. Eta hor garbi dago Orixe, kasu batzuetan, alboratua izan zela. Sariketara aurkeztutako haren poesia batzuk antolatzaile nagusiak saskira botatzen zituen, edo, saritua gerta ez zedin, argitara ematen. Orduan ere zentsuraturik bazen. “Factotum” deitzen zioten Tolosakoari.

Garai hartan, iritzi ildoak landu eta estetikari buruzko saiakera bat egin zuena, Orixe zen. Egia da, zeharka bederen, eztabaidaren ildotik, Lauaxetak ere estetikari buruzko bere iritzia plazaratua zuen artikuluan batean. Aitzolek ere idatzi zuen estetikaz,

Jakintza aldizkarian oker ez banago. Hauek *Testu hautatuak euskal estetikaz: Aitzol, Lauaxeta, Orixe* liburuan datoz bilduak. Hiru bide ziren, elkarren osagarri baino gehiago aurka, agian, beren norakoa markatzen zutenak: nor herri literaturari lotuago, Aitzol bezala; nor klasizismoari, Orixe bezala, nor sinbologia modernistari, Lauaxeta bezala. Orixek nolabait literatura eta poesia ederra lehenesten zuen, goiko literatura, landua, gaur egun elitekoa deitzen dena. Hori zen Lizardi eta Orixeren bidea.

Orixe gizonaren berri ematen hasi dugu jarduna. Aldiz, zer berri eman geniezaioke Orixeri mende berri honen hasieran?

P. IZTUETA: Oraindik ere Orixe bizi dela. Nik ez dakit zein neurritan bizi den, baina ziur nago bizi dela gaurko literaturan, beharbada ez berak merezi duen hainbeste. Bestalde esango nuke Orixe bizi dela bere sorterrian, Orixan, bizi dela Uitzin, bi herri horietako harremanak iraunkorrak direla. Pozten naiz han eta hemen poesia eta bertso sariak sortu dituztelako Orixeren izenean. Hau da, Orixe jaio zeneko mende luze bat pasa da eta oraindik bizi da euskaldunen memoria kolektiboan.

J.M. ARANALDE: Haren Mariaxentziren argiak argi egiten segituko duela beti. Mitxelenak egin zuen iragarpena gogoratuko du: “Harrimenez eta espantuz” egingo duela argi geroaren ere Orixek.

KOADROAK

Orixe eta Lizardi

“Orixeren neurria erakusten duen pertsonaia historikoa Lizardi da. Zeinek esan du Lizardirengatik –gurean ez du kiderik, nekez duke garailerik–? Orixek. Eta aldearantziz, zein da, besteak beste, Orixe aurrera ateratzen

duena? Lizardi. Zeinek eskaini dizkio Lizardi ederrari hiru poesia, hiru poesia paregabe, euskal literaturan? Orixek. Bikote horren elkarrekiko harreman hori da, elkarren onespén hori, Orixe zer literato mota den garbierik uzten duena, bere obra aztertzen hasi aurretik”. *Jose Mari Aranalde*

Harritzekoak

“Herri honetan harrigarrikeriak gertatzen dira eta Orixerekin horrela izan da, bereziki. Adibidez: Imanol kantariak zerbait espirituala behar zuela, eta Orixek itzulitako San Juan de la Cruzen testuak kantatzen ditu. Non daude Orixeren orijinalak?

Telletxea Idigoras historialariak Kardaberazen gauzatxo bat argitaratu, eta sarreran, jesuita eta mistikoa kontraesana ez ote den esanez hasten da. Ez du inon aipatzen Orixerentzat San Inazio mistikaren gailurra dela.

Aita Villasantek –nik asko maite nuen hark– Jokin Zaitegi zenari galdetu omen zion Orixe mistikoa al zen. Nik Lizardi poeta al zen ez nion inori galdetu, ez Orixe poeta al zen ere. Erljio gauzetan Villasante bezalako espezialista batek hori galdetzea... Lotsagarria! Horrelakoa da herri hau”. *J. M. Aranalde*

IRITZIA

PATZIKU PERURENA

Bere hitzaren eske, Orixe

Orixeri buruzko iritzi eske maizexko datorkit jendea atzenaldian.

Nik ordea, nahiago nuke, Orixez hainbeste iritzi ikusi baino, haren idazlan guziak taxuz bildu, beti ere iturririk fidagarrienak erabiliz, eta gairik gai sailkatuz, modu eskurreraz eta eragingarri batean aterako balira, euskal dibulgazio sare guzietan ahal den oihartzunik handiena emanez.

Orain arteko bilketa lanik handiena, *Idazlan guztiak*, Paulo Iztuetak egina da, baina itsuak ere badaki, apalak apaintzeko edo gutxi gehiagarako egin zuela Eusko Jaurlearitzak gastu ikaragarri hura. Nik neronek Joxemari Aranaldereen eskuerakutsi estimagarri hari esker eskuratu baintuen, bost liburukote beltz handi haiek.

Baina, haietan ere, ohartu baldin bazineten, liburukoterik handiena Paulo Iztuetarena zen, *Orixe eta bere garaia* izenekoa, alegia. Ulertzekoa da Pauloren obsesioa: Orixeren alderik zakarrenak (integrismoa eta abar) bere garaia aztertuz zuritu nahiarena alegia. Nik hala ere, 1.500 orriko obsesio moderno horren ordez askoz pozikago leituko nituen, Orixeren gutun guziak.

Orain berriz, beste hiru liburu atera dizkigu Iztueta jaunak Orixeri buruz. Neurri handi batean, lehengo liburukote haien puska kopiatuak baino ez direnak. Esate bateko, nahi duenak konpara bitza, lehengo V. tomoko *Bizi urratsak* eta oraingo *Orixe gaitzetsia* liburuan esaten direnak; funtsean gauza bertsuak dira, oraingo edizioari erantsi zaizkion lekuan lekutik pasaerako argazki eta inpresio interesgarriak izan ezik.

Baina, berriro diot: zergatik ez dira argitaratu nahi *Orixeren gutunak*¹ Deusek emanen ote liguke haren gizatasunaren berri gutun sail horrek baino hobeki? Edo

¹ 2006ean argitaratu berri du Utriusque Vasconiae argitaletxeak *Orixe. Gutunak (1917-1961)*, Paulo Iztuetak berak eta Ibai Iztueta semeak paraturik.

esklusiban gorde nahi ote ditu norbaitek, Orixeren beste hainbat idazlan, dokumentu, eta argazkirekin batera?

Ez al da Orixeren dokumentu bilketa hori, Eusko Jaurlearitzaren diruari esker egina? Beraz, diru publikoz egina bada lana, zergatik ez ipini dokumentu horiek edozeinen eskura? Gizalegea nonbaiten huts egiten ari ote den nago. Beharrik ez dagoen begira, diruz beti urri samar ibilia zen Nikolas zorrotz hura!

Hainbeste gauza esan liteke Orixeri buruz! Esate bateko, erlijiosoa zela arrunt; superstizioso hutsa, alegia. Izan ere, nola izan inor sinesle edo deusen maitale, edo poeta, aldez edo moldez, superstizioso izan gabe. Entenitzen?

Konparazio batera, Joxemari Aranaldiari esandako “amets egina dut infernura kondenatua nagoela” hori, Orixeren beste alderdi gaitz askorekin bezain ongi lotu liteke haren izenarekin, Europa guzian sinu gaitzeko zen Mikolas harekin, alegia. Beregan haragitua ikusten baitzuen Orixek, hirutasun santuaren miraria bezalatsu. Zenbat holako kontraste hunkigarri ez ote zituen barrenbarrendik bizi izandu Orixek, haur (poeta?) baten lilura zinezkoarekin? Alderdi hori kenduz gero, zer litzateke Orixe? Holako hamaika halabehar ilaunek zinez hunkitze eta minberatze horrek egiten baitu Orixe poeta; eta jakintza klasiko zuhur guzien errauspeko zintasan inoxxo horretxek ematen, duen indar liluragarri guzia.

Holako mila orixemin hunkigarriz handik eta hemendik hornitutako biografia inpresionista labur edersumaz trinkotutako bat leitu nahiko nuke, Iztueta baino Nikolas zale poetagoren batek idatzia.

Huts nabarmen hori dela medio, nik uste Orixek hunkitu gaituenok ere, ez dugula ongi ezagutzen taigabeko iritzi emailde dugun Nikolas minbera hori. Eta nahi nolako izanik ere, gizonak berezko duen ugaritasun kon-

plexu hori ongi ezagutu gabe, alferrik ari gara haren bizkar iritzi pilaketan?

Mikolas izan edo Josu, nik behinik behin gero eta nahiago dut bat bederarena zuzenean jaso, bitartekoen egoa eta diru-gosea dela medio ziliki zalakatutakoa baino. Betoz lehenbizi, Orixeren ixilpeko hitzak, beren zinezko neurri eder minberakor horretan, eta gero gizen eta etzan bedi, nahi duena, haien itzalpean.

IRITZIA

PAULO IZTUETA

Orixe dela-eta

Mikel Asurmendiren esanera, 2004ko otsailaren 20an, *Orixe saiogilea*, *Orixe auzitan* eta *Orixe gaitzetsia* argitara berriak nituela eta, orokorrean Orixez mintzatzekoak ginen Jose Mari Aranalde, Patziku Perurena eta hirurok Donostiako Herri Irratian. Tamalez, Perurenari Donostiaratzea elurrak galarazi omen ziolako, Aranalde eta biok bakarrik aritu behar izan genuen.

Elkarrizketa zuzendu zuen kazetariak berak esan zingun bere garaian irratiz emandako solasaldia *Argia* aste-karian argitaratzekoa zela eta, iragarri bezala, 2004ko apirilaren 11ko zenbakian agertu da. Bertan gure elkarrizketa ez ezik, Patziku Perurenaren iritzi-artikuluua ere irakurri ahal izan dugu. Nahiago izan du nonbait ahoz esatekoak idatziz zigilatuak utzi. Batzuetan zeharka besteetan zuzenago, hainbat salaketa leporatzen dizkit, besteak beste, gizalegez jokatu ez izana, Orixeren “hainbat idazlan, dokumentu eta argazki” eta, batez ere, haren “gutun guziak”, Euskal Jaurlaritzak luzatutako diruz bilduak izanda, argitara eman nahi izan ez omen dudalako.

Horrela jokatzean, noski, nigan “egoa eta diru-gosea” besterik ez du ikusten. Beste aldetik, nire lana, Orixe eta bere garaia, “obsesio” hitzarekin kalifikatzen du. Nire pertsona eta nire lana, biak leku berean sartzen ditu, bereizi beharrekoak maila berean jarriz eta dena nahastuz.

Ohar batzuk egin nahi ditut Patzikuk esandakoaren gainean, nire ustez ez baitira denak isilik pasatzen uztekoak.

1. Maila pertsonalari dagokionez, esan dezakedan lehen gauza da, Patziku Perurenaren bizitza pribatuaz ez dakidala fisik, askoz gutxiago haren banku-eragiketez eta bestelakoez, harena idatzietatik edo mahaingurukoren batean entzunda baizik ez baitut ezagutzen, eta hori interesatu izan zaidan neurrian soilki. Eta alderantziz, zein ondorioetara iristen den ikusita, esan dezaket berak ere ni ez nauela ezagutzen eta, beraz, nekez jakin deza-keela *Orixeren Idazlan Guztiak* bildumaren prestaketa-lanak eta diru-baldintzak nolakoak izan ziren. Niri dagokidanaren berri nahi duenak, berriz, aski du galde-tzea, ahal dudan neurrian erantzungo diot eta. Eskea gizalegez egina bada, are pozikago oraindik, esker onez. Nolanahi ere, euskal kulturarako luzatzen den diru publikoaren erabileraz nik ere baditut neure kezka handiak, baina horien argitzeko hobe luke, nire atean jo ordez, hautsak beste nonbait harrotzea. Zuzenean iturri fida-garrietara joanda, han arakatuz jakin lezake azienda publikoarekiko nire zorren berri.

2. Patziku Perurenarekin bat nator dioenean *Orixeren Idazlan guztiak*-ek, apalak apaintzeko baino zerbait gehiagorako balio beharko lukeela. Dauden bezala argitaratuak egonda, egia esan, ez dira batere eskuragarriak irakurleria zabalarentzat. Nik neuk ere bere garaian nahiago izan nuen *Orixeren Idazlan guztiak* bilduma alde batetik eta hari buruzko beste biak –*Orixe mendeurrena (1888-1988)* eta *Orixe eta bere garaia*– bestetik, aparteko

edizioetan argitara ematea, bakoitzari berea emanaz, baina argitaratzaileen interesak nagusitu ziren eta ezinezkoa izan zen. Baina harrezkero zokoratua egon delako, horregatik, hain zuzen, argitaratu nahi izan ditut horko hainbat lan, birmoldatuta eta berrikusita, Utriusque Vasconiae argitaletxearen bidez, modu errazago batez irakurleengana hel daitezten.

3. Idazleak irakurlea du bere bezeroa liburuen merkatuan. Epailea ere bai, hein batean, gustatzen zaion ala ez berak erabakitzen baitu. Orixen eta bere garaia obra, Orixeren alderik zakarrenak (integrismoa eta abar) bere garaia aztertuz zurrizko asmoz idatzitako “1.500 orriko obsesio moderna” dela esatean, bistan da iritzi-emaileak ez duela liburuan gustuko gauza handirik aurkitu. Liburu horretan, alabaina, ez dago batere zuriketa-lanik. Nire Orixerenganako hurbiltasuna legoke egotekotan; baina Orixeren iritziak, jarrerak, balio literarioak edo beste zernahi, era batera edo bestera mozorroturik, horrelakorik ez dago. Kontrakoa uste bada, puntuak zehaztu eta datuak ematea da jokabide zuzena. Eta bakarra. Orixeri buruzko lanarekin hasi nintzenean, ez orain, duela hogei urtetik gora baizik, helburu oso zehatza neukan asmotan “berdin-berdin zait obsesiboa deitu edo bestela”, eta zen Orixeren eta honen sorkuntzaren gainean irakurketa soziologikoa egin ahal izateko tresnak eskaintzea eta, bide batez, orduko literatur kritikiko aurreazale porrokatuek klasizismo, kontserbadurismo eta folklorismoaren zuloan ondo zokoratua zeukaten hura berreskuratu eta zegokion mailan jartzea. Horretan tematu nintzen, eta horretan segitzen dut. Zuzentzekorik baduke; hala ere, bere osotasunean eusten diot muinari. Zilegi bekit, bada, orain gizarteratzeko aukera dudan honetan, sailka eta orraztuta ateratzea.

4. Bestalde, bada “Nikolas zale poetagoren batek” idatzitako biografia irakurri nahiago duenik. Bego. Gogo

ederra da hori. Poetago edo ez, neuk ere gustura irakurriko nuke. Eta ez Nikolasena bakarrik; baita euskaraz jardun duten beste hainbat idazle nagusiren edozein biografia ere. Orain arte euskal letretan egin den apurrari erreparatuta, jakitekoa izango litzateke zenbat euskal idazleri eman izan ote zaion nik Orixeri eman diodan neurriko edo antzeko biografi trataera. Nolanahi ere, Orixerenak edo ez, poetikoak edo ez, gure historiako idazleen biografia ederrak dastatzeko gogoz nago.

5. Azken batean, Orixeren “gutun guziak” argitaratzea da arazoa, harena zuzenean dastatua izan dadin, inoren manipulazio-beldurrik gabe. Bidezko xedea, nik ere, beste askoren antzera, noizbait kunplitua izatea desiratzen dudana. Baina hitzak haizeak eramaten ditu obraz betetzen ez badira. Dezente ditut bilduak, biltzekorik izanen da ziurrenik, eta, bilduma ahalik eta osoena izan dadin, eskertzekoa izanen litzateke argitaratua ikusi nahiko lukeenak han eta hemen biltzen saiatzea. Bildu eta gero ere, norbaitek prestatu beharko du argitaratzeko. Baimenak lortu ere bai. Arlo honetan orain arte egingakoa, salatzaileak besterik uste badu ere, desinteresatuki egina izan da, egoari hegorik erantsi gabe, alegia. Kasu batzuetan, gainera, ordainetan zartako majoak hartuta.

2004/Azaroa

LITERATUR BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANAZ

Solaskideak: Juan Luis Zabala, Iban Zaldúa eta Harkaitz Cano.

“Literatur belaunaldiak” gaia joan deneko bi urteetan plazaratu da han-hemenka, prentsa eta hedabideetan bereziki. Literatur belaunaldien inguruko auzirik ba ote dagoen jakin nahi izan dugu. Iban Zaldúa idazlea “gaia plazaratu duen idazleetako bat” gonbidatu dugu mahaira. Juan Luis Zabala idazlea, berriz “1963an sortutakoa”, “belaunaldi galdua” deitu izan denaren ordezkari gisaedo. Azken belaunaldiko Harkaitz Cano idazlea aurreko bien ondoan eseri da. Belaunaldien arteko auzi-mauziaz jardun gara abiapuntuan. Hitz joko erraza eginez, belaunaldien arteko zauririk ba ote dagoen ere lerratu zaigu hitzetik hortzera. Auziak auzi, solaskideen aburuz ez dago zauririk. Ez da horrenbesterako, ezta gutxiagorik ere.

Auzirik ba al dago literatur belaunaldien inguruan?

IBAN ZALDUA: Literatur belaunaldien arteko auzirik? Egon dira eztabaidatxo batzuk, baina berehala eten dira; edonola ere, euskal literaturak duen eskala kontuan hartuta, nekez hel daiteke ezer “auzi” mailara gurean. Gainera, eztabaida horietaz ia-ia bakarrik idazleak jabetu dira, eta

ez hainbeste irakurleak, nik uste –hori baldin eta sinesten badugu, Jorge Gimenez editorearen iritziazen kontra, idazleen eta irakurleen komunitatea ez direla bat eta bera–. Hots, gaia auzi mailara igotzea gehiegi iruditzen zaidala.

JUAN LUIS ZABALA: Auzirik izan gabe, modu espontaneoan azaldu den gaia da. Idazleen artean oihartzuna izan duen gaia da, baina, ziur asko, ez du jende asko apasionatu. Dena dela ere, artikulu bat hemen beste bat han azaldu ondoren, gaiaren inguruko gogoeta zenbait bildu eta nolabaiteko eztabaida ere izan da. Belaunaldiez ari garenez gero, lehenik eta behin komeniko litzateke belaunaldien ezaugarri edo zantzu batzuk aipatzea: 1963tik –data enblematikotzat joa, Xabier Mendiguren Elizegiren artikulu batez geroztik– 1965era bitartean jaiotako idazleak “belaunaldi galdua” deitu ohi da. Ni belaunaldi horretakoa naiz. Belaunaldi horretako askok filologia ikasi genuen, eta gutako asko lerratu ginen literaturara. Hurrengo belaunaldian askok kazetaritzara jo zuten, eta hauen ondorengo askok bertsolaritzaren eremura. Belaunaldi bakoitzak bere ezaugarriak ditu, nahiz eta hori baieztatzen duen azterketa soziologikorik ez dagoen. Ezta egin beharrik ere ziur asko. Dena den ere, gure artean jarduteko behintzat balio du.

I. ZALDUA: Kontuak badu jolasetik zerbait, nik uste, eta hori ez da literatura arloan gutxietsi beharreko gauza. Borgesek anekdota gisa kontatzen du nola 1920ko hamarkadako Argentinako literatur eztabaidarik handiena, Boedo eta Floridako taldeen artean, asmakizun hutsa izan zen, hein handi batean “idazleak biltzen ziren kafetegien izenak ziren haiek, eta literatura “herrikoia” baten eta “elitistago” baten arteko eztabaida izan zen, funtsean”; Frantzia eta Europan literatur taldeak eta halako gauzak zeudela, eta Argentinako literatura mo-

dernizatzekeo halako zerbaiten beharra ikusi zutela” eta Borgesek barre egiten du eztabaida horren inguruko hausnarketa burutsuak egiten zituztelako, urte batzuk geroago, Argentinako literatura-katedradunek. Ez dut esan nahi horrekin gure “belaunaldien” auzia fiktizioa denik, gauza batzuk esplikatzeko dituela uste baitut, baina nik ez nuke duen alde ludikoa alboratuko...

HARKAITZ CANO: Belaunaldien gaia “saltsa” sortzeko bali dezakeen gaia da. Ni bereziki ez nau apasionatzen. Berdin-berdin esan dezaket belaunaldiak badirela edo ez direla. Hau da, une honetan defendatu dezaket belaunaldiak badirela, eta beste une batean ez daudela. Ez zait hainbeste inporta, alegia. Literatur belaunaldia ez da data edo egun zehatz batzuetan jaio izandako idazle multzoa. Adibidez, joan den mendeko “27ko Espainiako literatur belaunaldia” Luis de Gongora poetaren omenez elkartu zirelako, haren inguruko aitortzea egin zutelako edo erreferentzia batzuk elkarrekin hartuta aritu zirelako osatu zuten belaunaldia bezala gogoratzen da, eta haien artean bazeuden Iban eta Juan Luis eta nire artekoa baino adin koska handiagoa zutenak. Datak edo egunak baino, ezaugarri horiek egiten dute belaunaldia. Belaunaldi horiei geroago jartzen zaizkie etiketak eta abar. Askotan pentsatzen dut ea zergatik ez nagoen Juan Luis eta Ibanen belaunaldi berean, ze koska estetiko edo literariok banatzen gaituen. Sarri, gertuago sentitzen naiz beraien literaturatik nire adineko idazleen edota gazte-xeagoak diren idazleen literaturatik baino. Beraz, ni ere “tropela” deitu izan den belaunaldi horretan egon naitenke. Juan Luis eta Iban eta nire artean ez dut ikusten horrenbesteko alderik.

Saltsarako gaia badago. Eta gai hau apailatu duen “sukaldaria” Iban Zaldua izan al da, akaso?

I. ZALDUA: Ez nuke hori esango. Nik orain urte bat Berrian artikulu sorta bat idatzi nuen, Jon Alonsok *Argian* idatzitako bat irakurri ondoren. Berak esanak eta nik ordurako eginak nituen gogoetak hausnarketarako parada eman zidaten gaiak are gehiago hausnartzeko, eta kontua gehiago korapilatzeke, ziurrenik, Alonsok modu orokorrago batean erabiltzen baitzuen “tropelaren” kontzeptua, eta nik areago lotu nuen belaunaldi batekin, Juan Luisek aipatu duenarekin, eta bertako askoren artean sumatzen nituen frustrazio zantzuekin; harrezkero beste batzuek ere kaleratu dituzte beren ikuspuntuak. Nik gaia jolas bat bezala hartzen dut, hein batean, lehen aipatu bezala. Literatura ikuspuntu ezberdinetatik aztertu daiteke: generoen ikuspuntutik, edo errealismoa/fantastikoa ardatza kontuan hartuz, edo are idazle asmatikoak/ez asmatikoak bereizketatik abiatuta, Eider Rodrigezek proposatzen zuen bezala. Guztiek dute oinarri bat, eta guztiek azaltzen dute literatur munduaren alderdiren bat edo beste. Orduan, zergatik ez egin azterketa belaunaldien ikuspuntutik ere?

Hirurok garai ezberdinekoak zarete gutxi-asko eta ez duzue oker ikusten belaunaldi bereko idazleak izendatuak izatea. Gaiak idatzi duen beste idazleren batek esan duen arabera, ez da gehiegi sinetsi behar literatur belaunaldiei buruzko sailkatzearen inguruan esandakoak.

J.L. ZABALA: Gai honen inguruan hitz egitean hedabideak aipatu behar dira ezinbestean. Azken urteetan hedabideen zeregina asko zabaldu da, eta idazleak sarritan agertzen gara berauetan, lehen baino askoz sarriago behintzat. Baina, hedabideetan idazleen lanen irakurketa nahiko azalekoa egiten da. Neurri batean logikoa dena. Prentsa edo hedabideak ondo ezagutu gabe hurbiltzen dira, kasurik gehienetan, idazlearengana. Neurri batean, idazleen sailkatzea edo bereizketa ez dute egin kritikoez,

idazleek edo irakurle finek, kazetariak baizik. Kazetaria naiz eta ezagutzen dut dena sailkatzeko gure joera, gauzak bere tokian jarri beharra. Orduan, idazleak bere tokian jarri nahi edo behar hori hedabideetatik etorri dela esango nuke. Horregatik, Harkaitzek esan duen bezala, bera gertuago dago guregandik, eta oso gertu egon daiteke halaber Iñigo Aranbarri edota Edorta Jimenezengandik. Hedabideek bere belaunaldian sartzen dituen idazleengandik baino hurbilago dago nik uste.

“Tropela” hitza azaldu da tartean.

J.L. ZABALA: Jon Alonsok aipatu zuen hitz hori. Gai honen inguruko gorabeherak deskribatzeko erabili zuen hitza da, Juanjo Olasagarrek ere aipatu zuen. “Tropela” hitza zehaztu aldera pare bat datu: 1963, 64 eta 65eko gure belaunaldi horretatik gaurko idazle gazteengana halako salto bat eman zela sumatu izan da. Belaunaldi hori baino lehenagokoak ditugu Atxaga, Sarrionandia, Lertxundi, Izagirre, Saizarbitoria, Joan Mari Irigoien, Joxe Austin Arrieta. Harkaitzen belaunaldiarenganako salto moduko bat eman zen, artean idazle poltsa bat geratu zelarik. Hori da belaunaldi “tropela” deitua.

I. ZALDUA: Edo “belaunaldi galdua” –uste dut Felipe Juaristik erabili zuela, inoiz, izendapen hori–.

J.L. ZABALA: Solasaldiaren sarreran aipatutako “zauri” hitza esan gabe, arrangura moduko bat dagoela esango nuke. Tartean motibo asko egon daiteke beharbada. Batetik, errekonozimendu edo aitortza jaso dutenak gure aurreko idazle horiek dira. Nire belaunaldiak ez du jaso hori, eta ez dauka halaber gure hurrengo belaunaldi gazteak jaso zuen lilura, gaztearenganako lilura, eta hedabideen arreta... Bestetik, gure belaunaldiko idazleen literatura, oro har, ez da horren erraza izan, ez hain arina. Gurean sentitu da, nola esango nuke...

... *frustrazio moduko bat*.

J.L. ZABALA: Ez dut uste horrenbesteraino iritsi denik.

Ibanek "frustrazio" hitza aipatu izan du bere gogoetan.

I. ZALDUA: Beno, zer edo zer badago, ezta? Garai batean hainbat jenderen deklarazioak izan ziren, modu batean edo bestean halako sentimendu batekin lotu daitezkeenak, eta horren oihartzuna jasotzen zuen Alonsok bere artikuluan; nik halako zerbait antzeman nuen, garai hartan, zenbait idazleren deklarazioetan: Aingeru Epaltza, Xabier Mendiguren, Aitor Arana, Jokin Muñoz edo Karlos Linazasororeneta n... Eta gaur egunera etorritan, Felipe Juaristiren adierazpenak ere hor daude: *Airezko emakumeak* bere azken eleberriari ez zaiola kasu nahikorik egin esan du; *Soinujolearen semea* liburuaren itzalean geratu ote den inpresioa aieratu du. Orain, Euskadi Sariak eman eta gero, igoal *Bizia* lorena gehitu beharko dio Atxagarenari. Niri hori esanguratsua egin zait; azken urteetan horrelako gehiago ere izan da. Eta dena hasten da kazetariren batek idazleari "zer moduz zure azken liburuaren harrera?" galdetzen diolako. Jakina, belaunaldi horretako idazle guztiak, kasurako, frustratu batzuk direla esatea eta orokortzea ez da erreala ziur asko, baina badago erresumin puntu bat.

Juan Luisek aipatu duenaren harian, batetik, esango nuke, 63ko edo tropeleko belaunaldia delako idazle gehienek, oro har, beren burua idazlea kontsideratzeko lotsa handiagoa izan dutela, aurreko nahiz bere ondoko belaunaldiko idazleek baino; Pako Aristik duela gutxi antzeko zerbait adierazi du, euskal idazleok orokorrean hitz eginez, nik gehiegi konpartitzen ez dudan harrokeriapuntu batekin baina –eta frustrazio-sentimenduan sakonduz, noski: idazle gaixok ez gaude nahikoa errekonozituta gizarte honetan, haren ustez...–. Bestetik, idazleoi idazleak bezala aitortuak eta errekonozituak iza-

tea gustatzen zaigu, beste belaunaldien aldean behintzat, eta ez bada gertatzen, bada, zerbait arraroa antzematen da gure inguruan; izan ere, nire hipotesia da, agerian ez bazeuden ere, espektatiba handiak zituztela “trolelekoek”, eta Atxagaren “belaunaldiak” hor dirauela, kalitate eta sona handiko lanak egiten, eta –Olasagarrek aipatu zuen bezala– famak jauzi egin duela “tropolaren” gainetik, Kirmen Uriberen belaunaldira, nolabait esateko. Gauza asko dira tartean, edonola ere.

Lotsagabeagoak al zarete zuek Harkaitz?

H. CANO: Ez dakit. Beharbada horrek badu zer ikusia hainbat lan eginda eman izanarekin. Guk iritsi orduko bidea landuago aurkitu genuen, nolabait. Adibidez, gure belaunaldikook ez dugu hizkuntzaren zama edo hizkuntzaren normalkuntzarako eta euskaraz zerbait egon dadin euskaraz derrigor idatzi beharraren pisua sentitu. Ez behintzat Iban eta Juan Luisen aurreko belaunaldiko idazleek sentitu zuten zama. Garaiak zirenak zirelako, ziur aski, zuek heredatu zenuten zama hori aurreko idazleengandik, eta guri ere arrasto txikiren bat geratu zaigu –dei diezaiozun txikitasanaren kontzientzia–, dudarik ez: baina gure motorra idazteak ematen digun plazerra eta komunikatu nahia izan dira hasieratik, beste hainbat zemetatik aske ikusi dugu gure burua. Zorte hori izan dugu.

I. ZALDUA: Bai, ziur baietz, haien zama bera ez bazen ere, noski.

H. CANO: Nolanahi ere, badira gure gutxiagotasun konplexu arrastoak agertzen dituzten adibideak: duela hamar urte nobela poliziakoak euskaraz ez izateak motibatzen gintuen nobela poliziakoak idaztera... Jazzari buruz asko dago gazteleraz, baina euskaraz, luxu bat izan da niretzat jazz giroko gauzak idaztea, elur zapaldu gabea zapaltzea bezala. Baina guk modu normalagoan bizi izan dugu hori dena. Ramon Saizarbitoriari bere burua idazletzat

onartzea izugarri kostatu zitzaiola entzun izan diogu sarritan. Niri, aldiz, ez zait idazle naizela onartzea kostatu. Saizarbitoriarentzat Marcel Proust zen idazle, eta kito. Eta niretzako ere bai, baina beste asko, txarragoak izanda ere, idazletzat jotzen ditut. Ez ditut idazleak mitifikatzen, niretzat idazlea ez da zerbait berezia. Idazlea ona, txarra edota erdibidekoa izan daiteke. Nik horregatik ez dut inongo arazorik idazle naizela esateko, idazten dudan unetik naiz idazle. Ez dut hori lotsagabekeriarekin lotzen, inondik ere. Gertatzen dena da orain askoz errazagoa dela esatea “ni idazlea naiz” eta jendeak aurpegi arraroarekin ez begiratzea...

Belaunaldi galdua delakoaren aurreko belaunaldiko idazle batek, Bernardo Atxagak, Espainiako Sari Nazionala jaso zuen. Hurrengo belaunaldiko Unai Elorriagak ere bai. Tarteko belaunaldiko idazleak ez. Gertakari horren harian horientzat Parnaso ez zela esan izan da.

J.L. ZABALA: Lehen hedabideen eragina aipatu dut. Reala futbol taldea jarriko dut adibidetzat. Nik ez ditut Realaren partidak inoiz ikusten, beste erremediorik ez bada behintzat, taberna batean harrapatuta nagoelako-edo (irriak). Baina, nahi gabe ere, badakit Kovacevic golik ezin sartuta eta bere onetik irtenda dabilela, badakit Nihatzen bizitasuna erabakigarria dela batzuetan, badakit Riesgo Westefeld baino hobea dela. Futbola ikusi gabe, nolabait esanda, badakit nola jokatzten duten futbolariak. Hedabideen kontsumitzaileen eta idazleen artean ere hori gertatzen ote den inpresioa daukat. Beste neurri batean nahi baduzue. Baina, oro har, idazleari buruz gehiago jakiten da hedabideek esandakoarengatik, irakurriarengatik baino. Eta gure belaunaldiak halako zorte txar moduko bat izan ote duen nago. Hortik frustraziora pauso handia dago. Ez dugu inoiz uste izan –oso gartetan ez bada izan– euskal idazle izatea Ez-Dakit-

Nolako-Parnasora iristeko modua zenik. Ez dugu idazten inongo parnasotan sartzeko, gustuko dugulako edo barruak eskatzen digulako baizik. Zoritxarrez, hedabideen beharrak betetzeko idazleen ikuspegi azaleko bat eman izan da maiz askotan.

H. CANO: Ez zait bidezkoa iruditzen Espainiako Sari Nazionalaren koordenadak frustrazio edo frustrazio ezaren neurgailutzat hartzea. Nora eta zeri begira gaude? Badakigu –edo imajinatzen ahal dugu– zer diren sariketak. Denok dakigu zenbat kasualitate eta karanbola eman behar diren honek, horrek edo hark irabazteko, edo idazle berberak bi aldiz irabazteko eta beste batek inoiz ez irabazteko. Orduan, hori absurdua iruditzen zait. Uler-tzen dut irakurketa hori egitea:

Atxagarengandik Elorriagarengana salto handia eman zen, beste inork sari hori irabazi gabe. Baina bien bitartean badakigu saria merezi duen idazle bat baino gehiago dagoela. Dena dela... ezin dugu saria noiz emango dioten zain egon idazle bati bere literatura maite dugula aitortzeko! Ez guk, eta ezta medioek eta kritikoek ere. Eta, bestalde, gerta liteke datorren urtean belaunaldi horretako idazle batek saria jasotzea.

I. ZALDUA: Bai gerta daiteke. Baina atera daiteke bestelako inpresioa ere, bestelako ondorioa, subjektiboa betiere. Pako Aristik Atxaga fenomeno “antena paraboliko” moduko bat zela esan zuen garai batean: harentzat, Atxagak saria jaso izanak ez zuen balio, esan izan zen bezala, Espainian euskal idazle gehiago plazaratzeko, aitzitik, kontrakoa gertatu omen zen, bere ustez, eta kexu ageri zen.

H. CANO: Hori horrela izan zen, beharbada, aurreikuspen gehiegi zabaldu zelako.

I. ZALDUA: Esan nahi dut, halako gauzak gertatzen direla eta ez zaizkidala harrigarriak edo naturaz kanpokoak iru-

ditzen. Denok dakigu sariak badutela loteriatik zerbait –salbu eta guri ematen dizkigutenek, noski, Kingsley Amisek zioen bezala–, eta, bestalde, sarien kontuari konspirazioaren teoriaren aldaera ezberdinak aplikatzea oso erraza dela, baina ondorioak ekartzen dituzte, besterik ez dut esan nahi. Eta mugarri gisa funtziona dezakete, zer esanik ez.

Belaunaldiak belaunaldi, iazko Euskadi Literatura saria Pello Lizarralde irabazi zuen Larrepetit liburuari esker –eta aurtengoa Jokin Muñozek Bizia lo liburuari esker–. Harkaitzek esan duena berresteko aipatu nahi ditut. Alegia “belaunaldi galdua”ko bi idazlek “errekonozimendua” jaso dutela esateko. Bestalde “saltsa” loditu nahi gabe, datak data, Sarrionandia belaunaldi frustratu edo tropelekoaren garaiko idazletzat jo beharko litzateke, aurreko belau-naldikotzat baino.

J.L. ZABALA: Nire ustez, horiek guztiak oso subjektiboak dira. Iban Zalduaren *Obabatiko tranbia* liburua irakurtzen nuen heinean, egokia iruditzen zitzaidan berak egindako sailkapena, baina beste sailkapen bat ere gustura irakurriko, eztabaidatuko, edota ontzat emango nuke.

I. ZALDUA: Jakina. Edonola ere, galderan aipatu direnak ez dira sari hori jaso duten belaunaldi horretako partaide bakarrak: Aingeru Epaltzak eta Felipe Juaristik ere jaso izan dute, adibidez.

J.L. ZABALA: Alegia, Sarrionandia non sartuko nuke nik? Bada ez dakit. Harkaitzek esan bezala, adinak baino gustuak eta estiloak egiten du idazlea.

I. ZALDUA: Idazleen sailkatze hura zalantzan jarri zuena Mikel Hernandez Abaitua izan zen, *Berriako* artikuluan batean. Berak Sarrionandia 80ko hamarkadan sailkatu zuen, “Tropeleko”ekin batera; orduan hasi ziren plaza-ratzen lanak belaunaldi horretakoak, orobat. Sailkape-nekin, jolas parte dutenen aldetik, epealdi historikoekin

bezala gertatzen da. Batez ere, nolabait esateko, garai horretako bihotzera jotzen denean dira baliagarrien –baliagarritasunik aitortzen badiegu behintzat–. Baina margenetan edo mugetan dauden gertakariak lausoagoak geratzen dira. Noiz bukatzen da Erdi Aroa? 1453an, Konstantinopla otomandarren esku erortzen denean? 1492n, Kolonek Amerikarekin topo egin zuenean? Eta abar. Honekin gauza berbera gertatzen da. Nik sailkape-na egin nuenean, Sarrionandia aurreko belaunaldian sartu nuen, “dinosaurioenean”. Hasier Etxeberriak *Bost idazle* liburuan ere belaunaldi horretan sartu zuen, nolabait, nahiz eta haiek, jakina, ezeztatu belaunaldi edo talde berekoak direnik “eta badute arrazoia ere, noski”. Pott bandako kidea izan zen, gainera, eta agian hori da esanguratsuen kontu honetan; Harkaitzek 27koen inguruan lehenago esan duen bezala, belaunaldia ez da kontu kronologiko hutsa. Baina egia da, gauza erabat eztabaidagarria da. Abaituaren ekarpena ez da batere baztergarria, aitzitik, oso ondo dago.

Zu, Harkaitz, 1990ko hamarkadan plazaratutako idazleazara. Nola moldatu du joko zelaia zure belaunaldiak?

H. CANO: Joko zelaian moldatze hori gure inguruarekin lotuko nuke, gure tresna eta bitartekoekin. Hizkuntzarekin, adibidez. Kakotxen artean betiere, hizkuntza “normalizatuago” bat jaso dugu. Ikastolako umeak gara gehienak. Hedabideen eraginarekin ere lotuko nuke. Lehen hedabideak ez ziren hainbeste, ezta hain ondo artikulatuak ere. Idazleek beren zutabeak edo tribunak dituzte gaur egun. Gutako hainbatek gidoigile bezala lanerako aukera izan dugu, aukera bereziak izan ditugu, alegia. Ez dut uste gu aurrekoak baino zorrotzago garenik, edo lotsagabeago, eskura baliabide gehiago izan dugula baizik. Iban eta Juan Luisen kasuetan, adibidez, idaztearekin batera irakaskuntzan eta kazetaritzan ari dira. Garai batean, idazlearen hau-

tua kazetaritzan edo irakaskuntzan zegoen askotan, ogibidea hautatzeko orduan. Guk aukera gehiago eduki dugu. Beste modu batez jardun dugu hedabideetan eta hedabideek ere arreta gehiago jarri dute gudan.

I. ZALDUA: Bestalde, azkeneko 50 urteetan gizarte kapitalistak gaztetasunaren aldeko aukera nabarmena egin du. Kontsumo esparrua izugarri zabaldu da, eta gazteekiko lilura, sustrai historiko sakonagoak izanik ere, handitu da azken garaiotan. Gaztetasunaren galera lantu bat bezala bizi da gizarte honetan; gaztetasunaren luzapen nahia handitu da. “Tropelako” belaunaldia argitaratzen hasi zenean irudipena daukat gazte izate horri ez zitzaio- la horrenbesteko garrantzia ematen eta, edozein modutan, eta salbuespenak salbuespen, belaunaldi horretako idazleek ez diote eutsi beti-gazte irudi bati. Hurrengoan, Lubaki Bandatik abiatzen den horretan, ordea, uste dut gaztetasuna bera balio edo ezaugarri nagusienetako bat bezala erabili dela, ez dakit zein puntutaraino idazleen aldetik, baina bai, ziurrenik, komunikabideen, argitale- txeen eta kritikarien aldetik; bestalde, promoziorako do- hain eta lan egiteko gogo handiagoak erakutsi dituztela esango nuke, eta baita idazlea bera pertsonaia bezala garatzeko abilezia berezia ere.

Nik nire artikuluetan aipatu izan dut nola oraintsu arte, Euskal Literaturaren Historia gorabeheratsuan, arrazoi ezberdinengatik, ohikoena belaunaldi-ordezka- pena izan zela: belaunaldi berriak aurrekoa anulatu bezala egiten zuela. Eta “belaunaldi galduaren” kasuan ez zela hori gertatu ondorioztatu nuen, esan bezala, espektatiba historiko hori izan zezakeen arren. Hirugarren belaunal- diak –Harkaitzena eta enparauenak–, ez du perspektiba hori izan, ordea, hobeto ezagutzen zuen joko-zelai berria, eta lasaiago joan da agian.

H. CANO: Gaztetasunari lotutako kontu kurioso edo bitxi bat da hemen berehala zahartzen garela, edo zahartzen

gaituztela, hobeki esanda. Espainiako idazle gazteak har-
tzen dituzu, Ray Loriga, adibidez, eta 40 urte ditu. Eta
idazle gaztea da espainiarren eskalan.

I. ZALDUA: Niretzat hori ez da gazte izatea. Gazte-txartela
kadukatzean utzi beharko litzaioke gazte izateari.

H. CANO: Beno, esan nahi dut ikuspegi ezberdina
dagoela Espainian eta hemen. Han badaude 70, 65, 60,
55 edo 50 urteko idazle asko, barra-barra... Adin tarte
bakoitzean idazle mordoska dago. Edo beste adibide
muturrekoago bat jartzeko, aldera dezagun adin maila-
katzea AEBetako idazleekin: hemen, badirudi, berrogei-
ta hamar urteko idazleek betetzen dutela AEBetan Philip
Roth eta Norman Mailerrek betetzen duten lekua.

I. ZALDUA: Hemen ez dago horrelako “esparrurik”, gure
letren historia oso ezberdina izan delako, noski.

H. CANO: Hemen ikuspegia beheraka dator berehala. 20
urterekin poeta kontsokratua bihurtzen zaituzte eta
25ekin ez dakit zer.

I. ZALDUA: Baina beti-gazte, hori bai.

Zuk nola ikusi duzu zuen ondoko belaunaldia, Juan Luis.

J.L. ZABALA: Ez da nik bakarrik esana: nahiko mimatua
ikusten dut. Gainera, neurri batean, aurreko belaunal-
diarekin elkarlanean edo elkarkidetzan. Ez da haustura
izan bien artean, jarraipen bat izan da. Errespetuz eta ger-
tutasunez lan egin dugu. Haustura izatea ere zaila zen,
hausteko ere ezer ez zegoen eta. Azken batean, gure belau-
naldiak, literaturan, ez du inoiz botere ikaragarriarik izan.

*Azkeneko belaunaldia “Urruzuno belaunaldia” izenez
aipatu izan da. Beka sistemak tarteko, ezberdina al da?
Badago beste belaunaldi bat? Beste jauzi bat izan al da?*

J.L. ZABALA: Lubaki Banda izan zen nolabaiteko marka
bat ezarri zuena, ez dakit belaunaldi bati, baina markaren

bat utzi zuen. Lubaki Banda, bestea beste, Urruzuno beka eta sariaren bidez plazatu zen. Urruzunoko lehen partaideak Lubakikoak izan ziren. Gero Lubaki eta Lubakiren ondorengo arteko bereizketarik ez nuke egingo. Azken belaunaldiaren zikloa osatu gabe dago. Oraindik elementu gutxi dago belaunaldi hori osotasun batean ikusteko.

I. ZALDUA: Goizegi da oraindik, nik uste.

Belaunaldiak belaunaldi, bandek markatu dute bidea nolabait. Zigilu bat eman diote. Pott eta Lubaki artean jauzi handi izan zena.

J.L. ZABALA: Talde literarioak izan ziren bestalde, Susaren inguruan, gero Alberdania sortu zutenen inguruan... Ez dute inoiz talde izaerarik onartu, baina harreman sare batzuk edo beti izan dira.

H. CANO: Zumarraga-Urretxuko Hits&Fits, adibidez. Lubaki baino zertxobait lehenago sortua.

Bandek zein neurrian eragin dute belaunaldietan?

J.L. ZABALA: Banden kasuan adina faktore inportantea da. Gazteak idazle kideak bilatzen ditu, gazte garaian aldizkaritarako edo antolatzeke joera izaten da. Gero adin bakartiago bat dator, egiten ari den idazle hori lan finkoago batean ari da, modu bakarragoan aritzen da, nahiz eta harremanak beste idazleekin mantentzen dituen, jakina. Banda leherketa moduko bat da, gazteek literatura deskubritzen dute eta zerbait egin nahi dute.

H.CANO: Lubaki Banda aipatu dugu. Bada gu banda izan baginen, eta ez talde, Pott ere banda izan zelako da. Pott-en erreferentzia oso garrantzizkoa izan zen guretzat. *Henry Bengoa Inventarium* eta Ruper Ordorika tarteko. Idazleak aipatu ohi dira, baina guretzako kantariak eta musikariak ere berebizikoak izan dira. Lubakiren garaian, batzuek *Sarriren* zaleago izango ziren eta beste

batzuk Atxagaren zaleago, baina Ruper Ordorikak denok batzen gintuen... Ruper Ordorika izan ote zen gure Gongora? Akaso bai.

I. ZALDUA: Taldeak, halaber, beren garaiko aldizkariekin lotuta daude. Gaur egun lotura hori apaldu da, eta gauza jakina da aldizkariak panorama literarioko ardatz izateari utzi diotela, 80ko hamarkadan gertatzen zen bezala. Baliteke etorkizunean aldizkarien rol hura Internetek betetzea, hein batean; hor dago, esaterako, Susako web-orrialde itzela, edo BBK (Bihotz Bakartien Kluba), edo Xabier Mendigurenena bezalako blogak, edo J. Bilbatua horren literatur orrialdea, edo Sustatu bera, Nontzeberri eta Sareko Argia ahaztu gabe. Ez du belaunaldiekin zer ikusirik, printzipioz, baina Internetek bide berriak ireki ditu eta gazte jendeak ere harremanak hortik landu ditu. Harkaitzek esan duenez, adinaz gain bere bitartekoek definitzen dute bere belaunaldia, eta aurrerantzean are gehiago definituko dute akaso.

J.L. ZABALA: Lana plazaratzeko bide naturalena hori da. Alabaina, badaude salbuespenak, alegia, aldizkarietan idatzi baino lehen bere lehen liburua plazaratzen duten idazleak daude.

I. ZALDUA: Eta prentsa dago: *Berria*, *Mugalari*, astekariak eta hilabetekariak. Gero eta baliabide gehiago dago.

Aldizkarienak berea egin ote du?

J.L. ZABALA: Ez guztiz. Tokian tokiko fanzineak eta aldizkariak hor daude, unibertsitatetan argitaratzen direnak, bestalde

I. ZALDUA: Baina ez dago lehen zegoen eferbeszentzia. Etorkizuna aldizkari elektronikoaren bidetik etorriko da, edo hori da nire ustea behintzat, merkeagoak direlako hasteko, eta hedapen zabalagoa daukatelako, bereziki gu baino gazteago direnen artean.

Belaunaldiak, bandak, tropelak, taldeak eta taldekide edo gregarioak. Literatura ulertzen ahal da “kirolaren modura” merkatuko legeen arabera?

J.L. ZABALA: Gertatzen da, nahi gabe ere. Realaren kasua aipatu dut eta literaturaren kasuan ere badago halako zerbait. Partidak ikusi edo liburuak irakurri gabe jakin daiteke idazlea nondik nora dabilen eta zer idazten duen. Gero sariak daude. Askotan idazleak ezagutzen dira beren sariengatik. Are gehiago, idazleen artean ere, sarietara buruz ari garenean partida edo txirrindulari lasterketa bati buruz ari garela dirudi zenbaitetan. Adibidez, “hori gertatu ez balitz, agian horrek irabaziko zukeen”. Sarien eta hedabideen zurrunbiloa tartean dago. Dena dela ere, horren azpian inportanteena dago, eta da: literatura. Benetako literatura hor izango da beti. Hori nola iristen den jendearengana? Bada, kirolaren moduan ere iristen eta iritsiko da.

H. CANO: Izan ere, errazagoa da komunikabideetan, literatura ere, lehiaketa modura planteatzea. Hau da, lehiaketa batek daukan morboak lagunduta edo akuilatuta, errazagoa da jendearen interesa testuinguru horretan piztea. Eta ez, adibidez, errealismo zikinak euskal literaturan izan duen eraginari buruzko erreportaje mamitsu baten bidez. Aitzitik, Espainiako Sari Nazionalaren edo Euskadi Sariaren inguruan dagoen polemikak saldu egingo du. Gainera, idazleontzat ere kutsakorra da, dinamika horretan sartzen gara azkenean, nahi gabe. Kirol lehia literaturarekin erkatzekotan, Alan Sillitoeren *La soledad del corredor de fondo* nobelaren izenburua da bururatzen zaidan zinezko lotura bakarra: gurean gregarioaren lanak ez du balio, hemen bakoitza bakarrik doa bidean.

Ba al dago literatura soilarengatik literatura segitzen duen jarraitzailerik?

J.L. ZABALA: Badago. Zein neurrian eta zenbateraino? Kontua da, horietako asko eta asko idazleak direla. Agian portzentaje handiegia da, idazleen alderako desoreka dago. Baina badago idazle ez den multzo polita ere.

I. ZALDUA: Nik uste dut baietz, badagoela, ziurrenik txikia bada ere, eta alde horretatik irakurketa tailer edo txokoen adibidea esanguratsua iruditzen zait, Beterrikoa edo Iruñeko Zaldiko-Maldikokoa bezalakoak, besteak beste. Hor badago mugimendu bat, txikia agian, baina “idazle-irakurle”, “ikasle-irakurle-gatibu” eta “irakurle-militantearen” figura tradizioaletatik haratago doana. Eta badago, geroz eta gehiago, kalitatezko kontsumoko nobela bat –Morillo edo Ladron Arana etortzen zaizkit burura–, beste mota bateko irakurlea egon edo gara daitekeela iragarri dezakeena, agian.

Zerk egiten du belaunaldi bat arrakastatsua izatea, irakurria izatea edo saritua izatea?

I. ZALDUA: Betikoa da, epe motzean sariak eta hedabideek ematen dizute sona eta ospea. Benetan balio duena epe luzera egindako bidea da. Epe luzean liburu onak idaztea da kontua eta ez gaineratikoa. Nor gogoratzen da Espainiako literaturako XVIII. mendeko idazleez gaur egun, esaterako? Eta orduan ez ziren txikiak eztabaidak eta matraka horiek... Historiak hitz egingo du, azkenean; Historiak, eta kritikari kapritxosoren batek edo bestek, jakina: hori da geratuko dena, eta idatzi ditugun gauza gehienez ez da inor akordatuko. Epe luzean –Keynesek esaten duen bezala– denok hilda egongo gara, eta nori interesatzen zaio puntu horretaraino posteritatea? Gu ez gara posteritatean biziko. Horregatik batzuentzat epe laburrean arrakasta lortzeak balio du, nola ez. Gure bizitza pertsonal nīmiño eta mixerable honetan hala gertatzen da. Horregatik daude tirabira horiek, besteak beste.

H. CANO: Idazleen banitateaz ere egin daiteke beste mahai-inguru bat. (irribarreak)

Ba al dago loturarik aipatu ditugun hiru belaunaldi horien artean?

J.L. ZABALA: Idazleok ez gara harremanik gabekoak. Ez dago topaketa fisiko asko gure artean egia esan, modu birtualean topo egiten dugu, elkar asko ikusi gabe. Baina badugu gutxieneko komunikazio bat, komunikabideetan, elkar irakurriz, liburuen bidez. Belaunaldiak ez dira sail bakartiak hala ere, eta esan bezala, belaunaldiek ez dituzte idazleen arteko harremanak estutzen edo finkatzen, literatur gustuek baizik. Elkarri begira aritzen gara, baina gustuen arabera, ez belaunaldien arabera.

I. ZALDUA: Belaunaldiaren fenomenoak gauza batzuk esplikatzen balio dezake; literatura azaltzeko eta egituratzeko modu bat da, besterik ez. Idazleen arteko harremanak zeharkako izan daiteke. Harkaitzek esan bezala, zure belaunaldiko ez den beste batekin gusturago poteatzen duzu edo identifikatzen zara. Argi utzi behar da belaunaldiaz aritzean literaturari buruzko sinplifikazioa egiten dugula; baina pentsatzea, eta baita idaztea ere, sinplifikazio-ariketak dira berez –hori Borgesek esan zuen, baita ere–. Esan bezala, literaturaz jarduteko modu asko dago eta hainbat sailkapen egin daiteke. Belaunaldienak gauza batzuetarako balio du, eta beste batzuetarako ba ez du balioko.

J.L. ZABALA: Baten batek pentsa dezake belaunaldien arteko borroka dagoela. Inork ez dezala hori pentsa “Tropela” edo “Belaunaldi galdua” terminoak aipatu direlako, ezta belaunaldi horretakoak eta beste belaunaldikoak elkarren aurka ari garela. Ez da horrela.

Bake giroan bizi al da euskal literatura? (Hiru solaskideen algarak)

Hiru solaskideen hitzak ondo ulertu baditugu, ba-
keak ez du belaunaldien arteko harremanekin zer iku-
siririk. Belaunaldi zaharragoan edo gazteagoan, edozein
belaunaldian, lagunak eta arerioak izango dira.

2005/Abendua

KONFIANTZA, EDITORE ETA IDAZLEAREN OINARRIA

Solaskideak: Inazio Mujika Iraola, Ur Apalategi

Editorea eta idazlearen arteko harremanak hizpide, Inazio Mujika Iraola eta Ur Apalategi Idirin jarri ditugu parez pare. Euskal literaturan eskarmentua duten bi lagun hauen hitzetan, idazle eta editorearen arteko konfiantza eta gizalegea funtsezkoa dira liburua ondo gauzatuko bada.

Zertan funtsatzen dira idazle eta editorearen abiapuntuko harremanak? Euren arteko harreman soilean oinarrituta?

INAZIO MUJIK A IRAOLA: Idazle eta editorearen harremanaren abiapuntua eta funtsa konfiantza da. Aldez aurretik elkar ezagutzen badute, konfiantza moduko bat daukate dudarik gabe. Idazleak editoreak gauza ederrik aterako dion itxaropena eta konfiantza dauka, baina konfiantza normalean irabazia izaten da, argitaletxe horrek aurretik idazleari beste lanen bat argitaratu diolako. Hori da abiapuntu bat.

Ba al dago harremana bideratzeko araudirik? Prozedurarik ba al dago, alegia? Bi pertsonen arteko hitzetan finkaturiko harremana nahikoa al da?

UR APALATEGI IDIRIN: Zenbat idazle eta argitaletxe eta hainbat kasu, harreman eta prozedura daude, edo egongo dira, ezta? Ondo dakigunez, argitalpen komertzialaren kasua ez da bat ezta bakarra ere. Argitaletxe bakoitzaren argitalpena testuinguru ezberdinetan egiten da, beste modu batez antolatua. Oro har, argitalpena alde batera utzita eta literaturgintzaz ari bagara, eta gutxi gora-beherako merkatu batez ari bagara, badago gutxieneko prozedura bat, errespetatu beharrekoa eta gehienetan errespetatzen dena. Inaziorik esan bezala, konfiantza funtsezkoa da, oinarria da, eta konfiantza eraiki daiteke. Baina ez beti, eta orduan etortzen dira tirabirak edo gatazkak.

Hitza nahikoa da, baina prozedura horiek, hitzarmenean dagoen portzentajea, idazleari ematen zaiona eta xehetasun txiki horiek, idazleari esandako epetan bidaltzea, diru kontuak eta abar, gauzatxoak direnak, printzipioz garrantzitsuenak ematen ez dutenak, oso inportanteak dira. Izan ere, zeregin eta xehetasun hauek ez dira nahikoa konfiantza erabat bermatzeko, baina bai konfiantza desegiteko.

Zein da editorearen eskakizuna? Zein idazlearena? Ez baita berdin hasi berria den idazlea edo obra oparo osatu duen idazlearekin harremana gauzatzea.

I. MUJIKI IRAOLA: Editorea ezer baino lehen irakurlea da –lehen irakurlea–. Nik idazleari eskatzen diot lehen irakurle naizen hau bere testuarekin harrapatzea. Editorea irakurle “gaiztoa” da, edo hala izan behar du, irakurle “gaiztoa”ren rola jokatu behar du. Eta ofizio honetan zenbat eta urte gehiago egin ziurrago nago horretaz.

Editoreak zorrotza izan behar duela esan nahi duzu, beraz.

I. MUJIKI IRAOLA: Bai. Izan ere, batzuetan egia bat garaiz ez esateagatik datozen kalteek harremanetan eragin

ustela uzten dute. Arestian aipatutako konfiantza horretan kritika eraikitzailea ere sartzen baita, eta liburuaren gaineko albiste txarra eman behar denean, eman egin behar da, arrazoitua, baina eman egin behar da.

Horrez gain, freskotasuna eskatzen diot idazle hasi berri bati. Freskotasuna eta gaztetasuna, agian gauza biak bat dira. Hasi berri den gazte batek, nahitaez, irakurri duena eramaten du paperera; eraginez beteta dago, gustatu zaiona kopiatu egiten du nolabait ere. Hori normala da. Ona da, gainera. Baina kontatu, gutxienez, bere hitzez kontatu behar du. “Dena esana dago, baina ez nik esana”. Hori da Angel Erro poetak bere aurreneko poemabilduman olerki batean idatzita utzi zuena. Hori sinetsita idatz dezaten eskatzen diet nik idazle hasi berriei.

Ur, zu zeu idazle gisa, nola ikusten duzu liburua editoreari emate hori? Zer eskatzen diozu?

U. APALATEGI IDIRIN: Perspektiba aldaketa gogorra da. Inaziok badaki, bera ere idazlea baita. Alde horretatik, bi zereginetan edo arlotan ibiltzean, berauen artean dagoen amildegiaz ohartzeko gara. Alegia, idazlearen egoera psikologikoa eta editorearena guztiz desberdinak dira. Idazlea oso artega dago editoreari testua eskaintzen dionean eta gainera, hauskor sentitzen da.

Zuk, Mikel, editoreak zorrotza izan behar al duen galdetu duzu. Bai, noski. Baina hori, gehienetan ez da gertatzen idazle kontsokratuekin, hain dira kontsokratuak ezen zirkuituan inork ez dien esaten esan beharrekoa. Orduan, kontsokratuen hainbat liburu argitaratzen dituzte –ez beti, baina aldian-aldian bai– eta liburu horiek fintze, argaltze edo soiltze on bat beharko lukete. Hau da, ehun bat orrialde kentzea primeran etorriko litzaieke liburu horiei. Gazteen kasuan errazago ematen du hori egitea, idazle gazteak ez dio editoreari nolabaiteko edo hainbesteko errespeturik sorrarazten, eta gainera

ikasteko dago. Izan ere, ez badago erabat ziur bere buruaz –normalean ez dago guztiz ziur bere buruaz edota liburuaz–, orduan aholkua errazago hartzen du. Nik, dena dela, idazlearen lekuan naizenean –denek oro har nik uste–, editoreari nire lanean sinetsi dezan eskatzen diot. Editore eta idazlearen arteko harremana gauza afektiboa da idazlearen ikuspegitik... Idazleak mimatu dezaten nahi du.

I. MUJIKIRAOLA: Ados nago. Psikologoa izaten ere ikasi behar du editoreak. Eta psikologoaren ofizioa akatsak eginez, hanka sartuz, ikasten den ofizioa da. Zuk, Ur, ongi esan duzun bezala, idazleak artega eta urduri ematen dio bere lana editoreari. Une horretan berea da munduan dagoen lan bakarra; jakina, ordu asko sartu baitu lan horretan. Editorearentzat, berriz, beste lan bat da: beste askoren artean, bat. Alabaina, hori egia bada ere, editoreak jakin behar du idazle horrentzat besterik ez dagoela une horretan. Eta idazleak, berriz, editoreak badituela aldi berean beste hainbat lan gauzatzeko edo bideratzeko. Eta ez denak literaturaren arlokoak. Hori nola eraman aurrera? Ez dago errezetarik, lehen esan dugun konfiantza eta elkarlana dago; baina ziur asko, akatsak eginez ikasten den kontua da.

*Idazle batzuek “liburua erditzea” esaten diote liburua argitaratzeari. Denbora faktorea tartean da, alegia. Liburua gauza bat da editoreari ematen dion unean, eta beste bat kaleratzen den unean. Prozesu horretan denbora joan da, liburuak egokitze baten beharra izan du. Agian, ehun orrialdeko mehetze bat komeni zaio, edo ez. Baina liburua-
ren joan-etorri horretan akatsak ere sortu daitezke. Hots, erditu eta gero, kaleratu bitartean, hazi eta hezi behar da.*

I. MUJIKIRAOLA: Nire ikuspegia biziata da ziur aski, bi aldeetan nagoelako. Nik idazle bezala, editore bati nire lan hori hobetzea eskatuko nioke. Tira, hori da nik

eskatu ohi dudana. Nondik? Alde batetik, zuzenketa lanak daude. Gure hizkuntzan beste hizkuntzetan –edo hizkuntza normalizatueta– baino sakonago da zuzenketa, zuzentzaileek lan handiagoa dute euskaraz beste hizkuntzetan baino. Eta gero literatur alderdia dago. Urrek esan duen bezala, mehetu edo agian zatiren bat gehiago garatu edo landu beharra dagoela iradokitzen da. Edota, adibidez, daukan bukaera aldatu beharra proposatzen zaio idazleari, edota zenbaitetan, lehenago bukatzea, edo mila kontu...

Hori arrunta al da? Edo bakan izaten da idazle eta editorearen artean.

I. MUJIK A IRAOLA: Ez. Ez da gutxitan izaten, eta ez luke izan behar...

Argitalpenen munduan hasi berria den idazleari gogorra egingo zaio hori bat-batean onartzea, bere liburua kamustua izatea, nolabait esanda.

I. MUJIK A IRAOLA: Baina gogor egiten baldin bazaio, idazteaz irudipen okerra duelako da. Batzuetan ematen du idaztea apezgo halako bat dela, eta zer esanik ez, poesia. Poeta batzuk, eta barkatuko didate poetek, badirudi apezgo batean bizi direla, eta haiek idatzitakotik ezin dela ezer ukitu. Eta horrek ez du horrela izan behar, ni iritzi horretakoa naiz behintzat. Idazle kontsokratuak aipatu ditu Urrek, bada, nire 12-15 urteko esperientziari begira haxe esan dezaket: tratatu ditudan idazle kontsokratuek askoz errazago onartzen dituztela aldaketak edo gomendioak hasi berriek baino. Eta onartzen ez dutenean, hasi berri batzuek baino hobeto arrazoitzen dakitela. Denetarik dago alde batean nahiz bestean, jakina.

Kontsokratuena zuk aipatu duzu Ur. Zer esango zenuke idazle ez kontsokratuen defentsan?

U. APALATEGI IDIRIN: Denetarik dago. Gainera, bat nator Inaziok esaten duenean idazletzaren ikuspegi erromantikotik sorkuntza ukiezina bada, idazleak idazletza modu horretara bizi badu, oso zaila dela elkarlanean liburua aurrera eramatea, fintzea edota egokitzea. Hori gauza bat da, horrelako ikusmoldea duen jendea badago, baina funtsean, beste alde batetik ikusten dut baita ere, editoreak baduela malgua izateko beharra, baita kasu batzuetan eskua sartzeko arrazoirik ez dagoela onartu behar duela, eta beharbada, idazlearen borondateak onartzea balio dezakeela. Editorearena iritzi bat gehiago da, ez gehiago ez gutxiago. Luzea litzateke liburu baten arrakasta aurrerikusi ez eta gerriraino hanka sartu duten editoreen zerrenda. Ez dago inon idatzita, eta beharrik horrela den, editoreak liburua bere galbahetik pasa behar duenik. Tira kasuak eta kasuak daude.

I. MUJIKIRAOLA: Bat nator Urrek esandakoarekin, eta orain editorearen ikuspegitik ari naiz jakina.

Beste alderdi batera pasako gara. Behin merkaturatua, non-rena da liburua? Nor arduratzen da liburuaz gehiago?

I. MUJIKIRAOLA: Sen onak edo zentzu komunak dioenez, liburua beti idazlearena da. Beste alde batetik ikusita, liburua kaleratzen denean, liburua irakurlearena da, halakorik balego behintzat. Baina halakorik egoteko arriskua baldin badago da argitaletxe bat dagoelako, eta banatzaile bat, eta liburu denda bat ere bai. Beraz, ez dira bazterrean utzi behar hain begi onez ikusten ez diren beste interes batzuk, interes ekonomikoak, alegia. Liburugintza ez baita altruismo hutsez egiten. Editoreak liburuaren alde egiten du, baina ez literatur ikuspegitik bakarrik. Finean, argitaletxeek liburua ondo sal dadin nahi dute beste liburu berri batzuk atera ahal izateko, funtsean, horrela, argitalpenaren katea biziarazi, elikatu eta hobetzeko lan egiten du edo ustez behintzat hobetzeko.

U. APALATEGI IDIRIN: Ni ez naiz sartuko kontsiderazio juridikoetan, ez bainaiz aski zorrotza izango, alde psikologikoari helduko diot berriz ere: idazlearen ikuspegitik, hein batean, idazleak bilatzen duena editorearen ospea da. Katalogo aberats eta distiratsua duen editorearekin argitaratzea autore eta obra horien guztien balioaren zati bat eskuratzea bezala da idazlearentzat. Bestalde, maila konkretoago batean idazleak zera eskatzen dio editoreari, zabalpen txukuna eta promozio ahalmena, noski. Izan ere, gaur egun liburu bat inprimatzea ez da ezer, liburua ez bada zabaltzen, inprimatua izanagatik ere, ez bada aipatzen eta promozionatzen liburua hilda dago. Alegia, editoreak sinetsi behar du idazlearen lanean. Ageri denez, oso gauza konplexua da, edo ez da horren samurra liburua argitara ematea.

Zuk zeuk konplexutasun hori bizi izan al duzu?

U. APALATEGI IDIRIN: Nik bizi edo ikusi izan dudana hau da: idazle bat zapuztua sentitzen denean bere liburua duen harrera eskasarengatik, arrazoi ezberdinak tarteko, instintiboki editoreari egozten diola errua. Kasu batzuetan gerta daiteke arrazoa izatea eta beste batzuetan ez. Jabetzaren arazoa korapilo horren barruan kokatu behar dela uste dut, oso harreman berezia da editorearen eta idazlearen artekoa, eta idazle gisa babesa bilatzen duzu editorearengan.

Analogia asko egin daiteke: prostituzioarekin adibidez, txuloa eta prostitutaren arteko harremana. Edota feudalismoaren sistemarekin, hau da, nik babesa eskaintzen dizut eta zuk niri produktua ematen didazu, ni “aberasteko”. Gehien aberasten dena editorea baita, eta esan dudana hau badakit oso erlatiboa dela. Izan ere, gurean ez dut uste editoreak asko aberasten direnik liburugintzarekin, edo literatur arloko liburugintzarekin behintzat. Baina, idazlearen sentimendua da: “joño, zer-bait gehiago eskura nezake”.

I. MUJIKA IRAOLA: Gehien “aberasten” dena editorea bada, inor ez da askorik aberasten... Nik dakidana da, hondoratzeko arriskurik handiena editorearena dela. Idazleak badu beste heldulekurik, oro har, banatzaileak eta liburu dendak, liburua saltzen ez bada, itzuli egiten dizute. Baina editoreak ordaindu egin behar ditu inprenta lanak beti. Ezin dio inprentari esan, “A, liburu hau ez da saldu, beraz ez dizut ordainduko”.

Idazleak izateaz gainera, Alberdania eta Utriusque Vasconiae argitaletxeen editoreak zarete hurrenez hurren. Inazio, Alberdaniak zein generori ematen dio aukera gehiago? Poesiak eta saiakerak ez bide dute dirurik ematen-eta.

I. MUJIKA IRAOLA: 1993an sortu zenetik Alberdaniak literatur genero guztiak landu nahi zituela aditzera eman zuen, literaturaren muga barruan edo kanpoan, baina literaturaren mugetatik sobera ere aldendu gabe. Uste dut hitza bete dugula. Noski, poesia nahi genukeen intentsitatearekin landu al dugu? Ez. Baina ez ditugu jasotzen argitaratzen ditugunak baino askoz poesia liburu gehiago. Liburu on bat izan eta argitaratu ezinik geratu, hori ez zaigu askotan gertatu. Tira, poesia sailean, guk urtean bat edo bi liburu argitaratzea daukagu. Saiakera lanetan gure esperientzia ez da batere txarra izan, gure liburu salduenen artean badira saiakerak, badira hiruzpalau ondo saldu direnak, baina badira batere saldu ez direnak ere. Gu saiatzen gara liburu bakoitzarekin aurreikuspen bat egiten. Hau salduko da, ongi; hau ez, baina hala ere kaleratu egin behar da. Alabaina batzuetan ez dugu asmatzen. Hor dugu *Kutsidazu bidea, Ixabelen* kasua.

*Kutsidazu bidea, Ixabelen kasua euskal literaturan mugarrria dela esango nuke, alde askotatik ere begiratuta. Han-
hemenka entzuten dudanaren arabera, zuk Inazio ez bide
zenion bide luzea eta oparoa igurikatu...*

I. MUJIK A IRAOLA: Ez da xuxen horrela. Legenda bat da hori gure literaturaren mintzalekuetan. *Kutsidazu bidea, Ixabel* –bidenabar, beste izenburu batekin etorri zitzaiguna– irakurri nuenean, argitaratu egin behar genuela esan nion Jorge nire lankideari. Kontua da guk argitaletxe “serioaren” ospea genuela. Hau da, *Otto Pette* eta *Itzalen itzal* liburuak atera berriak genituen, liburu “seriotzat” joak. Hala ere, guk esan genuen “liburu honek –baita guri ere– on egingo digu”. Eta hitzez hitz esan nuen: “Lehen edizioa agortuko dugula uste dut”. Gezurrik ez nuen esan, jakina, lehen edizioa agortu zelako, eta ondoren hogeita hamar baino gehiago etorri zirelako. Beraz, batetik, liburuarekin gertatua gertatu ondoren, esamesa ugari zabaldu da nonbait bazterretan. Eta bestetik, bistan denez, editorearen begia ez da beti fidagarria.

Liburu batek salba al dezake argitaletxearen ekonomia urte batez? Liburua, horrenbeste saltzeak edo ez, ez du berez ona edo txarra denik esan nahi, ezta argitaratu behar ez denik ere. Literaturaren funtzioak betebeharrak asko ditu-eta.

I. MUJIK A IRAOLA: Liburu batek urtea salba dezakeenik asko esatea da. Hau da, liburu batek koska on batzuk igo ditzake zure ekonomiaren zenbakiak, salba dezake pixka bat. Urtean liburu dezente ateratzen duzunean, zailagoa da ordea; guk 30 liburu inguru ateratzen ditugu urtean, batzuetan gehiago ere bai, orduan bakar batek ez dizu onura hori ekarriko. Hasi berria zarenean, gutxiago kale-ratzen duzunean, hori gertatzea errazagoa da, posiblea goa da.

Utriusque Vasconiae beste maila batean ari da, berriagoa da. Beste alor eta funtzio batzuk betetzeko sortua pentsatzen dut. Tamaina eta mota honetako argitaletxeak nola moldatzen dira?

U. APALATEGI IDIRIN: Gure problematika zeharo ezberdina da, gurea ezin dugu Alberdaniarekin edo argitaletxe

handiagoeekin konparatu. Utriusque Vasconiaek baditu urte batzuk, eta katalogo polit samarra osatu du dagoneko. Gurea bokazioz sortu izan zen nolabait, behar konkretu bati erantzuteko, hau da, unibertsitateko euskarazko argitarapenei leku egiteko edota arlo horretan espezializatzea eta zegoen hutsuneari erantzun bat emateko. Besterik ez. Denok dakigunez sektore hori ez da komertziala, irakurlegoa mugatua da kopuruz eta hori arazo handia da abiatzeko unean. Nola eman iraupenik halako asmo bati? Utriusque Vasconiaeren erantzuna sinplea izan zen eta horrela jarraitzen du izaten: argitaletxean inork ez du zentimorik kobratzen argitalpen lanarengatik, autoreak dira kobratzen duten bakarrak, eta horri esker gure argitalpen politikan anbiziotsuak izaten segi dezakegu. Hau da, biderik izango ez luketen eta guk gustuko ditugun liburuak argitaratzen segitu nahi dugu politika hau eramanez.

Gero, arrazoiak arrazoi, beste sail bat ireki behar izan genuen, eleberri alorrean, aipatze beharrik ez dagoen liburu [*Gure Gauzak S. A.* Ur Apalategi Idirin] baten inguruan. Baina, potentzialki komertzialagoa izan daitekeen sail batean sartzen zarenean ikuspegia eta politika aldatzen da. Tira, gure esparrua guk finkatu dugu, eta horri duin erantzutea da gure asmoa.

Amaitzeko, Durangoko Azokak zer neurrian bermatzen du liburuaeren arrakasta, ekonomikoa nola literarioa. Zein da azoka honen garrantzia? Beti ere, lantzen ari garen idazle eta argitaletxearen arteko esparrutik begiratuta.

I. MUJIKI IRAOLA: Badago oinarrizko gauza bat: euskal irakurleak Durangori zerbait eskatzen dio. Bere idazle gustukoaren liburuak nahi ditu. Bisitaria joan egiten da eta liburua erosi egiten du. Urtean zehar hainbeste erosten ez duen jendea da gainera. Durangoko Azokan idazle eta argitaletxearen arteko harremanetan badago erabaki

garrantzitsu bat. Hau da, zein dira argitaratu behar diren liburuak? Izena duten idazleak? Izenik ez dutenak? Liburu errentagarriak huts-hutsik? Idazle hasi berri bat nekez eraman daiteke Durangora. Oharkabean pasatuko da. Puntako idazle bat, berriz, komeni da Durangon. Nik 1987an argitaratu nuen nire lehen liburua. Orain ez da orduan bezala, eta hau eskarmentutik diot. Orduan liburu batek azaroan edo abenduan bidea egiten ez bazuen ere, maiatzean egin zezakeen. Orain oso zaila da hori. Beraz, idazle hasi berri bati ez dio onurarik ekarriko Durangoko Azokan estreinako argitaratzea.

U. APALATEGI IDIRIN: Durangoko Azoka saihestezina da, existitzen da, Inaziok ondo azaldu du nola funtzionatzen duen Durangok. Nolanahi ere, zer egin daitekeen eta zer ez, argialetxe bakoitzak jakin behar du eta horren arabera bere estrategia antolatu eta zehaztu. Nire ustez, editore bezala liburu on bat baldin baduzu, sinesten baduzu liburu horretan, eta idazle ezezaguna baldin bada, ni liburuak Durangoko Azokatik at bere bidea egin dezan saiatuko naiz. Durangoko Azokak ez du bermatzen betiere liburuaren arrakasta, elefante ultra-mediati-zatuena salbu. Eta hori ere ikusteko dago. Izan ere, denok dakigu salmenta kopuruen inguruan gezur asko esan direla azken urteotan.

2006/Martxo

KONTALARIEN MENTURAK

Joxe Mari Carrere, Koldo Ameztoi eta Itziar Zubizarreta.

“Ene, zer ondo! Haurrei horrelako gauzak kontatzen dizkiezu? Zein ondo, ezta?” (Joxemari Carrere). “Jendeak agurtzen zaitu karrikan, baina askok ez daki zergatik, zein lanetan ari zaren...” (Koldo Ameztoi). “Definitu gabeko generoa da ipuin kontalaritza” (Itziar Zubizarreta). Hauxe adierazi digute kontalari hauek ipuin kontalarien ospeaz eta ipuinaren egoeraz galdeturik. Tira, den-dena ez da ilun eta triste beren munduan. Aitzitik, irriz urratuak aritu gara eurekin. Umorea bere baitan daramate, baina ez dute kexua ezkututzen. Kontalarien kontuez solastatu gara Itziar Zubizarreta ordiziar-donostiar, Joxemari Carrere errenteriar eta Koldo Ameztoi hazpandarrarekin. Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kala-bazan eta atera dadila *Argian*.

“Ipuina nire barren-barrenean dagoen zerbait da, noizean behin, bere formak eta irudi bitxiak kanporatzen dituen. Batzuetan umorearen forma hartzen du, eta bestetan beldurrarena edota samurtasunarena. Kontalariok hitzen bidez biziarazten dugun zerbait da ipuina”, diosku Itziar Zubizarretak. “Nirea sinpleagoa da, errenteriarrok donostiarrak baino sinpleagoak gara” dio Joxe-

mari Carrerek. “Jakina gu donostiarrok elegantegoak gara”, Itziarrek. “Orain, seriocki: Ipuina formatu batean emandako adierazpena da. Batzuek pintura edo musikaren bidez adierazten dute eta guk ipuinaren bidez. Hortik aurrerako azalpena konplikatua da. Alegia, bakoitzak berau nola sentitzen duen eta beste”. Koldo Ameztoi hazpandarra horrela mintzo zaigu: “Niretzat ipuina nahas-mahas izan daiteke, kontalariok olerkigintza, irudiak eta zinema daramatzagu buruan eta istorioak kontatzeko moldea asmatzen dugu, kontalariok nahas-mahas, saltsa gisako bat apailatzen dugu”.

Horra nola jalgitzen den ipuina beren baitatik edota nola loditzen den saltsa beren barnean...

I. ZUBIZARRETA: Nik ipuina kanpotik jasotzen badut ere, nire-nirea egiten dut, ipuinari azken puntua ematen diot. Bestela ipuina deskribatu egingo nuke, ipuina nire baitatik bizi eta helarazi behar dut. Alegia, hau zer den edo han zer gertatu den kontu nezake, baina hori ez da ipuina kontatzea.

K. AMEZTOI: Garai batean, astean behin kontatzen nuen ipuin bat irratian, eta ipuina azaletik kontatzen nuela ohartu nintzen laster, ipuinak mamia eta arima falta zituela. Ikuskizunetan berriz, ipuina geureganatzen dugu, gure ikuspegia eta erritmoa barneratu eta gure arima ematen diogu. Ipuina landu ahala berpiztu behar baitugu, tes-tuan dauden irudiei bizia ematea... hori da kontatzea.

J. M. CARRERE: Bai horixe! Gurea ondo kopiatzearen edo imitatzearen artea da (Irriak).

Ipuina sutondotik aldendu omen zen, kontatua izatetik idatzia izatera pasa omen zen...

J. M. CARRERE: Bai eta ez. Mintzatzen jarraitzen dugu, ez gara idatzizko kultura soil batera pasa. Idazten ikasi dugu baina ahozko kultura bizia dugu. Jakina, garai ba-

tean ahoz egiten zen gauza asko orain paperera pasatzen da. Antzina ahozkotasunaren garrantzia baztertu zen, alfabetizazioari garrantzia gehiegi eman zitzaion, hau da, alfabetizatua kulturaduntzat jo zen, alfabetizatu gabea berriz ezikasizat. Idazten ez jakitea ezjakina izatea da nonbait, eta istorio horiek idatzi dituztenak pertsona kultoak ziren nonbait. Uste hori gailendu da, ahozkotasuna ez da galdu, prestigioa galdu da beharbada eta gu prestigioa berreskuratu nahian ari gara.

I. ZUBIZARRETA: Ahozko eremuak aldatu egin dira. Ipuinak tradizionalki erabili duen etxe bazterreko eremua, sutondoa, hori zeharo aldatu da, hobera edo okerrera egin duen ez dakit esaten, baina aldatu egin dela bai. Lehenagoko tradizioa guregana idatziz etorri zen, gure garaikook kultur haustura izugarria eduki dugu euskararekiko eta euskal tradizioarekiko.

J. M. CARRERE: Hizkuntza aipatuta, elebidunok Euskal Herrian bi mundu bizi izan ditugu, alfabetizatua eta alfabetizatu gabekoa. Bigarren hau euskal mundua da, euskal kultura belarritik heldu zaigu eta erdal mundua batez ere idatzizkotik.

K. AMEZTOI: Nire kasuan bietara ere jaso ditut ipuina nola gure historia.

Ipuinak kontatu ahala aldatzen doazela diote. Ekitaldi berean eraldatzen da amfñi bat eta ekitaldiz ekitaldi are gehiago aldatuz doa... Diotenez, kontatzeak beste izari bat ematen dio ipuinari, istorioa eraldatu ahala ideiak pilatzen eta berritzen doaz. Ahozko diskurtsoek nahiz idatzitakoek antza handia badute ere ezberdinak dira. Ipuina idazteak zailtasunak dakartza, bereziki berau entzuleari helarazteko bada. Ipuinaren kontakizuna arte bilakatzen da.

I. ZUBIZARRETA: Nik ez dut ipuina inoiz idazten.

J.M. CARRERE: Nik ez dut pazientziarik.

K. AMEZTOI: Nik batzuk idazten ditut beste batzuk ez...
Gogoan daramatzat gehienak.

Sutondoko edo supazter usaina gorde dute kontalariek baina...

J.M. CARRERE: Nire su-txokoa butanoaren ondokoa izan da (Kar, kar...). Garai batean izango zen halako zerbait, supazterrekoa ez da guztiz mitoa, ezagutu duen jendea izan badago, baina mitoa bihurtzeko nahia izaten da.

K. AMEZTOI: Jendearen buruan badago holako zerbait: txokoa, supazterra, sutondoa. Ondo dago bai txoko bero bat jendearekin harreman goxoa izateko. Zenbait txokotan antolatzaileek sua pizten digute, “publikoa sutondoan ezarriko dugu eta ni bestaldean...” esaten diet nik, guk publikoa su eta bero atxiki behar baitugu (Kar, kar. kar.).

Egun, ipuin kontalaria eszenatoki batean aritzen da. Aldaketa horrek hala edo nola eragin izan du ipuinaren kontaktetan. Eszenatokiaren estetikak badu bere munta. Ezaugarri hauek hobestea edota ezestea ere komeni da zenbaitetan.

I. ZUBIZARRETA: Nik distantzia oso motzean kontatzen dut ipuina, eskoletako geletan adibidez edo liburutegietan. Espazio txikietan nik umeak ukitu egiten ditut. Mikrofonorik gabe betiere; bestelako emanaldiak ez ditut egiten.

J.M. CARRERE: Nik uste espazioak duela garrantzi gutxiena. Garrantzia duena hauxe da: kontaketa nola hartzen den, zein garrantzi ematen zaion... Itziazrek hurbilekoa azpimarratu du, ondo, Koldok eszenatokia gehiago lantzen duela dakit, ondo. Baina hori antolatzaileen kontua izan behar luke. Hau da, ipuina kontatzeko txoko hau edo beste nahi dugun galdetu beharko ligukete. Kontalariari leku egokia zein den galdetu behar zaio,

kontalariak esan dezan. Ipuin kontaketek dantzaldi edo antzerki baten mailako garrantzia hartu beharko lukete antolatzaileentzat. Antzerkia egiteari adina garrantzia eman behar zaio ipuinaren kontaketari berau antolatzeari, eta batzuetan “honekin nahikoa duzue” entzuten dugu. Kontzeptu estetikoak leku batetik bestera aldatzen da, baita ipuina ere. Beraz, kontalariak ikuskizunaren arabera muntatuko du espazioa.

Koldok eszenatokia gehiago lantzen duela erran du Joxe Marik. Ikastetxeko gela eta liburutegietatik haratago joanez zenbaitetan: antzokira nola telebistako platora.

K. AMEZTOI: Teknikoki gauza politak egiten dira ere platoetan, hurbiltasuna lortzen da kameraren bitartez. Teknika berriak daude eta ausartu beharra dago hauekin ere. Parisen egindako agerraldiren batean bizi izan dut egoera hori, kamera ondo eramana zen, nire burua pantailan ikusten nuen aldi berean... Baina guk kontatzean teknika ahazten dugu, guk irudimena lantzen eta helarazten saiatu behar dugu, jendeak hori sentitu behar du. Efektuak ere bai, baina trabarik egin gabe.

Antzerkiaren jokoak ipuinaren adierazkortasunean garrantzi bizia dauka, ipuinlariak eta antzezleak bat egiten dute kontalaritzan.

I. ZUBIZARRETA: Bitarteko bera erabiltzen dugu aktoreek nahiz ipuin kontalariak. Instrumentu bera dugu, gu baikara instrumentu edo tresna. Gero, formatuak ez dira berdinak antzerkian eta ipuin kontalaritzan...

J. M. CARRERE: Kontalariok horrelako eztabaidak izaten ditugu. Irakasleren batek eztabaida hori antzua dela esan dit inoiz. Orduak eta egunak pasa ditzakegu gauza bakoitza definitu ahal izateko. Antzerkia eta kontaketa zehaztuta ere, bakoitzak bere definizioa dauka. Finean, eszenatoki gainean burutzen dugun adierazmoldea da

kontalaritza. Italian ez dizute eztabaida gauzatzen utziko ipuinaren tradizioa dela-eta. Artearen komedia dela tar-teko, bi generoak, antzerkia eta kontalaritza oso hurbil daude. Dario Fo aktoreak egiten duena asko hurbiltzen da kontaketa. Erdi Aroan kokatutako istorioa bada, demagun, jendearengana iristeko moldea berreskuratzen du Fok. Ikusleak edo entzuleak badaki aurrean kontalaria edo aktorea duen.

K. AMEZTOI: Baiki. Antzerkilari izateak laguntzen gaitu ipuingintzan, apainduran, irudiak sortzen. Baina berezi behar dira, norbait antzerkilaria izan daiteke baina kontalaria izateko gaitasunik ez. Gurea beste mundu bat da, kontalariak hitzen bitartez mundu bat sortu behar du.

I. ZUBIZARRETA: Keinu eta mugimenduen bitartez, ez dagoena irudikatzen dugu.

Kontatzeko espazio eta leku ezberdinak daude. Eta horietan badago ipuin kontalariaren jarduna baldintzatzen duena...

J. M. CARRERE: Pentsa! Ni tabernan aritzen naiz eta gauza asko ikusten dut: bat-batean aitzur galantarekin sartzen dena, zu ipuina kontatzen ahalegintzen zaren bitartean hizketan dagoena. Halaber, azken hauek isiltzen saiatzen den bitartean trabatzen zaituena edo zure euskara zuzentzen hasten den eroa ere badago.

K. AMEZTOI: Ni saiatzen naiz horrelako egoeretan ez kausitzen (Irriak). Publikoaren artean badago denetarik, niri ametsetan gertatzen zaizkit larritasun egoerak: hau ahantzi dudala, beste hori falta zaidala, ez dakit nor mintzo dela...

Eta, bidez bide eta ekinaren ekinez, ipuina moldatu behar hori ere badago.

I. ZUBIZARRETA: Bai, bai, bai... Bukaera adibidez. Nik ez badut unea gustukoa, bada luzatzen edo mozten dut. Liburutegietan aritzen naizenean nire arerioa espazio

txikia da... gainera, dudan genioarekin –”Nik ere badut! dio Joxemarik–. Haurrek mingain puntan duten gutzia kanporatzen dute, eta denetarik dago: antolatutako taldeak, eskola bateko haurrak... Beti badaude pare bat bere kontuak eta txalapartak ateratzen dituztenak. Hasieran ezin nuen nire ezina agertu, hori izan da nire arerio nagusia. Nire desafioa distantzia hartzen ikastea izan da, umeak nireganatzea, partaide bihurtzea eta gus-tura bukatzea.

K. AMEZTOI: Isiltasuna lortzea izugarria da, lan handia, ume txikiak isiltzeko gakoa isiltasuna erdiestea da, isilik egotea, tente eta tinko, eta berriz hasi...

I. ZUBIZARRETA: Ni lehenago sartzen naiz eszenara, espazioaren jabe egin, eta orduan, haiek sartzen diren heinean, bakoitzarekin, isil-isilik hizketan hasten naiz: “zu eseri hor eta zu beste leku horretan...” Ni hor naizela adieraziz, modu hori errito bihurtzen da, errito landua... Ondoren ipuina hasten naiz kontatzen, haiek kontatzen ari naizela ia konturatu gabe.

J. M. CARRERE: Kontua komunikazioa lantzea da eta horretarako egoera egokia bilatu behar da, ezberdina da antzoki batean egon, terraza batean, taberna edo liburu-tegi batean. Garrantzitsua da adieraztea zu hor zaudela, isilik edo keinuz “nire txanda iritsi da” adieraziz.

Kontalaria betiere, bakardadean bada ere...

K. AMEZTOI: Kontalariak badu ere askatasuna –publiko txintxoia bada, Joxe Marik erran bezala (irriak)–. Ohitzen gara, ofizioa da gurea. Magia ikuskizuna da, askatasuna helarazten duena. Ipuinak dauzkagu, baina publikoa nolakoa den asmatu behar dugu aldian-aldian. Gertakari bat tarteko ipuina moztu behar bada, moztu, eta errit-moa azkartu behar bada, azkartu. Bakarrik izanagatik askatasun horrek indartzen gaitu.

J. M. CARRERE: Lagun batek esaten dit toreroak baino adore handiagoa dugula. Antzerkian aritua naiz eta ipuina kontatzeko unean inpresio handiena jendearen gertutasuna da, antzerkian urrunago duzu jendea. Fokoak tarteko, telebistan bezala-edo, distantzian zaude. Ipuina kontatzean ez dago laugarren pareta, ez du balio zure baitarako bakarrik kontatzeak, publikoari kontatu behar diozu, antzerkian zure baitan egon zaitezke une batez edo bestez, publikoa ignoratuz, kontalaritzan ez. Agertokira atera eta jende guztia zuri begira egote horrek inpresionatzen nau oraindik ere.

I. ZUBIZARRETA: Eta beharrik badela hori, zirrara alegia. Kontalaria izatea askatasunaren ordaina da.

KOADROA

Kontalarien lan gutxietsia

Gaztelaniazko “*Vivir del cuento*” esaldiaren konnotazioa aipatu diegu hiru kontalarioi: “Ni marxista naizen aldetik, tinko diot: gu ez gara horrelakoak, ez gara inoren kontura bizitzearen aldekoak”, diosku Carrerek. Ameztoik hauxe berriz: “Nik ez dut ulertzen espresioa”. Zubizarretak, berriz: “Hara, bestea, nik ere ez...” (Irriak). Segidan baina, serioago jardun dute egungo kontalarien lan egoeraz:

JOXEMARI CARRERE. Lana nola dagoen baino, niretzat kontua da berau nola antolatuta dagoen. Azpiegiturarik ez dago. Liburutegiak baliatzen dira gure lanerako, eta ez dakit zergatik kontatu behar diren ipuinak liburutegietan eta ez Kultur etxeetan edo antzoki batean. Tira, badakit zergatik den: literaturarekin lotzen delako. Baina zergatik ez da antzerkia liburutegietan jokutzen, bertan antzerki liburuak badaude?

Ipuina lotuegia da haur munduari, dirua hortik ateratzen da-eta. Liburutegi gehiegitan antolatzen da. Zabor bilketa dagoen bezala, bada kontaketa zerbitzua. Gu kontalariok oso sinpatikoak gara haurrekin, gurasoak kafe orduan haurrengandik libratzen ditugulako. Horregatik egiten duguna gutxiesten ote den nago, eta guk geuk horren kontra egin behar dugu, ezin dugu edozein baldintzatan lanean aritu. Merkataritza guneen adibidea aipatuko dut. Beti dago dioena: “zer ondo ipuin kontalaria hemen”. Bada, Merkataritza guneetan aritzen garenean gure buruaren aurka ari gara, baldintza duinak edo gutxienekoak betetzen ez dituzten esparruan aritzea onartzen baitugu. Jakina, ezin dugu pentsatu ere beti baldintza onenean edo nahiko genukeen tokian arituko garenik, baina guk garrantzirik ematen ez badiogu ez dio beste inork emango. Gure lanaren gainean gogoeta egin behar dugu. Jendeak “ipuina haurrentzat kontatzea? Erraza da hori” pentsatzen du. Bada, ez. Helduentzat errazagoa da haurrentzat kontatzea baino. Beste mundu bat irudikatu behar dugu haurrentzat. Gure burua zaindu behar dugu, beraz. Gure kriterioak ezarri behar ditugu gure lanean. Eta liburutegiko teknikariek gurea musika edo antzerki saioa balitz bezala hartu behar dute, garrantzia eman ez eta egiten dugunaren ezagutza gutxieneko bat izanez.

KOLDO AMEZTOI. Euskal Herrian azpiegitura gutxi dago euskaraz, baita frantsesez ere. Frantziako Estatuan barrena eta munduan gaindi ibiltzen naiz eta molde gehiago daude; kanpoan asteburuan aritzen naiz gehienbat. Frantzia aldean liburutegietatik landa onartuagoa dago hemen baino: gizarte eremu askotan eta berezko eszenatokietan, ikastetxeetan hala nola presondegietan ere sarri aritzen gara. Frantzian usatuagoak gaude kontalaria eta musikaria elkarren ondoan ikusten, arte modu ezberdinak uztartzen dira, Euskal Herrian ez dugu esparru hori

muntatua. Euskal Herrian ipuina euskarari eta liburutegiari sobera lotua da. Ez da ikusten taula gainean agerraldi eta arte gisan horren onartua. Frantsesez aritzen naiz gehiago orain, garai batean ez bezala. Iparraldean ere bai, etsigarria da baina egoeraren isla da. Garai batean ipuinak euskaraz nituen gogoan eta frantsesez kontatzen nituen, gerora konturatu naiz, behar nituela bereizi, baita beste gisa batez idatzi ere. Alabaina, bi hizkuntzen arteko aberastasuna lortu dut, batetik bestera ekartzeko hori polita da. Elkar aberasten dute eta gero ipuinak bere bidea hartzen du. Euskal Herriko kultura ezagutu gabe, ipuin batzuk ezin dira kontatu frantsesera itzultze soilarekin eta alderantziz. Hegoaldean ere aritzen naiz, baina ez askotan.

ITZIAR ZUBIZARRETA. Ipuin kontalaritzan lantzen ari den azken burutazioa irakurketa kanpaina antolatzea da eta horren barne ipuin kontaketa, ipuina kontatzeagatik haur asko eta asko –honela artikulatzen da ideia– irakurketara hurbiltzen omen dira. Eta hori faltsua da. Demagun egia dela, bada, gu erabiltzen gaituzte haur txikiak entretenitzeko. Zoritarrez horiek ez dute irakurketa zereginarekin loturarik, gurea sari modukoa da haurrentzat. Kontalaria kontratatzen dute eta primeran dago haurrentzat, gurea ondo pasatzearekin lotzen da. Liburutegietara hurbiltzen diren haurrek bospasei urte dituzte, zazpi gehienez. Adibidez, Ray Buenok ipuin kontaketa zoragarria eskaini du azken urte honetan, *Beldurraren aretoa* ekitaldiaren inguruan. Ray kontalari oso ona da, baina jende gutxi hurbildu da. Horrenbeste kanpaina eginda ere, zure buruari galdetzen diozu: “Ba al du funtsik egiten dugun horrek. Itxura baino ez ote?”.

FLASHAK

Kritika

“Saioan parte hartu duen jendearen aldetik badago erantzun zuzena, baina kritikarik ez; ez antzerki edo literatur obra bat kritikatzan den bezala behintzat. Gu ez gara inor. Inor gutxi”. *Itziar Zubizarreta*

Ospea

“Ospea eta ospela elkarren ondoan doaz gurean. Badago gauza bitxi bat, inork ez dakiela gurekin zer egin... Kontalaria interesgarria da, baina ez gaituzte eza-gutzen, ez gaituzte entzun edo ikusi, edo oso gutxitan. Antzerki mundukoek edo idazleek ere ez gaituzte entzuten arrazoi sinple batengatik, helduentzako emanaldi gutxi antolatzen delako. Hori bai, sinpatikoak gara”. *Joxe Mari Carrere*

Ez osperik ez kritikarik

“Ez dago horrelakorik, Joxemariaren lagun horrek toreatzaile gisa hartzen bagaitu ere. Bravo esan orde, eskerrik asko esaten digu jendeak orain. Errekonozimendu gisako zerbait da. Ongi da”. *Koldo Ameztoi*

MAHAI-INGURUAK

2002/ekaina	Literatur kritikaren gazi- gozoak	15
2002/abendua	Nork irakurtzen ditu euska- razko liburuak?	29
2002/abendua	Kazetaritzaren eta literatura- ren arteko amodio eta desa- modioak	43
2003/maiatza	Euskal literatura idatzia 1900 arte	55
2003/maiatza	Antton Olariaga eta Joxean Muñoz marrazkia eta testua ohe bereko bikotekideak	65
2003/urria	XXI. menderako poesiaz hausnartzen	77
2004/urria	Herri antzerkia atzo eta gaur .	87
2004/apirila	Harrimenez eta espantuz oraindik argitzen du Orixek .	97
2004/azaroa	Literatur belaunaldien arteko harremanaz	115
2005/abendua	Konfiantza, editore eta idaz- learen oinarria	135
2006/martzoa	Kontalarien menturak	147

KRITIKA LITERARIOA

bilduma

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): *Belaunaldi literarioak auzitan*, 2005
8. Iban Zaldúa: *Animalia disekatuak*, 2005
9. Jon Kortazar: *Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz errimesa*, 2005
10. Paulo Iztueta Armendariz: *Euskal idazleen belau-naldiez*, 2005
11. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 1. Elkarrizketa literarioak 2000-2006*, 2007
12. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 2. Mahai-inguruak 2002-2006*, 2007